



## Herriko lasterketan lehiatzeko gertu berriro

Euskal Herriko atleta onentsuenak batuko dira Oñatin zapatuan, baita emakumezkoak ere / 38

Marisol Ramos eta Amaia Bernal, Oñatiko Foruen plazan, lasterketako zenbakiak eskuetan dituztela.

XABIER URZELAI

# Emakumeak dantzan Corpusetan

Oñatiko Corpusetako prozesioan eta dantzetan parte hartuko dute emakumeek, lehen aldiz, jai berri eta eguneratzea erabaki ostean / 34

### SINADURAK

	SAIOA GARITANO / 25
	OSKAR ELIZBURU / 8
	MARINA ETXEGOIEN / 35
	IKER ELEMPURU / 17
	MIKEL IRIZAR / 48

**puntuak**

Arantxa Urretabizkaia idazleari elkarrizketa

Ohitura berriak kulturari: hainbat eragileren iritziak

**2 mó betaurreko:**  
graduatuak  
erreflexuen aurkako leiarrekin  
+ eguzkitako graduatuak  
**99€**

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria  
Irun • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Gure betaurreko guztiak 2018 bildumakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

---

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan



Edesa Industrialeko Garagartzako lantokia. IKER OÑATE

# "Azkenaldian, nabarmen murriztua zen enpresako langile kopurura, etor zitekeenaren beldurrez"

Edesa Industrialeko eta Geyserreko langileak asteon hasi dira kaleratze gutunak jasotzen. Orain, aurrera begira dihardute, nor bere egoeran. Beste enpresa batzuetan birkokatu dituzte zenbait; horren esperoan dira beste batzuk; eta erretiro aurreratuaren aukera gertuago ikusten dute hainbatek. Ostera, badira bazkide ez diren langile ohiak ere, "kale gorrian" direnak. Oro har: "Aurreikus zitekeen porrota"

## Iker Oñate DEBAGOIENA

Azken urteetan, beherako bidean izan da Edesa Industrial. Eta hainbat eztabaida piztu izan dira horren bueltan –lanpostuak, Fagor marka...-. Horri lotuta, eztabaidagaiak ebazten hasia da konkurtso-legeko epailea. Tartean, enpresako langile gehienek kaleratzea onartu zuen maiatzaren 3an –marketin alorreko 12 pertsona mantentzea erabaki du Edesa Industrialek-. "Langile ordezkariak bidalitako oharrean ezagutu genuen epailearen erabakia", diote langile ohiak. Orotara, 137 dira kalean geratu diren langileak: Edesako 90 –Fagor Etxetresnetakoak eta Edesako langileak-, Geyserreko 35 eta Edesa Industrialek berak kontrataturiko 12.

Eta jada hasiak dira kaleratze gutunak jasotzen. Geyserreko langile ohiak eguaztenean joan ziren horren bila; esperoan dira gainerakoak. Esan beharrekoa da jatorri askotariko langileak zituela Edesa Industrialek: Fagor Etxetresnetakoak, Edesako Basauriko lantokikoak, Geysereko enpresakoak eta Edesa Industrialek kontrataturikoak. Hala, "hasieratik hasi beharra" dute horietako zenbaitek –kooperatibako bazkide ez direnak-; eta birkokatuta edo horren esperoan dira beste zenbait. Erretiro aurreratu geroago eta gertuago ikusten dutenak era badaude, tartean. Hori horrela, euren egoera gertuagotik ezagutu guran, Edesa Industrialeko eta Geyserreko zenbait langile ohi-ekin izan da GOIENA.

## XABI MANCEBO

**"Ez da horren erraza izango epe luzeko birkokatzeak lortzea"**

Fagor Etxetresnak enpresako langile ohiak da Xabi Mancebo,



Xabi Mancebo.



Jesus Lasa.

49 urteko arrasatearra. Eta, langile askoren gisara, bi bider bizi behar izan du Garagartzako enpresaren gainbehera –2013koa eta 2018koa-. Hain zuzen ere, Fagor Industrialek birkokatu zuten lehen aldian. Bertan zela iritsi zitzaion Garagartzako lanlekura bueltatzeko eskaera, kontratu mugagabearen eskaintzarekin: "Lagun Aron 3 urteko eszedentzia eman zidaten horretarako. Eta berriki luzatua nuen hori, beste 3 urterako". Enpresaren "porrotaren" ostean, Fagor Industrialek itzulia da dagoneko. Orain, behin-behineko lanaldiarekin dihardu.

Azken hilabeteetan, lan egin barik jaso dute soldata –hala jardun dute epailearen kaleratze baimenez jakin zuten arte-: "Sindikatuak epailearen erabakia jakinaraziz bidalitako oharrekin jakin nuen kalean nengoela".



**Oinarrizko lanbide heziketa:**

- Sukaldaritza eta jatetxe arloa

**Erdi mailako zikloak:**

- Sukaldaritza eta gastronomia
- Jatetxe arloko zerbitzuak
- Okingintza, gozogintza eta konfiteria

**Goi mailako zikloak:**

- Sukalde-zuzendaritza

**Aurrematrikula: ekainaren 4tik 15era**

Presagana kalea 1 behe, 01013 Gastelz  
Tel.: 945 25 80 25  
gamarra@gamarraeskola.com | www.hosteleria.gamarra.com



Ane Alday.



Rikardo Perez.

**ANE ALDAY****"Zaila izango dugu berriz ere enpresa bateko bazkide izatea"**

Geyserreko langile izan zen Ane Alday, 45 urteko aretxabaletarra –1997an sortu zen enpresa, Fagorren eta Vaillantek ekimenez–. Lankideen gisara, 2016an lekual-

**'Fagor' markaren auzia, bukatu barik**

Markaren auzian, behinik behin, Fagor Kooperatiba Elkartearen alde egina zuen Donostiako Merkataritza Auzitegiko epaileak. Baina errekurtsioa aurkeztu du Edesa Industrialek. Beraz, oraindik, bukaerara heldu barik dago auzia.

Epailearen ebazpenaren arabera, Edesa Industrialek ezingo luke Fagor marka erabiltzen segitu, "salbuespen

batzuekin", betiere: Edesa Industrialek marka erabiltzeko eskumena izango luke stockean dituzte produktuak saltzeko eta bezeroei euskarri teknikoak eskaintzeko.

Hain zuzen ere, Edesa Industrialek konpromisoak "ez dituelako bete" aurkeztu zuen auzi eskea kooperatiba elkarteak. Eta epaileak "osotasunean" onartu zuen

hark eskatutakoa. Honela dio 114/18 zenbakia duen ebazpenak: "Argiak izan dira Edesa Industrialek hartzekodun konkurtso aurreko ez betetzeak. Kontratuaren indargabetzea baimentzen da, hartzekodun legearen 62,1 artikuluari jarraiki".

Besteak beste, Edesa Industrialekin sinatutako akordio ekonomikoak eta lanpostuekin loturikoak zituen erdigunean Fagor Kooperatiba Elkarteak.

35 besterik ez zirela. Horiak eguaztenean jaso zuten kaleratze gutuna.

**RIKARDO PEREZ****"Auskalo nola konpontzen duten kalte-ordainen kontua"**

Fagor Etxetresnetako langile zen Rikardo Perez, 43 urteko arrasatearra. Eta, gaur-gaurkoz, egina du birkokatze eskaera. Udaltz kooperatibak du hori kudeatzeko ardura –2013ko krisiaren eraginez, bertako bazkide bilakatu ziren Fagor Etxetresnetako langileak–. "Lagun Aroarekin lotura duen enpresa batean birkokatze esperoan nago orain", aitortu du.

Bestetik, hor dago kalte-ordainen kontua. Perezek "zalantzak" ditu horri dagokionez. "Enpresaren egoera ikusita, ez dakigu nola egingo dien aurre horiei", dio. Konkurtso-legeko epaileak zehaztuta ditu langileendako kalte-ordainak.

Eta, bestetik, gogoan ditu Udaltzako edo Edesako bazkide ez diren kaleratuak. "40 langile inguru dira kale gorrian geratu direnak. Gogoan izan beharrekoa dugu hori", argitu du.

datu zen Garagartzako lantokira –ordura arte Bergaran zuten lanlekua–. Lanaldi erdia izan du duela 5 urtetik, bere lehen semea jaio zenetik, "zaintzarako". Hala jardun du orain arte. Eta, kalean geratuta, urrira arte dagokio langabezia kobratzea.

Hala, oraindik egin barik du birkokatze eskaera. Eta "baikor" da horri dagokionez: "Lana egon badago. Badirudi erritmo onean doazela behin-behineko birkokatzeak". Eta, hor, "zalantzak" agertu zaizkio. "Gatzagoa izan-

go da epe luzerako birkokatzeak lortzea. Harik eta zailagoa bertako bazkide bilakatzea. Berriz ere enpresa bateko bazkide izatea lortzea, alegia", dio.

**JESUS LASA****"Zenbait kasutan, hor dago erretiro aurreratuaren aukera"**

Bestelakoa da Jesus Lasa bergararraren egoera –Geyserreko langile ohia–, laster 60 urte beteko ditu eta. Hark ez du aukera bakar bezala ikusten birkokatzea: "Ez dakit zer eskainiko

didaten; baina hor dago erretiro aurreratuaren aukera".

Eta gogora dakar azkenaldian enpresak jasandako beherakada. "Proiektu berriarekin aurrera egiteko esperantzarekin hasi genuen aldi berria. Baina, denborarekin, zapuztuz joan dira itzaropenak. Jende askok hartu behar izan du Garagartzatik kanpoko lanpostua bilatzeko erabakia", aitortu du. Horri dagokionez, argitu du 2016an Geyserreko 96 langile joan zirela Garagartzara; eta, azken hilean,

Oinarrizko Lanbide Heziketa  
Eraikuntzen mantenua  
Sukaldaritza

**AURREMATRIKULA**  
Ekainaren  
4tik 15era

**konfiantzaz**

**ai arizmendi ikastola PRO**

www.arizmendi.pro.eus

ORDUTEGIA: 09:00 - 13:00

Nafarroa etorbidea, 21 Tel.: 943 79 28 90

# Autogobernu Ponentzia, adostasunerako mugarri

Gaurkotasuneko hainbat gai izan dituzte jorragai asteen Maider Otamendi –EH Bildu– eta Aitor Urrutia –EAJ– legebiltzarkideek 'Hemen Debagoiena' saioan. Tartean, etorkizunean adostasunetara iristeko mugarri bezala dute Autogobernu Ponentzia

Iker Oñate DEBAGOIENA

*Hemen Debagoiena* saioan izan dira asteen Maider Otamendi –EH Bildu– eta Aitor Urrutia –EAJ– legebiltzarkide debagoien-darrak. Besteak beste, PSOEek aurkezturiko zentsura-mozioa, Espainiako Estatuko aurrekontuen onarpena eta Gasteizko Legebiltzarreko Autogobernu Ponentzia izan dituzte jorragai.

Nork berea defendatu duen arren, izan da bat egin duten alorrik ere: Autogobernu Ponentziarena, kasurako. Are: bide beretik jarraitzearen alde egin dute biek. "Ziur naiz Autogobernu Ponentzian ados jartzeko izaniko gaitasunak izango due-



Maiden Otamendi eta Aitor Urrutia, *Hemen Debagoiena* saioko platoon. IKER OÑATE

la eraginik etorkizuneko negoziazioetan", aitortu du Urrutiak. "Besteak beste, horrek irakatsi digu zenbait alorretan ados jartzeko gai izan gaitezkeela bi alderdiok", gaineratu du Otamendik.

Eta, era berean, bi legebiltzarkideak kexu azaldu dira Elkarrekin Ahal Duguk alor horretan izandako jarrerarekin. "Euren ekarpenak ere bazeuden ponentzian, baina atzera egitea erabaki zuten, azkenean. Badirudi eurek folklorismoarekin besterik ez dutela lotzen erabakitze-ko eskubidearena", dio Otamendik. Eta Urrutiarendako, oster, "aurrekusi zitezkeen" zerbait da haien jarrera: "Badirudi PSE barik ez direla halako erabakiak hartzera ausartzen".

## Aurrekontuetan, kontrako iritzia

Bestetik, aurrekontuez ere mintzo dira legebiltzarkideak. Hor, baina, kontrako iritziak dituzte. Batetik, Urrutiak azaldu du PPK aurkezturiko aurrekontuak onartzea "erabaki zaila" izan zela, eta aurretik esandakoa "irentsi" behar izatea eragin zuela. Hori bai, argitu du erabakiak hartzean

"uneoro" izan dutela gogoan Katalunia. Are: azaldu du 155. artikulua indargabetzea "denbora gutxirentzako kontua" izan daitekeenaren ideiaz dihardutela. Eta, bestetik, aurrekontuei buruzko adostasunarekin lorturiko pentsioen igoera eta 540 milioi euroko inbertsio gehigarria ekarri ditu gogora.

Horren kontra, aurrekontuak onartu osteko egunean Katalunian izaniko 30 atxiloketak gogorazi dizkio Otamendik. Eta, gainera, zalantzan jarri du PPK inbertsio gehigarrien inguruan adosturikoa betetzeko aukera: "Aurreko urtean onartu zenuen aurrekontuei lotuta lorturiko inbertsio gehigarrien erdia ere ez da iritsi. Gainera, AHTaren finantzaziora doa diru horren zati handiena. Beste gauzetarako ez da horrenbeste geratuko, beraz".

## Zentsura mozioa, ezbaian

Eta zalantzan jarri dute PSOEek aurkezturiko zentsura mozioaren etorkizuna. "Jada aurkeztua du mozioa, baina, zertarako? Zer egingo du ostean? Hori galdetu behar genioke", diote.

## "Markinako instalazioak asko gustatu zitzaizkidan; horregatik animatu nintzen"

Dietetika eta Nutrizioa gradua unibertsitatean egin eta lan mundutik pasatu ondoren, gaur egun, Lea Artibai ikastetxean Elikagaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea goi mailako zikloa ikasten dabil.



**Maitane Arrondo Zabala**  
(Bergara 1983)

Lea Artibai Ikastetxeko ikaslea da Maitane Arrondo Zabala eta Lanbide Heziketako Elikagaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea goi mailako zikloa ikasten dabil.

## Dietetika eta Nutrizioa ikasi zenuen unibertsitatean, eta dietista ibili zara lanean:

Urte mordoak batez, Kutxako Obra Sozialak eskaintzen zituen elikadurarekin lotutako hainbat tailer ematen aritu nintzen, Gipuzkoa osoko ikastetxeetan, bai ikasle eta baita gurasoekin. Kontsulta pribatuko lanak ere egin ditut, hainbat herritarren elikadurari buruzko kezak argitzeko. Horrela laburtzen da nire ibilbide profesionala.

## Dietetikak eta nutrizioak badauka zerikusirik ikasten ari zaren zikloarekin?

Bai, noski. Dietetika eta nutrizioa elikagaietan oinarritzen da. Horretarako, ezinbestekoa da elikagaiei buruzko informazio osoa ezagutzea. Zikloan, gai hauek lantzen ditugu: elikagaien segurtasuna, teknologia, tratamenduak, analisi sententziala, makinaren mantentze-lanak...

Leartik-en, eskolan dagoen ikerketa zentroaren bitartez bi katatan parte hartzeko aukera izan dugu, eta oso aberasgarria izan da.

## Zergatik aukeratu zenuen Lea Artibai Ikastetxea?

Euskal herrian ziklo hau eskaintzen duen ikastetxe bakarra da. Markinara zentroa ezagutzera joan nintzen eta bertako instalazioak asko gustatu zitzaizkidan –laborategia, planta pilotua, kata gela...-. Izan nuen arreta ere bikaina izan zen; horrela animatu nintzen.

## Zeintzuk dira, zure ustez, Lanbide Heziketa ikastearen onurak?

Eskola teorikoak praktikarekin uztartzen direnez, jasotako ezagutzak erabat aberasgarriak dira. Bestalde, lan merkatuan sartzeko aukera ematen duela iruditzen zait.



Markina-Xemein  
94 616 90 02

info@leartik.com  
www.leartik.com

# Ekintzaz beteta dator Puntaik Punta

Ekainaren 15etik 17ra bitartean egingo dute Debagoieneko bidezidorren jaialdiaren 3. edizioa, Aretxabaletan. Eguaztenean aurkeztu zuten egitaraua: ibilaldiak, bisita gidatuak, pailazo emanaldia eta Kepa Junkeraren kontzertua izango dira

I.O. / J.B. DEBAGOIENA

Geroago eta gutxiago geratzen da Puntaik Punta jaialdirako. Eta azken ukituak ematen dihardute antolatzaileek. Hala, eguaztenean aurkeztu zuten ekainaren 15etik 17rako egitaraua; Unai Elkoro Aretxabaletako alkateak, Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak eta Joserra Zubizarreta Eskoriatza alkateak esku hartu zuten aurkezpenean.

Hala, askotariko ekintzak antolatu dituzte jaialdiaren 3. ediziorako, betiere, osasuna, kirola eta turismoa uztartzeko ahalginean. Besteak beste, ibilaldiak, bisita gidatuak, kontzertuak eta pailazo emanaldia egongo dira egun horietan. Esan moduan, aurten, Aretxabaleta da egitasmoaren jardun leku nagusia.

Gauzak horrela, distantzia eta zailtasun ezberdinetako ibilbideak izango dituzte eskura parte hartu gura dutenek; Urkulo urtegia eta Aizkorri-Aratz natur parkea ezagutzeko aukera izango da, adibidez. Eta, bestetik, sendabelarrak edo izarrak ezagutzeko ekintzak egongo dira.

Dena den, egitaraua ez da horretara mugatuko; kultura espazio ere bilakatuko da Aretxa-

baleta. Hainbat izango dira egun horietan jardungo duten kultur sortzaileak. Bertan egongo dira Kepa Junkera eta Sorginak, Skakeitan, Nogen. Screammers & Sinners eta Krisis taldeak. Eta, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia ere antolatu dute.

Bestetik, argazkigintza, kartografia eta orientazio tailerrak eskainiko dituzte egun horietan. Baita aurtengo berritasunetako bat ere: senderismo azoka. Bertan, senderismoarekin harremanetan dauden argitaletxeak, erakunde publikoak... hartuko dute parte.

Bestetik, aukera aprobetxatuz, ibarreko beste zenbait herritan ere izango da zertaz gozatu. Esaterako, bisita gidatuak egingo dituzte Debagoieneko turismo guneetan –Arrikruz, Laboratorium, Txokolateixia, Bergara Monumentala...–.

## Izen-ematea

Bestetik, ekintzaren bultzatzaileek nabarmendu dute "garrantzitsua" dela ekintzetan esku hartzeko izena ematea –askotan, mugatua da kopurua–. *Puntaik-punta.turismodebagoiena.com* webgunean eman daiteke izena.



Joserra Zubizarreta, Unai Elkoro eta Joxe Migel Uribarren, aurkezpenean. JOSU BILBAO

## Eusko Ikaskuntzaren aitortza, Oñatiko Udalarendako

Eusko Ikaskuntzak ohorezko bazkide izendatuko du Oñatiko Udala, herriak bere ibilbidean eskaini dion babes eta egindako harrera aitortzeko; herriko alkate Mikel Biainek bihar jasoko du aitortza, Eusko Ikaskuntzak Santa Anan egingo duen batzar nagusian –11:00etan–. Dantzariak 10:30ean egingo die harrera erakundeko kideei.

## Atzegi jaiaren 19. edizioa egingo dute, bihar, Bergaran

Bihar egingo dute Atzegi jaiaren 19. edizioa, Bergaran. Hain zuzen ere, ibarreko familien batzarrekin emango diote hasiera egunari –12:00etan egingo dute, Seminarixoko aretoan–. Eta, herrian zehar ibili ostean, bazkaria izango dute Seminarioko patioan –14:00etan–. Dantza saioarekin eta opari banaketarekin bukatuko dute eguna.

**ZAPPRAN GAGOZ**

euskal eskola publikoaren 27. jaia lekeition  
ekainak3

ehice  
euskaleskolapublikoarenjaia.eus

<p>goieskola debagoieneko euskal eskola publikoa</p>	<p>Aramalo S. Martin HE Arrasate Herri Eskola Arrasate BHI Arrasate HHI-EPA Eskoriatza Luis Ezelza HE Aretxabaleta Kurtzebarri HE Aretxabaleta Kurtzebarri BHI Antzuola Herri Eskola</p>	<p>Elgeta Herri Eskola Bergara San Martin Agirre HE Bergara Ipintza BHI Bergara HHI- EPA Oñati Errekalde HE Oñati Zuazola-Larraña BHI Anglozarko Herri Eskola</p>
--	--	---



Nikaraguako protestetan seme-alabak galdu dituzten amen aldeko elkarretaratzea, Seber Altube plazan. ENEKO AZURMENDI

## Protestetan hildakoak gogoan, Amaren Egunean

Daniel Ortega presidentearen aurkako mobilizazioak ugariak izaten ari dira azken hilabetean Nikaraguan, eta jada 100 ikasle inguru hil dira; maiatzaren 30ean Amaren Eguna ospatzen dute herrialde hartan; aurten, ordea, "ez dago ezer ospatzeko"

**Eneko Azurmendi** ARRASATE  
Maiatzaren 30ean Amaren Eguna ospatzen dute Nikaraguan. Aurten, ordea, "ez dago ezer ospatzeko", Activos Por Un Mundo Solidario (AMS) gobernuz kanpoko erakundeko kide Isabel Medinaren esanetan. Dolu eguna izan zuten herrialde osoan, eta "ama guztien minarekin bat

egin" nahi izan zuten Arrasaten ere, AMSk antolatutako ekitaldian. Hildako guztiak izendatu eta bakoitzari kandela bat piztu zioten Seber Altube plazan, Managuan -Nikaraguako hiriburua- egindako martxa jendetsuarekin bat eginez, "ama guztien saminarekin solidarizatuz eta justizia eskatuz".

**Gobernuaren aurkako protestak**  
Apiril hasieran Indio Maiz erre-serba biologikoan sute bat izan zen, 5.000 hektareatik gora erre zituena. Medinak dio hura izan zela protesten abiapuntua: "Ortegak ez zuen laguntzarik eskatu. Gero konturatu ziren sutea probokatua izan zela eta errepide bat egiteko nahia zuela

### "Semea kendu didate, eta ezin izan diot nire azken agurra eskaini"

MARIA ELENA SEVILLA DUELA HILABETE HIL ZITZAION SEMEA

Maria Elena Sevilla nikaraguarrak 19 urteko semea galdu du protestetan. Sei seme-alabetan gazteena zen. **Ez da ohiko Amaren Eguna izan aurtengoa.** Egun gogorra izan da aurtengo maiatzaren 30a. Seme-alabek zoriondu naute, baina orain ez daukat zorionik. Semea kendu didate, eta gogorrena da ezin izan diodala agur esan. Ama guztiak negarrez ari dira han, nire moduan, baina haiek, gutxienez, euren eskuekin lurperatu ahal izan dituzte seme-alabak. Nik nireari ezin



E.A.

izan diot azken agurra eman. Arratoi horrek ez du aurpegirik ematen, ordezkariak bidaltzen ditu azalpenak ematera. Ez du agintea utzi nahi, eta ikasle asko hiltzen ari da askatasun osoz.

### Justizia eskatzen duzu.

Noski. Nahi duen guztia egiten ari da, paramilitarrak nolnahi tirokatzen ari dira kalean. Esan didatenez, nire semea hil zen unean ere lasai zegoen guztia, eta tirokatu egin zuten. Gainera, ez ditu hilketak onartzen. **Babesa jaso duzu hemen?** Bai, eta oso eskertuta nago. Jainkoari indarrak eskatu dizkiot, pasatzen ari naizena ez baita batere erraza. Gogorra da, baina badakit aurrera egin behar dudala. Bi urte daramatzat hemen, borrokan, nire familiarentzat onena lortu guran, eta kolpe oso gogorra izan da hau. Urtebete geratzen zait nire egoera erregularizatu ahal izateko. Orduan, Nikaraguara itzuli eta nire seme-alabekin egon ahal izango naiz.

gobernuak", azaldu du. Handik egun gutxira, gizarte-segurantzaren erreforma iritsi zen. "Pentsiodunek miseria bat ko-bratzen dute, eta erreforma honen pentsioak are gehiago jais-tea ekarri zuen". Hori dela eta, "ikasleak pentsiodunekin solidarizatu, eta kalera irten ziren protestan, giza eskubideak al-darrikatuz".

Ortegak, ordea, "oso gogor" erantzun zuen. "Poliziaz gainera, paramilitarrak eta frankotiratzaileak erabili ditu", azpima-

rratu du Medinak. Horren ondorioz, 100 ikasle inguru hil dira eta beste hainbeste desagertu daude dagoeneko.

Apirilaren 19an, 20an eta 21ean gertatu ziren protestarik gogorrenak eta hildako gehienak egun haietan izan ziren, Medinaren esanetan. Azken egunetan, hala ere, protestek jarraitzen dute. Aipatutako maiatzaren 30eko martxan, adibidez, hildako bat eta 39 zauritu izan zirela jakinarazi du Medinak. "Nikaraguaren samina handia da".

# 17/18

IKASTURTEA

Matrikula epea ZABALIK

UDAKO EUSKARA IKASTAROK

## ONGI ETORRI

euskarara

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak  
[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**  
 Bidebarrieta, 18 Oñati. • Tel.: 943 78 24 96 • [euskaltegia@onati.eus](mailto:euskaltegia@onati.eus)  
**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
 Arimazubi plaza, 2. • Tel.: 943 79 70 77 • [euskaltegi@arrasate.eus](mailto:euskaltegi@arrasate.eus)  
**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
 Barenkalea, 33 (Irizar jauregia) • Tel.: 943 76 44 53 • [euskaltegia@bergara.eus](mailto:euskaltegia@bergara.eus)

## PPNV: "Printzipio" kontuak

**NEREA ZUBIA ETA IGOR TOME**

ONATIKO EH BILDU (MAIATZAREN 24AN BIDLIA)

ONATI

Berriro egin duzue. Hamaikagarrenez. Ez dugu esango gehiegi harritu gaituela, ohituta baike zuten aurpegi bikoitzeko joko politikora. Egun berean, goizean Gasteizen erabakitze eskubidearen alde agertu eta, arratsaldean, 155. artikularen bultzatzaileei eskua eman Madrilen.

Ez da Europako gobernu ustelenaren –datuek diote, ez guk– biziraupena bermatzen duzuen lehen aldia. Hala ere, testuinguru honetan PPren gobernuari babesa ematea bereziki larria da, eta ahalegin handia egiten ari zarete hori justifikatzeko. Normala, gauzak dauden bezala egonda, aurpegia eta sormena behar dira horrelako hautu bat defendatzeko.

Zuen "garaipena" saltzeko, Madrilgo gobernuari bi baldintza jarri zenizkiotela esan zenuten: pentsioen igoera eta 155. artikularen indargabetzea. Duintasuna elkarteko kideek gogor kritikatu zuten lehenengoa (*Goiena*, 2018/05/04). Beraien ustez, soilik bi urteko iraupena izango duen igoera sinboliko horrek ez du pentsioen arazoa konpontzen. Hortik gutxira Gasteizko parlamentuan gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoak izateko bermatzeko mekanismoak ezartzeari uko egin zenioten. Propaganda hutsa.

155. artikulua indargabetzeari buruz, zer esango dizuegu, ba? Zuentzat, "printzipio kontua" omen zen, igaro ezineko marra gorria. Guk dakigula, artikulua horrek indarrean jarraitzen du, eta interbentzio hori mantentzearen alde agertu dira PP, PSOE eta Ciudadanos. Jakin badakizue

Kataluniari gertatu zaiona bihar lasai asko hemen ere gerta dakigukeela. Hala ere, zuek aurrera.

Azpimarratu duzuen beste lorpen bat Madrilgo gobernuak "Euskadirentzat estrategikoak" diren inbertsio batzuk onartu izana da. Ondotxo dakizue horrelako tratuen betetze maila zein izan den orain arte...

Eta bakegintzaren alorrera bagoaz, Rajoyk UPNri presoen egoeraren inguruan EAE eta Nafarroako lehendakariekin ez duela hitz egingo ziurtatu dion aste berean eman diozue eskua.

Benetan kezkarria da PNVren zuzendaritza azken urteetan hartzen ari den bidea.

Kezkatuago dago bere interes alderdikoi eta pribatuei erantzuteko espainiar oligarkiarekin dituen harremanak ondo zaintzeaz, euskal herritarren oinarritzko eskubideak eta etorkizuna bermatzeaz baino. Berriro ere erakutsi duzue zuen lehentasuna zein den, eta zuen hitzak zenbat balio duen.

## Herri txikia ispilu

**LANDER DOMINGUEZ ITURBE**

BURUZAGI BERRIA  
ANTZUOLA

Berdintasuna, parekidetasuna, genero ikuspegia, integrazioa... urteotan bolo-bolo dabilzan hitzak dira hauek. Bada, denon ahotan maiz entzuten ditugu, baina ondoren praktikan jarri behar ditugunean hutsuneak egoten dira beti.

Beti esan ohi da herri txikiak jendea itxiagoa dela, aldaketak onartzea eta praktikan jartzea gehiago kostatzen zaiola. Hori guztia gezurra dela erakusteko, gure herria, Antzuola, hartu dezakegu adibidetzat.

Alde batetik, 2017ko Berdintasunaren Emakunde Saria herriko dugun Virginia Imazek eskuratu du; bejondeizula! Bestetik,

Oinarin dantza taldea hor daukagu duela urte batzuetatik dantzak modu mistoan eginez; lan bikaina! Auzoko egitasmoa ere hor izan dugu 3-4 urtetan, euskara ardatz hartuta herri kohesionatuago bat helburu duela; ondo egina! Eta ezin ahaztu Mairuaren alardea. Non aurretik aipatu ditudan hitz potolo horiek guztiak praktikan jartzen ditugun, era naturalean eta gatazkarik sortu barik. Non begiratua badaukate herri eta hiri handiagok.

Berdintasunaren oinarritutako herri bat lortzeko pausoak ematen jarraitzeko, herri sentimendua sakontzeko eta, batez ere, geurea delako, uztailaren 14an herriko plazan izango naiz, eta zu?

Animatu eta parte hartu Antzuolako alardean!

## Eskerrik asko!

**JUAN MARI SANSIÑENA, ITXASNE LAZKANO, VICKY MATEOS, NURIA SANTAMARIA, AMAIA MENDIZABAL AITZIBER ARRIETA, ARANTXA PALACIO, ZIHORTZA MARZAN ETA BILAITZ MARZAN**

BERGARAKO GLUTENIK GABEKO TALDEAREN IZENEAN  
BERGARA

Bergarako Glutenik Gabeko Taldearen izenean Maiatzaren 25an egindako jaialdira agertu ziren herritar guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu beraien laguntzagatik.

Jaialdi hau ez litzateke posible izango ondorengo laguntzailerik gabe: Eroski, Super Amara, BM, Miner Ardoak, Eki-lur parafarmazia, Nekane argazkilaria, Magora Bakery, Gorka Harategia, Txomin Zubeldia, Solera Eibarresa, Marjo eta Bergarako Udala.

Ez ditugu ahaztu nahi jaialdia aurrera eramaten lagundu zigutenak: Xabier Mujika, Josune Sagastume eta Agustin Larrañaga herriko gozogleak; Ion Unamuno hizlaria; Bergarako Erraldoi Taldea, erraldoiak ekartzearren; eta Aitzol

Mujika eta Mikel Garate, eskainitako kontzertu ederragatik.

Mila esker guztioi eta datorren urtean elkar ikusiko dugulakoan agurtzen gara.

## Etorri batzarrera!

**MIKEL BARGIELA IPARRAGIRRE**  
ANTZUOLAKO EH BILDU-REN IZENEAN  
ANTZUOLA

Antzuolako EH Bildutik ekainaren 14rako antolatutako dugun batzarraren berri ematera gatzokizu.

Batzarra Zurrategin izango da, 18:30ean, eta hiru ardatz izango ditu:

Alde batetik, udal legealdia aurrera doala-eta, udalgintzako taldeak legealdiaren balorazio eta errepaso bat egingo du.

Bestetik, bada denbora bat Antzuolako EH Bilduren herri mailako koordinazio talde bat martxan jarri genuela. Egunerokoari begirik kendu barik, urtero gai konkretu bat lantzea da talde honen jardunaren

ardatza. 2017-2018an Hezkuntza gaia landu dugu. Hurrengo kurtsorako gaia aukeratzea tokatzen zaigu orain, eta batzarra probestuz aukeraketa denon artean egitea nahiko genuke.

Horretaz gain, 2019ko udal eta foru hauteskunderi begira jarri eta haiek bitartean emango ditugun pausoak zuekin denok elkarbanatu nahi genituzke.

Azkenik, begirada pixka bat jaso eta zabalduz, nazio mailako egungo egoera politikoari tartetxo bat eskainiko diogu. Larraitz Ugarte legebiltzarkidea izango dugu gurekin irakurketa honetan laguntzeko, eta bizi dugun panorama politiko zein sozialari buruzko hainbat gako eta puntutaz arituko da.

Gonbidatuta zaudete batzar honetan parte hartzera, guztion parte hartzea eta bultzada garrantzitsua baita beti; herrian dugun kartel batek esaten duen moduan, banderak trapu bat besterik ez baita haizerik ez badabil!



**ARANZADI ikastola**  
Kalitatezko Euskal Heziketa

## T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Balitzuaren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK. aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2018ko ekainaren 13an egingo da, **arratsaldeko seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, sei eta erdietan bigarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**. Hona hemen:

### GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen bostena irakurtzea
3. 2017/18 ikasturteko memoria
4. 2018/19 ikasturteko egitasmoa
5. 2017 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
6. Soberakinen banaketa
7. 2018 urteko aldizkako kuoten onarpena
8. Zaintza batzordeko kide berriak hautatzea
9. Galde-erantzunak

Bergaran, 2018ko ekainaren 1ean

Lehendakaria  
Olatz Okaso Garitano



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

## 'Hamaika' lagun eta zu!

Badator Euskaraldia, eta horri begira pilak jartzeko garaia dugu.

Aspaldiko mezuarekin gatoz oraingoan ere, Korrikari askotan azaldu den mezu eta eskari guztiekin bat datorrena, hain zuzen ere, gure hizkuntza erabiltzeko beharra.

Mila aldiz esan dugu, baina, erabiltzeko aukera benetakoa izateko, hiru hanka indartsu behar direla: ezagutza, espazioak-jarrera eta sustapena-baliabideak.

Euskaraldian hainbat aukera zabalduko dugu, erronkari benetan heltzen badiogu.

*Ahobizi* eta *Belarriprest*-ak agerian izango gara; hau da, beti euskaraz egiteko konpromisoa nork daukan ikusiko dugu, eta euskara jasotzeko prestutasuna eta gogoia dutenak zeintzuk diren ere bai.

Hortaz, aipatutako hiru hanka horietatik argi landuko dira, alde batetik, euskaraz norekin egin dezakegun –espazioak–, eta, bestetik, erabiltzeko jarrera dutenak begien bistan izango ditugu, elkar identifikatu ahal izango dugu eta bisualizazio handia lor dezakegu.

### ELKAR IDENTIFIKATU AHAL IZANGO DUGU ETA BISUALIZAZIO HANDIA LOR DEZAKEGU

Argi dago orain arte baino gehiagotan erabil dezakegula euskara, ikusgarritasun horrekin ohitura aldaketak bultzatu ahal direla, jarrera positiboak ikusiko ditugula eta bultzada izango dela.

Badakigu, horrekin batera, baina, euskara ulertzen ez dutenak ere erakarri behar ditugula, ikasteko prozesuan sartu behar direla, euskara ezagutzen ez dutenek ez dutelako aukerarik izango; are gehiago, besteei aukera kentzen dietela, aukerak murrizten dituztela.

Horiei begirako kanpaina erraldoia eta doan ikasteko baliabideak ere orain behar dira.


*Hamaika* lagun hasiko gara Euskaraldian euskara gehiagotan erabiltzen, aukerak biderkatzen eta giro positiboa zabaltzen.

Denon beharra dago, batzuek eman dute dagoeneko bere hitza eta laster izango dugu horren berri.

Asko gara prozesu horretan sartuko garenak; hain zuzen ere, *hamaika* lagun eta zu!

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Urtebetetze ohiturak

MIKELE LANDA

HTTPS://LABUR.EUS/X7YD7  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Jaiotzen garenetik urtero egiten dugun ospakizun horrek aspaldian ditu sustraia. Ohitura paganoa omen, magia eta suaren garaikoa. Zorion berbek, opariek eta bereziki kandekek funtzio zehatza zuten: deabruak eta mamu gaiztoak uxatzea etortzeke zegoen urteari aurre egin ahal izateko. Harrigarria izan daitekeen arren, egun ia egutegi orotan kristoren jaioteguna ospatzeko orogarria aurki dezakegulako; laugarren mendera arte erlijio

kristauak urtebetetze festak ukatzen zituen jatorri paganoa izanagatik. [...]

Ohiturak ohitura, lurralde batetik bestera askotarikoak dira urteak ospatzeko moduak. Txinan fideo luzeak, ahalik eta denbora laburrenean, kosk egin gabe xurruapatu behar ditu *urtebetetzeaileak*. Mexikon, berton ere egiten hasi garen *piñaten* jokoa dute tradizio, jada hiru mende luzez dirauena. [...] Paraguain jaira gonbidatutako guztiek zapladaz berotzen diote bizkarraldea. Guk belarriekin egin ohi dugun antzera.

Garai eta belaunaldi berriekin batera ospakizunon dinamikak eraldatzen ari dira. *Milenial* eta *Z* generazioen

eskutik hedatu da jendartean probak burutzearena, telebista programa batean bageunde legez, aurkezleen txarteltxo eta guzti, kaltegabeko umiliazio helburu. Eta zoriontzeko bideak zer esanik ez, Facebook txibatoaren ondorioz urterik urte ugaldutako bano ez dira egiten mezuak. Kantitatea inpersonaltasunarekin batera esponenzialki hasiz. Baina, whatsapp-a sutan jartzeaz eta ohiturak konpliteaz gain, egun hau berezi zerk egiten duen pentsatzen jarrita: zer da urtebetetze bat norbere buruarengan gehiago pentsatu ahal izateko (eta egitean txarto ez sentitzeko) aitzakia edo baimena ez bada?

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



## BERBAGAI

# "Herri-auzo txikientzat ezinbestekoa da eskola"

IÑAKI ARTOLA ANGIOZARKO ESKOLAKO ZUZENDARIA

**Eneko Azkarate** ANGIOZAR

Eskola Txikien Jaia ospatuko dute ekainaren 10ean Oikian (Zumaia). Debagoiengan, Angiozarren dago eskola txiki bakarra. Azkeneko urteotan nabarmen igo da ikasle kopurua; datorren urterako 35 daude izena emanda.

**Eskola Txikien Jaia, beste behin; oraingoa, 31.a eta Oikian...**

Eskola txikiok ere hor gaudela azaltzeko eguna da, batetik, eta, bestetik, isolatu samar gauden eskolen arteko topaketa egiteko aukera ere bada; gurasoak, irakasleak eta umeak eguneroko txikitasunetik zerbait handiagoa sentitzeko aukera, mugimendu berezi baten parte garelako sentitzeko aukera.

**Herri txikientzat "garrantzitsuak eta estrategikoak" direla nabarmendu nahi duzue aurten.**

Herri-auzo txiki hauentzat garrantzi handikoa da eskola. Hasteko, ume txikiak ez dira joan-etorri deserosoetan hasten. Bertan, herrian,



Iñaki Artola, Angiozarko eskolaren ondoan. CEP ANGIOZAR

sustraitzen dira eta lagunak egiten dituzte. Eskola txikian ematen dituzte lehen pausoak eta norbanakoari oso begira dagoen heziketa jasotzeko aukera eskaintzen zaie. Hain garrantzizkoak diren lehen

urte horiek inguru abegikor eta lasaian pasatzen dituzte ume hauek eta beraien izaera osatzen dute.

**Zenbat ikasle dira Angiozarren?** 32 ikasle izan ditugu, hiru gela eta hiru tutore. Datorren

ikasurterako 35 izango ditugu eskolan. Azken urte hauetako zenbakirik handienak. Azken 30 urte hauetan 8-15 tartean ibili da Angiozarko eskola, baina duela 8-10 urte hasi zen igoera.

**Adin askotarikoak elkarrekin?**

Hori da eskola txikion beste ezaugarri bat: adin aniztasuna. Gela berean adin askotarikoak elkarrekin.

**Zein da erronka nagusia?**

Erronka asko ditugu eta arlo askotakoak. Proiektuka egiten dugu lan, baina metodologian asko dugu hobetzeko eta hor ditugu aurrera begira hainbat erronka. Espazio fisikoan dugu hurrengo jomuga; eskola txiki geratu zaigu eta ingurua ez dago jolas hezitzailean jarduteko. Horregatik, dagoeneko hasiak ditugu harremanak Udalarekin eta Hezkuntza Sailarekin, epe ertainean eskolaren eraberritze integralari ekiteko. Erabat ezinbestekoa da gaur egungo hezkuntzak dituen baldintzetan modu duinean aritzeko.

**Eskola txikiak elkarrekin diharduzue?**

Bai; funtsezkoa da, gainera. Eskola txikien egoera berezia da eta bertan sortzen zaizkigun arazoak, kezak eta irtenbideak ere propioak dira.

## HAU BE BADOGU!

**Altuna, txapeldun sare sozialetan ere**



Pilotari gipuzkoarrak irabazi zuen buruz buruko txapela Aimar Olaizolaren aurka, eta #AupaAltuna euskarazko traoliek erabiliena izan zen aste hasieran.

@itzeaitzea: "Altuna txapeldun, eta noski, #AupaAltuna, ikuskizuna gaurkoa. Baina ezin final ondorengo txioan #AupaAimar idatzi gabe geratu: eleganzia bere horretan".

@amezketano: "Erabiltzaile inoiz baino harroago #AupaAltuna".

**Zentzura-mozioaz sare sozialetan**

Madrilgo Kongresuan Mariano Rajoy kargutik kentzeko zentsura-mozioa aurkeztu du PSOEk, eta gaia sare sozialetan ere islatu da.

@ideiazabaldu: "Ematen du Alderdi Popularrean alarma guztiek egin dutela salto, eta zentsura mozioa indarra hartzen ari da azken orduetan. Palomitak hartu beharko ditugu ze gauzak oso azkar ari dira mugitzen estatu espainolean, eta norabide guztietan presio handiak egongo dira".

**#Evaristo abeslaria hizpide izan da**

Oñatin bizi den musikaria *trending topic* izan da asteon, Estatu mailan ere bai. Horren harira, hau idatzi zuen Igor Elortza bertsolariak:

@ielortza: "Evaristorenak akordarazi dit Salve kaseta eta bere azala, sua hartutako gurutzearekin, arrebaren gelako jogailuan. Eta galtzen-galtzen joan den askatasun giro edo nahi hura, ume ginela hezi gintuena; OTANen kontra irteten ginenean amagaz etab. Eta irribarre bat atera zait".

## ITURRI ONETIK

## Shot!-i laguntzeko ikuskizuna

Arrasateko Kooltur Ekintzak ekainaren 14an amaituko du aurtengo denboraldia, zortzigarrena, ikuskizun eta helburu berezi batekin: Ander Lipusen Artedrama Arte Eszenikoen Plataformak *Hozkailua* ikuskizuna eskainiko du Arrasateko gaztetxean. Sarreraren bidez jasotako diru guztia berriki suak erabat erre duen Shot! grabazio estudioari laguntzeko izango da. Sarrerak 5 eurotan salduko dira. *Hozkailua* Unai Iturriagak idatzitako lana da; Patricia Urrutia eta Ander Lipus dira aktoreak.

## ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2010-05-28

## Patxi Uribarrenek sarrera hitzaldia Euskaltzaindian

Patxi Uribarrenek Henrike Knörr zenaren tokia hartu zuen Euskaltzaindian, 2010eko maiatzaren 28an, Aramaion, jaioterrian. Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, beste hainbat euskaltzain eta herritar batu ziren udaletxean, erakundeetako ordezkariarekin batera, Asier Agirre alkatea buru zela. 1971n Aramaion euskaltzain urgazle egin zutela gogoratu zuen Uribarrenek. "Euskarak bizi nahi badu, jendeak erabili behar du", esan zuen.



Etxez etxeko langileak, martitzenean, udaletxeko arkupean egindako agerraldian. MIREIA BIKUÑA

## Etxez etxeko langileek grebara joko dute

Clece Zaintzen enpresarekin negoziazio blokeatuta dago, eta egoeraren "larritasuna" ikusita hartu dute erabakia. Kontratua uztaillaren 31an agortuko da, eta, akordiorik ezean, gaur egun duten hitzarmen berarekin egin beharko du Udalak esleipen berria

### Xabi Gorostidi ARRASATE

Udalak eskaintzen duen etxez etxeko laguntza egoera kritikoa dago une honetan. Kozinatze edo norberaren garbitasunerako laguntza behar duten 66 arrasatearrek jasotzen dute zerbitzua gaur egun, eta ez dago batere garbi abuztuaren 1etik aurrera zerbitzu hori nork eta zein baldintzatan emango duen.

### Langileen eskakizunak

Zerbitzu hori azpikontratatu eskaintzen du Udalak, eta langileek UTE Clece Zaintzen enpresarentzat egiten dute lan. Indarrean duten lan-hitzarmena estatala da, eta etxez etxeko langileek hitzarmen propioa eskatzen dute, Aretxabaletako, Oñatiko eta Bergarako langileek daukaten moduan. Hitzarmen horretan, honako eskakizun hauek egiten dituzte: urteko lanaldi murriztua 1.755 ordutik 1.592 ordura pasatzea, gaixotasunengatik zigorririk ez jasotzea, ordu publikoak eta pribatuak

berdin ordaintzea eta ordu horien banaketa ekitatiboa izatea, hain zuzen ere.

"Garrantzitsua da egiten duguna, bai guretzat eta baita gure aitona-amonendako. Baina enpresak eta Udalak ez dute ikusten gure lanaren prekaritatea zenbatekoa den. Ez dute ikusten gure lanaren kalitatea bermatzeko, gure lan baldintzek kalitatezkoak izan behar dutela", azaldu du Karmele Loitik, etxez etxeko langile batek.

### Epez kanpo

Langileek agerraldia egin zuten martitzenean greba mugagabea iragartzeko, eta Udal Gobernuak prentsaurrekoa egin zuen asteazken goizean azalpenak emateko.

**LANGILEEN LANORDU BAKOITZA %40 GEHIAGO ORDAINDU NAHI DU UDALAK ESLEIPEN BERRIAN**

teko. Clece enpresarekin indarrean dagoen kontratua uztaillaren 31n agortuko da; beraz, zerbitzu berria esleitzeko pleguek jada argitaratuta egon beharko lukete. Pleguan agertuko diren lan baldintzek azken kontratuko hitzarmenaren berdina izan behar dute, eta, langileek eta Clece ez badute hitzarmen propioa lortzen, hitzarmen estatala aplikatuko da esleipen berrian.

"Guri gustatuko litzaiguke esleipena berria lan-hitzarmen hobe batekin egin. Baina ezin dugu gehiago itxaron, jada epez kanpo gaudelako. Abuztuaren 1etik aurrera zerbitzu berri bat eman behar dugu, eta legez behartuta gaude plegua ateratzera", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Plegu berrian, langileen baldintzak hobetzeko, Udalak %40 gehiago ordainduko luke langileen ordu bakoitzeko, eta, astean bost egunen orde, astean zazpi egunez lan egiteko aukera ere emango luke.

## Harremanen Elkartasun Eguna bihar, hogeigarren aldiz

Txokolate-jana eta musika ez dira faltako, eta aurten telefono mugikor zaharren bilketa egingo dute

### X.G. ARRASATE

Harreman GKEk urteroko festa egingo du bihar, Serse, AMS, Mundukide, Etorkinen Pastoral, Mugarik Gabeko Medikak eta Alboan elkarteekin elkarlanean.

Mumbaiko Ankur umezurtzetxean dauden 200 neskatilentzat dirua batzeko baliatuko dute batutakoa eta horretarako ezinbestekoa izango da tonbolan batutako dirua. Ibai-arte ko mertzioen produktuak zozketatuko dituzte, eta sari nagusia Eroski Bidaien eskapatatxo bat

izango da. Urtetik urtera babesleek eman izan dieten laguntza eskertu nahi dute antolatzaileek.

Seber Altube izango da jaiaren erdigune. 11:00etan, puzgarriak jarriko dituzte, eta jarraian, trikitalarien musika entzun ahal izango da, 11:30ean. 13:00etan, Arrasate Musikalen Banda Gaztearen kontzertua hasiko da, eta 17:30ean, aldiz, *Dantza Festa* disko festa. 19:00etan, Hans eta Pelloren emanaldia hasiko da, eta 20:30ean egingo dute Eroski Bidaien sariaren zozketa.

## Nao Santiagoko jolas parkea berri egingo du Udal Gobernuak

Sumalim enpresak egingo ditu berritze lanak 82.279,15 euroren truke. Parkea ez da estalia izango. Aukera aztertu egin zuten, baina parke alboan dauden etxeen gertutasuna dela eta, ezin dezakete estalperik jarri. Beraz, Musakolako kale horretan dauden bi jolas parkeetako ziburuak eta lurzorua berrituko dituzte. "Lau joko berri jarriko dira ber-

tan: matxinsaltoa, Mega Swing deiturikoa, Family jarlekua eta malgukia", azaldu du Udal Gobernuak.

Lanak ekainean hasia aurreikusen dute, eta, urtea amaitu baino lehen, San Andres auzoko Kurtzetxiki jolas-parkea ere berritzea aurreikusen du Udal Gobernuak.

Bestalde, Baleike alderdiak oharra kaleratu du, Udal Gobernuak auzoetako parkeak lehenesten ez dituela esanez. Oharra *Goiena.eus*-en dago irakurgai.

## GORA ETA BEHERA



ARIZMENDI GAZTELUONDO GUNEA

## Gazteluondo gunean "triskantza"

Ikasleek landutako ortuko loreontziak apurtu, su-itxalgailuak hustu, aulkiak apurtu eta paretetan su markak utzi zituzten asteburuan ezezagun batzuek. Irakasleek diote ez dela lehen aldia.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# Hasi dute Garagardo Azokaren 20. edizioa

Atzo zabaldu zuten Garagardo Azoka. Eta zapatuta bitartean egongo da horretaz gozatzeko aukera. Gainera, egun "berezia" izango da biharkoa: herri bazkaria eta Nazioarteko Errugbi Txapelketa antolatu ditu Arrasate Rugby Taldeak

**Iker Oñate** ARRASATE

Zabalik dago jada Arrasate Rugby Taldeak antolatzen duen Garagardo Azoka. Eta aurten goa ez da edozelako hitzordua izango: ekinbidearen 20. urteurrena izaki, "sorpresak" iragarri dituzte bultzatzaileek –sardexka eta labana berriak erosi dituzte, adibidez–. Hain zuzen ere, errugbi taldekoek atzo zerbitzatu zituzten lehen edariak eta jakiak herriko plazan jarria duten karpan. Eta hala jardungo dute zapatuta bitartean. Ohi moduan, 18:30etik 01:30era artean izango dute Garagardo Azoka zabalik.

Bestetik, "egun berezia" izango da biharkoa. Besteak beste, herri bazkaria egingo dute –paella, oilaskoa eta postrea eskainiko dute–, eta eskuragarri daude horretan esku hartzeko txartelak. Zehatz esanda, Basati, Taupa, Itzala, Kajoi eta Okoretegi tabernetan jarri dituzte salgai, 20 euroren truke. Gainera, egunean bertan ere izango da txartela eskuratzeko aukera.

Eta, bestetik, XX. Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketa egingo dute bihar. Arratsaldean jokatuko dituzte partidua, Mojategin,



Arrasateko Garagardo Azokaren karpan, zerbeza zerbitzatzen. GOIENA

## HERRI BAZKARIA ETA NAZIOARTEKO ERRUGBI TXAPELKETA IZANGO DIRA BIHAR, ZAPATUA

16:00etan hasita: herriko errugbi taldea, Elorriokoa eta Durangokoa izango dira bertan, nor baino nor gehiago. Eta Garagardo Azokaren karpan izango da txapelketaren zantzurik, gainera:

bertan egingo dute sari banaketa ekitaldia, gauean.

### Atzera begirakoa akorduan

Esan bezala, aurten, 20 urte egin ditu Garagardo Azokaren ekinbideak. Hori bai, errugbi taldekoek akorduan dituzte hastapenak. "Orain, oilaskoak, saltxitxak edota txerri ukondoa dastatzeko aukera egoten da karpan, baina lehenengo edizioan sardina erreka saldu genituen", azaldu du klubeko kide eta ekimenaren aitzindari Joseba Maidaganek.

## Egindakoarekin, "pozik"

Arrasate Rugby Taldeko kideak "pozik" dira denboraldiak eman duenarekin. "Oro har, esan daiteke urte emankorra izan dela", aitortu du Ane Agirrek, taldeko presidentea.

Besteak beste, aurreko urteko igoeraren ostean, aurtengoan esperientzia berria dastatu beharra zuen senior mailako taldeak. Eta "ondo baino hobeto" eutsi dio mailari:

"Txapelketa berria zen guretzat. Ez genituen taldeak ezagutzen. Eta ez genekien zein izan zitekeen euren maila. Beraz, urduri hasi genuen denboraldia. Dena den, denborak erakutsi digu kapaz garela maila honetan jarduteko". Hain zuzen ere, Kanpazarkoek Lehen Maila Nazionalako sailkapenaren erdiko postuetan bukatu dute txapelketa. Eta, aurrera begira,

bide horretan segitzeko asmoz dihardute. "Eurekin hitz egin ostean, ikusi dugu horretarako gogoz direla jokalaria", dio.

Bestetik, Arrasate Rugby Taldekoak "gustura" dira kirolak herrian duen harrerarekin: "Adin askotariko neska-mutikoak ditugu errugbi taldean. Donostiako Kontxan jokatu berri dugun txapelketan, esaterako, 10, 12 eta 14 urte azpikoetan genuen ordezkariak. Pozik egoteko modukoa da hori".

## Egun osoan izango da zertaz gozatu, bihar, 'Ttak!' egunean

Askotariko ekintzak antolatu dituzte AEDko gazte taldekoek Ttak! egunerako. 12:00etan hasiko dute egitaraua, triki-poteoarekin –Arbolapetan hasita–. Eta bazkaria egingo dute 14:30ean, gaztetxean. Haritz Olaetaren emanaldia eta mikro irekirako tartea izango da bertan. Eta, karro poteoaren ostean, konzertuekin bukatuko dute eguna.

## Bigarren eskuko arropen azoka egingo dute gazte txokokoek

Erguingo gazte txokoak antolatuta, SoliFest Azoka Solidarioa egingo dute gaur, 17:30etik 20:00etara bitartean, Itxaropena plazan. "Egoera onean egon arren, jada erabiltzen ez ditugun arropak bildu, eta salgai jartzea erabaki dugu", diote gazte txokokoek. Gainera, musika, ikuskizuna eta bestelako animaziorako tartea ere izango da bertan.

## Askotariko ekintzak antolatu dituzte Herri Eskolaren jairako

Herriko Eskolakoek festa eguna dute gaurkoa. Hala, 14:15ean ekingo diote ekintza sortari, herri kirolekin eta jolasekin. Eta, hori bukatuta, ongiatorria eta ogitartekoan banaketa izango dute Biterin –16:30ean–. Bestetik, tailer bereziak, *Argazkilogun* gunea, Txatxilipurdiren emanaldia, Arkada Socialekoen sarpresa... izango dituzte ostean.

## OHARRAK

### Danborrada: arropa

Datozen egunetan jaso behar dira arropak, SUDCen lokalean, 17:00etatik 18:30era.

### Pentsiodunak

Ekainaren 4an, 12:00etan, herriko plazan elkarretaratzea.

### EH Bilduren eskaera

Udako kultur ekitaldiak kaletik auzoetara eroatea.

IRTEERA TALDEAN  
ARRASATEtik / BERGARAtik

# ARGENTINA & BRASIL

2018ko azaroaren 7tik 23ra




**Ibilbidea: Sao Paulo – Iguazu – Salta – Bariloche  
Calafate – Puerto Madryn – Buenos Aires**

Pentsio erdia eta laguntzailea irteeratik bertatik

**Argentinaren batek egindako aurkezpena:  
KAJOI TABERNAN (Herriko Plaza, Arrasate),  
ekainaren 13an, 18:30ean**

(Etortzekoa bazara, abisatu mesedez : 943 79 29 88 – edukiera mugatua)



**Halcon** bidaiak

Informazio gehiago:  
Erdika kafea 16  
943 79 29 88

\* Kontsultatu Debagoieneko beste irteera batzuk      Halconq99@halcon-viajes.es



Garagartzako lagunak, elkartearen inaugurazio egunean; 1968ko ekainaren 2an, hain zuzen. LEZE-TXIKI ELKARTEA

#### Xabi Gorostidi ARRASATE

Duela 50 urte ireki zituen atea Garagartzako Leze-txiki elkarte gastronomikoak. Telebistarik, mugikorrik eta Internetik gabeko garaiak ziren, gaur egungo gazteek zuri-beltzean irudikatzen dituztenak. Baina modernitate horien hutsunea primeran betetzen zuten orduan lagun-giroarekin eta tertulierekin, eta, horretarako, tabernak ziren bilgunerik aproposenak.

Elkarteak sortu baino lehen, hiru taberna izan zituen auzoko: Otxoana, Perkiñena –gaur egun Belun dagoen inguruan– eta Murrixena. "Zapatuetan eta domeketan izaten zen giro handien auzoko tabernetan. Denetarik egiten genuen: jan, edan, karte-tan egin... baita borrokan eta kantuan ere", azaldu du elkartearen sortzaileetako batek.

Murrixena ixterakoan, Otxoana zen auzoko erdigunean geratzen zen taberna bakarra, baina jabeek ixtea erabaki zuten 1967an, eta auzoko erdigunea umezurtz geratu zen tabernei zegokienez. Egoera horren aurrean elkarte gastronomiko bat eratzearen ideia lantzen hasi ziren.

# 50 urte, "auzotik, auzoarendako"

Filosofia horrekin zabaldu zituen atea Garagartzako auzoko Leze-txiki elkarteak, 1968ko ekainaren 2an. Auzoa tabernarik gabe geratu izanak eragin zuen elkartearen sortzeko beharra, baina aurretik kolektibitate tradizio sakona zegoen Garagartzan

#### Kofradien tradizioa

Auzoaren alde lan egitea egokitzuten zitzaien, baina aurretik bazeukaten horretarako ohitura nahiko errotuta. Kofradia modura funtzionatzen zuten hainbat elkarte zeuden Garagartzan; *Uraren junta*, adibidez. Auzoaren

**350.000 PEZETAREN TRUKE EROSI ZUTEN MARRAKUA ETXEA, 2.500 PEZETAKO EKARPENAK EGINEZ**

ur-hornidura kudeatzen zuen elkarteak zen, Oviedon zegoen Espainiako Iparraldeko Ur Konfederazioan legalki erregistratua zegoena. Edozelan ere, uraz gain, ganaduak lantzeko eta elektrizitatearen hornikuntzarako antzerako talde lanak ere egiten zituzten.

#### Auzotarrak eta ehiztariak

Beraz, lanerako eskarmentuarekin eta gogoarekin, elkartearen helburu nagusiak definitzen hasi ziren 1967an, betiere, "auzotik eta auzoarentzat" lan egi-

teko filosofiarekin. Behar kulturalak, sozialak eta ludikoak asetzeko zen elkartearen zeregin nagusia. Horrez gain, auzotarrak elkartzeko gune izan behar zuten, eta, garaiko dokumentuen arabera, baita ehiztariak elkartzeko gune ere.

**GAUR EGUN, 107 BAZKIDE DAUDE, ETA PLAZA BAKARRA DUTE LIBRE BAZKIDE BERRIENDAKO**

#### 350.000 pezetaren truke

Elkarteak non kokatuko zen erabakitzea zen hurrengo pausoa, eta Marrakua etxea erostearen alde egin zuten. Pedro Ezkurra zen erakinaren jabea eta momentu hartan familia bat zegoen bertan bizitzen. 350.000 pezetatan itxi zuten salerosketa tratua, eta, hori ordaintzeko, bazkide izango zirenek 2.500 pezeta jar-tzea adostu zuten.

#### Izena, aho batez

Elkarte berriari izena jartzeko orduan ez zen apenas eztabaidarik izan. "Garai hartan, On Joxe Maria Barandiaran eta bere lantaldea inguru honetan lanean ari ziren, indusketa arkeologikoak egiten. Bertan aurkitutako aztarnek nazioarteko ospea eman zieten Garagartzako kobei, eta, beraz, ez zen zaila izan Leze-txiki izena aukeratzea", azaldu du sortzaileetako batek.

Auzotarrentzat izen zaharra eta ezaguna izan arren, baimena eskatu zioten On Joxe Barandiarani. Baimena emateaz gain, behin baino gehiagotan bisitatu zuen elkarteak Barandiaranek; izan ere, orduko auzoko apaiza bere iloba zen.

#### Txerri Hanka

Realzaleen talde hori elkartearen berotasunetik sortu zen, 1995ean, eta aipagarria da auzoaren alde egin izan duten lana; Santa Agedako eta Gabonetako kantaldiak antolatzen, mendi irteerak proposatzen eta auzoko dantza eta futbol taldeak laguntzen, besteak beste.

#### Gaur egungo egoera

Elkarteak osasuntsu dago gaur egun eta bazkide berrientzako plaza bakarra dauka libre.

"Momentu honetan, 107 bazkide gara: 99, kuota ordaintzen; eta zortzi, beterano. Gehienez, 100 bazkide egon daitezke kuota ordaintzen; beraz, egoera osasuntsuan gaudela esan daiteke. Azken hiru urteetan hamabost bazkide berri egin ditugu", azaldu du elkartearen presidentek.

#### Urteurren jaia, bihar

11:30ean, hildako bazkideen aldeko meza egingo dute. Jarraian, haur jolasak eta luntxa egingo dituzte, plazan, eta 13:00etan, Onintza Enbeita eta Aitor Sarriegi bertsoetan hasiko dira. Amaitzeko, nola ez, bazkari ederra egingo dute.

## 30 urterekin, berriztatze sakona

Mende Erdiko ibilbidean, inflexio puntu bat izan zuen Leze-txiki 1988an berritu zutenean.

1986an eraikina berriztatzea proposatu zuten, eta, aurkako iritziak egon arren, bazkide gehienek begi onez ikusi zuten. Gaur egun, eraikinak hiru solairu ditu, baina ordura arte bi solairu zituen: behekoa, sukalde eta barrarekin, eta Erdikoa, biltegi gisa. "Biltegi solairua oso egoera txarrean zegoen. Edozein momentutan jausteko bezala. Likore botilak solairuko izkina batean jartzen genituen, erdian jarriz gero zorua behera etorriko zen beldurra geneukalako", azaldu du elkarteko sortzaileetako batek.

### Auzolana, orduz ordu

Berritzea merkatzeko modurik onena auzolana zen. "Teilatua eraistea izan ezik, beste lan guztiak guk egin genituen. Teilatua profesionalak egin beharreko zerbait zen" azaldu du elkarteko presidentek.



1988ko martxoaren 19an berrinauguratu zuteneko familia-argazkia. LEZE-TXIKI

Horrelakoetan, ohikoa izaten da bazkide batzuek besteek baino lan gehiago egitea. Horrek euren arteko tentsiorik ez sortzeko, ekarpenak ahalik eta orekatuenak izateko sistema bat adostu zuten.

Oso sinplea zen: egindako auzolan ordu bakoitzeko 1.200 pezeta aitortzen zitzaizkion bazkideari, bere ekarpenetik deskontatzeko. 12 bazkidek aurka botatu arren, aldeko 27 boto izan zituen neurriak.

### Patxixenan, behin-behinean

Arazo batzuegatik, 1987ko apirilean hasi zuten berriztatzea, eta, lanak egin bitartean, Patxixenan kokatu zuten behin-behineko elkarte. "Bertara eraman genituen orduko mostradorea eta sukaldea, eta gaur egun ere bertan jarraitzen dute", azaldu du elkarteko presidentek.

Behin obrak amaituta, 1988ko martxoaren 19an berrinauguratu zuten Leze-txiki berritua.



Udalaitz musika taldeko kideak, elkartearen kanpoaldean. LEZE-TXIKI ELKARTEA

## Emakumeen rola, gutxika, hobera

Emakumeen eta Leze-txiki elkartearen arteko harremana hobetzen joan da urteek aurrera egin ahala.

Sorreran, emakumeek ordutegi mugatua zuten elkartera sartzeko, eta beti bazkide batek lagunduta egon behar zuten. 1970eko akta batean erreferentzia egin zioten emakumeek gizartean zuten rolari. Hainbat alorretan parte hartze handiagoa izan behar zutela esaten zen bertan, eta elkartera sartzeko ordutegia luzatu egin zieten, 00:00ak arte, eta auzoko jaietan 02:30ak arte. Orduz kanpo elkartean harrapatuz gero 25 pezetako isuna ordaindu behar zuten.

1998an eta 1999an, emakumeak bazkide izateko aukera jarri zuten mahai gainean, eta lehen bazkidea 2003. urtean sartu zen. Gaur egun, hamabi emakume dira Leze-txiki bazkide.

**Oraindik  
garaiz zaude**

**LIRAIN**  
ESTETIKA ZENTROA

Ex gara osasun zentroa.  
RPS: 48/14

943 79 52 17

Bizantze Ferrer, 1 |  
20500 ARRASATE

**PRESTA ZAITEZ UDA HONETARAKO**

Lirainen garbi dugu tratamendu batek emaitza ona izateko ezinbestekoa dela diagnostiko zuzena egitea. Diagnostikoa egin ondoren, Lirainen teknologiarik aurreratuena eskaintzen dizugu salo gutxitan emaitza hoberenak lortzeko:

Findu, moldatu eta sendotu zure silueta

**VelaSmooth**

**VENUSFREEZE**

**KRIOLIPOLISIA**

**TALKA-UHINAK**

**%10eko  
deskontua**  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

# "Datorren urtera begira badakigu zein arlo landu"

**JORGE DAVILA** MONDRAKO OHOREZKO ERREGIONAL MAILAKO ENTRENATZAILEA Saillapenean, zazpigarren postuan, 59 punturekin geratuta, denboraldi honetan egindako lana ontzat jo du Jorge Davilak, Mondrako entrenatzaileak

**Imanol Beloki** ARRASATE

Arrasateko Ohorezko Erregional mailako futbol taldeak pasa den asteburuan amaitu zuen denboraldia. 34 jardunaldi jokatu ostean, zazpigarren postuan amaitu du Mondrak, 59 punturekin, eta Jorge Davila entrenatzaileak denboraldiaren balorazio positiboa egin du.

**Balorazioa positiboa egiten duzue?**

Bai, urtea positibotzat hartzen dugu. Saillapenean ahalik eta goren egoten saiatu gara... baina taldeak oso ondo egin du lan, eta pozik egoteko moduan gaude.

**Goi-goian ez, baina beheko postuetan sufrizten ere ez.**

Entrenatzaile berriarekin hasi ginen, taldea ezagutu, jokatzeko moduan aldaketak izan dira... eta hori guztiori lotu arte, kosta egin zaigu pixka bat. Hasiera ez zen hain ona izan, baina, gero, bolada ona egon da; izan ere, saillapeneko laugarren eta zazpigarren postu artean mantendu gara denboraldi osoan zehar.

**Denboraldi gogorra izan da, eta zailak partidu guztiak, ezta?**

Urte zaila izan da; izan ere, partidu guztietan izan dugu aurkari bat, argudioekin irabazteko. Maila handia bermatu behar izan dugu zelaian puntuak jasotzeko, eta hori partidu guztietan gertatu da, igarri egin da bukaerara arte.

**Saillapeneko lehenengo zapi taldeez gain, hortik behera puntutan diferentzia nabarmenagoa izan da, baina partiduak irabazi egin behar, ezta?**

Bai, hala da, baina, esaterako, saillapenean gure ostekoa Amaiak Bat taldea izan da, eta partidu oso gogorak izan ditugu euren aurka. Pasaia liderretik gurera 13 puntu daude, eta gure hurrengora –Amaiak Bat– hamabi puntu daude; hor salto bat dago, baina zelaian ez da nabaritu halako diferentziarik.



Jorge Davila, irratian, elkarrizketa egiteko prest. MIREIA BIKUÑA

## "LAUGARREN ETA ZAZPIGARREN POSTU ARTEAN MANTENDU GARA DENBORALDI OSOAN ZEHAR"

**Txapelketa honetan urte osoko lana dago; gorabehera askokoa da?**

Normalean, bakoitza bere lekuan egoten da amaieran. Pasaia, Ordizia edo Tolosa igo behar zela argi zegoen, eta azken unerarte ez da erabaki.

**Mondrari zerbait falta zaio goiko lehia horretan egoteko?**

Talde lehiakorra izan gara. Partidu oso onak egin ditugu talde moduan, baina golak sartzeko erraztasunik ez dugu izan. Hala, datorren urtera begira, badakigu zein arlo landu eta zer indartu behar dugun. Taldea defentsiboki sendo egon da; 52 gol aldeko eta 32 kontra jaso ditugu.

**Oporrak hartu aurretik lanean jarraituko duzue?**

Urtero klubaren bazkaria izaten dugu, eta ordura arte entrenatzen jarraituko dugu. Jende ezberdina probatzeko, modu alaian agur

esateko, hankak eta burua soltatzeko pixka bat...

**Hurrengo urtera begira aldaketa asko izango dira taldean?**

Baja batzuk baditugu; beterano batzuk joan egin zaizkigu, garrantzitsuak direnak, baina jende berria ere badugu. Lesio larritik bueltan datozenak ere izango dira...

**Denboraldi berria hasi aurretik, gai izango zara deskonektatzeko?**

Hori, emazteari galdetu behar... Guztiz deskonektatzea zaila da, baina astetxo bat hartu beharko dugu.



MONDRA

## Bost jokalarik agur esan dute

Imanol Rodriguezek, Aitor Etxeberriak, Mikel Barberok, Ioritz Aginagaldek eta Markel Crespok Mondra utziko dute, eta omenalditxo egin zieten Vasconiaren aurka jokaturako azken partiduan. Argazkian, horietako hiru ageri dira zuzendaritzakoen aitortza jasotzen –Imanol Rodriguez, Markel Crespo eta Aitor Etxeberria–.



ARRASATE DRAGOI TALDEA

## Zapatuan, Euskadiko txapelketa

Pasa den asteburuan Durangon jokaturako Euskadiko Amateur Txapelketan izan ziren Arrasate Dragoi taldeko gimnastak. Urte osoan gogor landutako ariketekin emaitza bikainak lortu zituzten. Zapatu honetan, 10:00etatik aurrera, berri, Durangoko Landako kiroldegian gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelketa jokaturako da.



Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Jose Angel Barrutiabengoa eta Xabier Bengoa, AZEko kideak, taldearen egoitzan eguaztanean. A. A.

## 'Ez da kasualitatea': historia, argazkitan jasota

Aprendices Eskola balioan jartzeko helburua duen erakusketa zabalduko du Arrasate Zientzia Elkarteak gaur, egubakoitza, 18:30ean, Kulturaten; ekainaren 29ra bitartean ikusgai izango dira askotariko herritarren laguntzarekin batu dituzten argazkiak

### Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartearen urte askotako eskaera izan da Aprendices Eskolaren eraikina berreskuratzea. "Elkartea 1990ean sortu bagenuen ere, 2011n ekin genion indartsuago, eta ez zen kasualitatea izan eraikin horren aurrean aurkeztu genuela taldearen ibilbide berria. Gure ondarea galtzen dagoela ikusita, ezinbesteko jotzen dugu Zerrajerarekin lotura zuten hainbat eraikin edo gune zaintzea, eta horiek dira: Zerrajerako erlojuarena, Zerrajerako bulegoak, Musakolako San Isidro eliza, Etxe Txikiak eta Aprendices Eskola. Azkenekoarekin bereziki kezkatuta egon gara, orain dela urte batzuk eraikina eraitsi eta merkataritza-gune bat egiteko asmoa ere azaldu zen eta. Bilboko SPRIren bulegoetara birritan joan ginen, eraikina mantentzeko eskatzera. Pozik eta eskertuta gaude, orain, Udalak eraikina berri eta etorkizunean berreskurabil egingo delako".

### Arrazionalismo estilokoa

Eraikina noizkoa den zehaztea ez dela samurra diote AZEkoek: "1905eko plano batean agertzen da; eskola inauguratu, baina, 1939ko urrian egin zuten. 1944an itxura aldatu zioten, eta garai hartako arrazionalismo estilokoan egin zuten. Donostiako Arkitektura Eskolan egin ziguten proiektuan jasota dago eraikin berezia dela oso, eta fatxada nagusia osatzen duten elementuen konposizio bitxia azpimarratzen dute. Barruan ere bitxikeria asko; horien artean, ikasleentzako dutxak zeudela. Garai hartan, etxe gutxitan zegoen holakorik. 1974an itxi zuten Aprendices eraikina, eta Eskola Politeknikoa sortu zuten".

### ERAIKINAREN ITXURA BEREZIA ETA ESKOLA BARRUAN EGINDAKO LANA GORAIPATU GURA DUTE AZE-KOEK

### Ehun argazki baino gehiago

Aprendices Eskola –eraikina eta bertan egindako lana– "balioan jartzea" da, gaur, egubakoitza, 18:30ean Kulturateko klaustrotan zabalduko duten, eta ekainaren 29ra bitartean ikusgai izango den, erakusketaren helburua. "Ez da kasualitatea izena jarri diogu, ez delako kasualitatea eraikin horrek oraindik ere irautea; era berean, ez da kasualitatea eskolak eman dituen etekinak, edo Arrasateko kooperatiba mugimendua...".

Eskolaren alde ezberdinak erakutsi gura izan dituzte, eta irakasleen, ikasleen eta eraikinaren argazki zahar asko batu dituzte; baita musikarekin eta futbolarekin lotutakoak ere. Horrez gainera, etorkizunean eraikina zelakoa izango den ere erakutsiko dute argazki muntaiekin. "Partikularren bilduma batekoak dira argazki gehienak eta hainbat plano ere bai; baina herritar asko mareatu ditugu. Eskerrik asko guztioi!".

## Kultura ezberdinak "nahasteko eta batzeko" Kultura Astea

Parrillada eta musika eta dantza ikuskizunak izango dira asteburuan Al-Andalus elkartearen egoitzan

### A. A. ARRASATE

Domekan hasita, askotariko ekitaldiak egin dituzte 29. aldiz ospatzen ari diren Kultura Astea: *Subi baja* txapelketa; afa-ri merienda eta omenaldia 65 urtetik gorakoei; askotariko jakien dastaketak; hitzaldia eta elkarteko kideen dantza emanaldiak. "Oso ondo doa dena; unerik politenetako bat domekako dantza saioan izan zen, aurrekoa dantzatu zuen flamenko eta sevillar dantzen irakasleak", dio Al-Andaluseko lehendakari Rafa Gomezek.

Asteburuan ere denetik dute, eta atea guztiontzako zabalik dituzte. Gaur, egubakoitza, haurrendako gaztelu puzgarriak eta merienda izango dira. Bihar, parriladarekin hasiko dira, 12:30ean; txartela bost eurotan, eta bazkideek, bi eurotan. "250 lagunendako, txuleta, txorizoa eta saltxitxa dugu. Ondoren, dantza eta musika saioak izango dira, egoitzan eskolak jasotzen dituzten ikasleenak. Iluntzean, Aitor Escobar eta haren taldearen kontzertua, eta gauean, urteroko *playback*-a egingo dugu".

## Arrasate Musikalekoen doinuak eskolan eta kalean gozagarri

Hezkuntza berezikoek gaur egingo dute kontzertua eskolan, eta hiru talde izango dira bihar, Seber Altuben

### A. A. ARRASATE

Ikasturtea bukatzeaz dagoela-eta, urtean zehar ikasitakoa erakusten ari dira musika eskolako ikasleak. Atzo, eguna, perku-sioko ikasleen txanda izan zen; eta gaur, egubakoitza, hezkuntza bereziko ikasleek 17:30etan eskolan bertan eskainiko dute emanaldia. "Olaia Ramosen eta Domentx Ucinen zuzendaritza-pean hogeit bat musikaririk hartuko dute parte, eta askotariko musika tresnak joko dituzte: pianoa koloreekin, tronboia, gitarra, gaita eta danborrak.

Oso hunkigarria izaten da kontzertu honetan ikusten diren emaitzak ikustea eta entzutea", dio Arrasate Musikaleko irakasle, Edorta Aiastuik.

Bihar, zapatua, berriz, musika tresnak kalera aterako dituzte urtero moduan, Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatutako Elkartasun Egunean kontzertua eskaintzeko. Seber Altube plazan, 13:00etan hasita, 9 eta 14 urte bitarteko 60 musikari igoko dira taularen gainera: metal taldea, haize egur taldea eta banda gaztea.





Txarriboda bateko unea. BERNAT ALBERDI

## 'Antzinako Aramaio': lihoa eta txarribodak

Lihoaren prozesuaren eta txarriboda errituaren ingurukoak jasotzeko egitasmoa jarri du martxan Udalak. Haien ezaugarriak, haiekin lotutako ohiturak, argazki zaharrak, testigantzak... jaso nahi dituzte, eta herritarren kolaborazioa eskatu dute horretarako

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Aramaio Udalak aspalditik du herriko kultura, tradizioa, euskara, azken finean, ondarea jasotzeko kezka, eta, horren harira hainbat lan egin izan ditu aurretik ere, Rosa Mondragonek dioenez: "Adibidez, herriko joko eta jolasen bilduma, kondaira eta abestien bilduma... Eta, bide beretik, bideoz grabatutako irudi batzuk errekuuperatu genituen iaz Museo Etnografikotik, eta filmategian digitalizatu".

Irudi horiek ikusten hasita ohartu ziren "oso ondo" identifikatu zitezkeela bi jardura horiek, lihoarena eta txarriboda: "Horregatik, erabaki genuen bi horien inguruan lanketa berezia egitea". Eta *Antzinako Aramaio* ekimenaren barruan, gai horiek izango dira aurrena jorratuko dituztenak. Egingo dutena izango da herritarrek identifikatu informazioa jasotzeko, haiei elkarrizketak egin, eta horrekin eta irudi zaharrekin dokumental bat landu.

Egitasmoaren garrantzia nabarmentzen du Lierni Altuna alkateak ere: "Pilatu ditugun eta agertu den materialari forma eman eta kaleratzea erabaki dugu, materiala historia eta kulturaz jantziz edo alderantziz, garrantzitsua delako nondik gatozen jakitea, gure gaur egungo kultura nondik datorren ikastea, zer garen jakiteko".

Aramaio Udalak "bertako nortasunaz, kulturaz eta historiaz jantzi" nahi ditu aramaioarrak proiektu honen bitartez; baina euren parte-hartze zuzenarekin, gainera: "Herritarrak garelako herriaren ohiturak, kultura, historia, egunerokoa... denon artean osatzen joaten garenak".

**DOKUMENTALA  
EGINGO DUTE AURREZ  
DITUZTEN IRUDIEKIN  
ETA TESTIGANTZA  
BERRIEKIN**

**Oso ohiko jardunak**

"Baserriko lanetan beste lan bat gehiago zen lihoarena garai batean; gainera, auzotarrak elkar elkarrekin egiteko: lihoa landu, jaso, lehortzen utzi, orraztu... eta behin lihoa jaso eta gero, oihalak egiteko erabiltzen zen, eta beste kasu batzuetan saldu ere egiten zen", dio Rosa Mondragonek. Txarribodaren kasuan, oraindik ere mantentzen da ohitura hori baserri askotan.

Dokumentala eginda, ezagutzera emango dute herrian, "eskolan, kultura etxean, webgunean..." erakutsiko dute. *Antzinako Aramaio* egitasmoaren barruan, aurtengo lanetarako 4.000 euro daude aurrekontuan, eta horietako batzuk izango dira lihoaren eta txarribodaren proiekturako, beste gai batzuk ere ukituko dituzte eta. Lihoaren eta txarribodaren ingurukorik izanez gero, Udalarekin harremanetan jartzeko eskatu diete herritarrei.



Lierni Altuna alkatea Legebiltzarrean, aurreko astean. EUSKO LEGEBILTZARRA

## Eskakizunak erantzun bitartean, salaketa batean eta bestean

AHTak sortutako kaltea plazaratzen segitzen du Udalak; Batzar Nagusietan izan ziren, eta orain, Legebiltzarrean

**J.I. ARAMAIO**

Batzar Nagusietako EH Bilduren taldearen ekimenez, urtarrilaren 19an egin zuen Lierni Altuna alkateak agerraldia Bide Azpiegitura eta Mugikortasunaren batzordean. Eta orain, berriz, Legebiltzarrera eraman dute EH Bilduk eta Altunak berak AHTaren lanek Aramaion eragindako kalteen salaketa.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura batzordean honako arazo hauek aipatu zituen alkateak: "Udal bideak behin-behinean desjabetu ziren, baina ez dago horren xehetasunik, eta

galdutako bideen ordezkorik ez dago definituta –gainera, katastroan desjabetze guztiak ez daude ondo definituta–; trenbidearen inguruan dauden ur arazoak ez daude konponduta; Zabola eta Untzilla auzuneak konpontzeko daude oraindik; Lugartegi...".

Salatu zuen udal bide publikoak erabiltzeko tasak ordaintzetik salbuetsita daudela, nahiz eta erabilera handia egiten duten eta bideak hondatzen dituzten; eta 2010ean Aramaio eta Arrasate arteko bidean izandako luiziak eragindakoengatik oraindik jaso ez dutela ere bai.

## San Martin eskola: jaia, eta arrapala egiteko pleguak

Ikasturte amaierako festa ospatuko dute bihar, zapatua; bestetik, argitaratu dituzte arrapala egiteko pleguak

**J.I. ARAMAIO**

Ikasturtea ari da amaierara iristen, eta, ohi bezala, San Martingo ikasle eta irakasleek eskolako jaia ospatuko dute bihar. 11:00etan hasiko dira, buruhandien kalejirarekin, plazatik eskolara. 11:30ean ongietorria izango da eskolan, eta 13:30ak artean tailerrak: amets harri-patzailea, makillajea, limonada, *slackline*, ahateen arrantza, *just dance* karaokea. *Pintxo chef* lehiaketa ere egingo dute, eta 14:00etan bazkaria. 15:30ak eta 16:30ak artean bingoa egingo

dute, eta gero, 17:30ak bitartean, euskal jolasak.

**Prozedura martxan**

Bestetik, astebete inguruko epea dute oraindik interesdunek San Martin eskolarako arrapala egiteko proposamenak aurkezteko. Udalarren webgune *Kontratazailearen profila* atalean kontsulta daitezke xehetasun guztiak. 57.605 euro da obraren aurrekontua, eta lanak bi hilabete egin beharko dira, irailaren 8rako amaituz –ekainaren 20aren ostean hasi beharko dira–.





Ligaxkako neurketa bateko irudia. IMANOL SORIANO

# Maezturen kontra, fase erabakigarria hasteko

Arabako Herriarteko pilota txapelketaren multzokako fasea amaituta, final-laurdenak jokatu dira asteburuan. Ligaxka bigarren amaitu du Aramaiok bere multzoan, eta beste multzoko hirugarrenaren kontra jokatzeko dagokio, ondorioz; kanpoan izango da

## Julen Iriondo ARAMAIO

"Orain arte egin dugunarekin, dagoeneko, hobetu dugu aurreko bi urteetan Herriartekoan egindakoa; oso justuko lana egin genuen aurreko bi urteetan"; txapelketako multzokako faseko hiru jardunaldien ostean, egindakoarekin konforme mintzo da Raul Angulo, aramaiarren entrenatzailea.

Txapelketaren lehen zati honetan, Aramaiok Laudioarekin bi partidu irabazi zituen eta bat galdu; Gasteizekin bat irabazi eta bi galdu; eta Zigoitiarekin bi irabazi eta bat galdu. "Espero baino hobeto ibili gara; batez ere, kadeteetan eta gazte mailan, eta seniorretan ere borroka egin dugu partiduetan; nahikoa maila polita eman dugu".

Kadete mailan du indar handiena Aramaioko taldeak: "Oso eroso irabazi ditugu neurketak, espero baino erosoago, agian aurkariak ez direlako aurrez uste bezain fin ibili. Baina guk nahikoa maila badugu kadete-

tan, eta espero dugu final-laurdenetan ere erakustea". Bi arrerarik, Asier del Campok eta Julen Olaizolak -honek atzean-jokatu dute kadeteetan, eta Markel Arriolabengoa -federatu moduan hasi berria, atzelaria- ere bai. Aurreko koadroetan aginduz eta indargune hori aprobetxatuz, fin ibili dira aramaiarrak.

Gazte mailan, Aimar Kintana, atzelari ezkertia, "oso txapelketa ona" egiten ari da, Anguloren arabera: "Agian, hobetu behar du ziurtasuna, eta pilota gutxiago galdu". Gazte mailan, aurrelari finkorik ez du Aramaiok une honetan. Zailtasun gehien, dena den, seniorretan du taldeak.

**GAZTE MAILAKO NEURKETA IZANGO DA GAKOA; IRABAZTEN DUENAK EGINGO DU AURRERA, ZIURRENIK**

## Orain, kanporaketak

Final-laurdenetan bakoitzak noren kontra jokatu duen erabakitze baliok izan du multzoen ligaxkak. Aramaioren eta Maezturen artekoa bihar, zapatua, jokatu da, 19:00etan, han: "Kadeteetan, gure alde ikusten dut partidua; gazte mailan egongo da gakoa, borrokatu egin beharko dugu, eta oso partidu ona egin aurrera ateratzeko; eta seniorretan euren aldekoa da pronostikoa". Seniorretan, euren bikoteko pilotarietako bat, Jaurregi, nabarmentzen du aramaiarren entrenatzaileak: "Oso ondo ezagutzen du frontoia, pilotari abiadura ematen dio azpitik eta errematean oso ona da".

Frontoia berak ere arduratzen du Angulo: "Oso frontoi berezia da, jokatzeko polita, baina aurrez inoiz jokatu ez dutenentzat ez da erraza. Oso motza da, eta materiala egokia izan behar da, ze bestela errebotera iristen da erraz; oso bizia da, azkarra azpitik", ohartarazi du.



Alaiak, Sastiñan. AMAIA TXINTXURRETA

## Musika Aste bikaina borobiltzeko, lau ekintza

Ederki joan dira orain artekoak; bi musika saio eta bi ikus-entzunezko falta dira, domekara arte

## J.I. ARAMAIO

Musika Astearen antolatzaile arduratzen den Larrantz Arriolabengoa oso gustura da orain arteko egunek emandakoarekin, bai izan diren emanaldiekin eta baita programazioari jendeak egindako harrerarekin ere: "Jende asko ibili da saioetan".

Asteleheneko Duo Neubeu bikoaren piano eta klarinete kontzertuarekin publikoa "oso pozik" geratu zen: "Oso kontzertu dinamikoa izan zen". Martitzenean, Alaiak jubilatuen elkarteko kantu tailerrekoen kontzertua ere "oso ondo" joan zen, eta ondoren egindako kantu jiran ere "giro ederra" izan zen: "Eguraldi kaxkarra eduki arren, jendea animatu zen". Eguazteneko Trakamatrakaren saio didaktikoa ere arrakastatsua izan zen oso; publikoak ere izan zuen flauta antzerako bat egiteko aukera.

Atzoko musika eskolako emanaldiaren ostean, berriz, So Danço Balanço taldearen bossa nova kontzertua izango da gaur, 20:00etan, Sastiñan. Bihar, berriz, musika elektronikoa plazan, 19:00etan; bihar, baita ere, 22:00etan, *Once* filma emango dute kultura etxean, eta azkenik, domekan, *Corazones Rebeldes* dokumentala, 20:00etan.



NIRE USTEZ

IKER ELEMPURU

## Eguzkia

Kondairak dio bizitzaren hasieran iluntasuna jaun eta jabe zela Lurrean. Zorigaitz honen aurrean, gizakiak Ama Lurrarengana laguntza eske joan ziren, izpiritu txarrak eta numenak uxatzeko zerbait egin zezan. Ama Lurra eskaerari erantzunez bere alabetako bat sortu zuen, eta Ilargi jarri zion izena. Gizakiak eskertu zion Ama Lurrari, baina argitasun hori nahikoa ez zela ikusi zuten. Berriz ere Ama Lurrari eskatu zioten, argi gehiago nahi zutela iluntasuna gainditu eta izpiritu txarrak aldentzeko. Orduan, Ama Lurra bere bigarren alaba sortu zuen, Eguzki amandrea. Eguzki Eguzkiaren argiak babesten zituela, baina gaez Ilargiaren argia ez zela nahikoa eta Ama Lurrari babesa eskatu zioten gauerako, eta Ama Lurra eguzki lorea sortu zuen. Eta Ama Lurra etxe atarrietan eguzki lorea jartzeko esan zien gaueko izaki txar eta beldurgarriak uxatzeko. Neolito garaitik, nekazaritzaren sorrerarekin, euskaldunok - eguzkia, eurria, ekaitza, hodeiak, trumoiak - jainkotu eta gurtu izan ditugu. Kultur ospakizun eta eskaintzak egiten omen zizutzen beraien mesedeak jaso ahal izateko. Aurtengoa ikusi eta gero, Eguzki Amandreari eskaintzak egin behar dizkiogu. Hodeiri, alde egiteko eskatu, eta Ama Lurrari, babesa, hainbeste eurik kalte ez egiteko, eta eguzkia neurrian etor dadila uzta eta gure osasuna babesteko. Has gaitezen, bada, akelarreak eta eskaintzak egiten gure arbasoek egin ohi zuten eran!

## Garraiorako diru laguntzak atera ditu Arabako Aldundiak

Bi deialdi dira: 2017/2018 ikasturtean unibertsitate ikasketak egin eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar izan duten ikasleentzat; eta batxilergo edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta euren udalerritik beste batera joan behar izan dutenentzat. Ekainean aurkez daitezke eskaerak.

# 600 aretxabaletar gura dituzte giza katerako

Gure Esku Dago-k ekainaren 10erako egindako deialdiarekin dagoeneko 510 lagunek egin dute bat. Hasierako helburua beteta, 600 lagunera iritea da orain erronka, eta izena eman barik duten herritarrei deialdi masiboa egin diete gaurko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gero eta gertuago dago Gure Esku Dago-k ekainaren 10erako deitutako hitzordua. Donostia, Bilbo eta Gasteiz giza katearekin lotzea da erronka, eta, horretarako, 500 aretxabaletar eskatu zituzten Zigoitia inguruan, 185 kilometroa osatzeko.

Aretxabaletako lantaldeko kideek joan den astean jakinarazi zuten 510 herritar zirela izena emandakoak. Lortutakoarekin poztu arren ez dute horretan geratu gura, eta hurrengo erronka zehaztu dute: 600 aretxabaletar batzea. Horretarako, "izen-emate masiboa" deitu dute gaurko, ekainak 1. Durana kalean duten behin-behineko egoitzara gerturatzea gonbidatu dituzte herritarrek, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Deialdiarekin bat egiten dutenei, GEDren lelodun plastikoak eman-gozkie bakoietan jartzeko.

Era berean, gogorarazi dute Zigoitira autobusean joateko



Herritarrek izena ematen. GURE ESKU DAGO

txartelak aurrez hartu behar direla; horretarako azken eguna ekainaren 3a da. Autobus batzuk ekitaldia bukatu orduko Aretxabaletara itzuliko dira eta beste batzuek Gasteizera eroango dituzte herritarrek.

Erabakitze eskubidea izango da egun horretako aldarrikapenaren oinarria, eta horrekin batera jaiegun handia egingo dute. Aretxabaletarrek Zigoitikoak izango dituzte lagun kilometroa betetzeko.

## 'Bullying'-aren gainean jardungo du Idurre Albizuk gurasoekin

Guraso Foroak antolatutako hitzaldi sortaren azken saioa ekainaren 5ean izango da (18:00)

**M.A. ARETXABALETA**

*Nerabezaroa eta bullyinga: familiaren esku-hartzea* hitzaldia eskainiko du Idurre Albizu coach-ak martitzenean, 18:00etan, udal-letxean.

*Bullyinga*-a gurasoendako kezka iturri izan ohi dela dio: "Kezka bera da askotan, familiei erabaki desberdinak hartzea oztopatzen diena". Eta gurasoekin zelan egiten duen lan argitu du: "Gomendio gutxi ematen diet; egiten dudana zera da: aukerak zabaldu, begirada zabaldu eta beste ikuspuntu batetik, agian, datu gehiagorekin, bizi-penak era desberdin batean bizitzeko aukera eman. Bakoitzak egin dezala bere errealitatearekin bat egiten duen ekimena". Eta uste du ezinezkoa dela errezeta bakarra erabiltzea kasu guztiak bideratzeko: "Zenbat eta aukera gehiago izan, bai eraba-




Idurre Albizu. GURASO FOROA

kiak bai aukerak, aberatsagoak izango dira".


Familiak zeresan handia izan arren ikastetxea eta gizartea bera ere ezin direla ahaztu uste du: "Garrantzitsua da lehenbait lehen egitea gizartean balioen lanketa sakona".

## Zergatik joango zara giza katera?



**IDOIA ELEXPURU**  
MERKATARIA

"Gauza askok batzen gaituzte: aldarrikatzen denak –botatzeko eskubidea izate–, giroak... Nabarmenduko nituzke aldarrikapenaren izaera, sentimendu bat, hizkuntza bat, etorkizun libre bat, herri eran antolatze eskubidea... Has gaituzten, pausoz pauso, guztiok elkarrekin".



**ALAITZ MENDIETA**  
IKASLEA

"Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko; zeintzuk izan geuk erabaki behar dugulako, eta ez beste inork. Gainera, emozioz betetako eguna izango da. Gure etorkizunaren inguruan erabakitze eskubidea aldarrikatzeko egun polita izan daitekeela uste dut, lagun artean eta familia giroan".



**JOXE MIGEL URIBARREN**  
ZINEGOTZIA

"Nik joateko asmoa daukat; sinisten dut Euskadi burujabe batean, eta uste dut guk geure arauak izan beharko genituzkeela. Horregatik, herri bateratu batean eta burujabetzan sinisten duten herritar guztiak ere bertara joatera animatuko nituzke ekainaren 10ean".



Artisan-ogia,  
etxean bertan egina

Ore ama naturalarekin  
egindako ogia  
Zekale-ogia  
Arto-ogia  
Ogi integrala  
Ongizatera bideratutako ogiak

Basabe poligonoa 2 • ARETXABALETA • Loramendi 6



laz, *Kirolez busti* ekimenaren barruan, umeak Arlutzeko kantxan jolasean. UDA ARETXABAETA

# 'Kirolez busti' ekimen bete-betea astebururako

Gaurtik domekara arte, askotariko kirolak izango dira Aretxabaletako hainbat txokotan: gimnasia erritmikoa, xakea, saskibaloia, eta abar. Hain zuzen ere, ekimenaren helburu nagusia da adin askotarikoek kirol desberdinak praktikatzea

**Imanol Beloki** ARETXABAETA

UDA Kirol Elkartek Ointxe! Saskibaloia Taldearekin, Arizmendi Kirol Elkartarekin, Oztopo Trial-sin Taldearekin, Arlutz Xake Taldearekin eta Aretxabaletako Udalarekin elkarlanean antolatutako *Kirolez busti* ekimena izango da asteburu honetan Aretxabaletan.

Gaurtik domekara arte askotariko kirolak izango dira Aretxabaletako hainbat txokotan, eta helburu nagusia kirola herrira zabaltzea da. Honela adierazi du Agurtzane Elkorok, UDA kirol elkarteko presidentea: "Sei urte daramatzagu *Kirolez busti* proiektuarekin, eta kirol ezberdinak praktikatzea, herriko txoko ezberdinetan gauzatzea eta adin ezberdinetako aritzea da ekimen honen helburu nagusia".

## Herriko hainbat txokotan

Ibarra futbol zelaian, kiroldegi aurreko belardian, Durana kalean, herriko plazan, erretiratuen egotza aurrean, Iturrigorri pilotalekuan... hainbat lekutan kirol

## Elitekoen pilota eta pala partiduak

Zapatuan, emakumezkoen pilota eta pala partiduak jokatuko dira Iturrigorri pilotalekuan. Ez dira, gainera, nolanhikoak izango, izan ere, elite mailako kirolariak izango dira bertan. Hasteko, 11:30ean, Oihana Orbegozok eta Maddi Mendizabalek Mair Mendizabalen eta Alaitz Badiolaren aurka jokatuko dute pilota partidua.

Ondoren, horiek bukatzean, pala partidua jokatuko dute; Miren Larrarte eta Itxaso Erasun, Irati Otaegiren eta Mair Mendizabalen aurka.

Herritarrek animatzeko dei egin dute antolatzaileek; izan ere, lehen mailako kirolariak ikusteko ez da aukera askorik egoten, eta helburua frontoia betetzea dela gaineratu dute. Horrekin batera, eskupilotarako eta palarako zaletasuna zabaldu nahi dute emakumeen artean.



lazio pilota partiduak. GOIENA

ezberdinez gozatu ahalko dute herritarrek; gimnasia erritmikoa, xakeaz, pilotaz, palaz...Eta, ikus-teaz gain, parte hartzeko aukera ere izango dute bertaratzen direnek: "Kirolaren garrantzia azpimarratu nahi dugu ekimen honekin. Kirolak zenbat jende batzen duen ikusi dadin. Horretarako, eguraldia lagun izatea ere gura dugu; izan ere, txarra eginez gero, hitzordu batzuk bertan behera geratuko dira eta beste batzuk, bestalde, beste egun batean egingo ditugu", adierazi du Elkorok.

## 'Eskua' proiektua

Futbol Eskola ekimenaren barruan, Iker Arriolabengoaren gidaritzapean, *Eskua* proiektua zer den azalduko dute, eta, horretarako, gaztetxoek egindako azken lanaren erakusketa izango da ikusgai, Ibarra futbol zelaian jokatuko den txapelketaz gain. Honela adierazi du *Eskua* proiektuko Iker Arriolabengoa dinamizatzaileak: "Igor Arenazak sortutako proiektua da, eta, futbolaz gain, balioak transmititzea da *Eskua* ekimenaren helburua. Ariketa ezberdinak egiten aritu gara, eta egindakoa islatu nahi dugu asteburuan. Futbol Eskolako talde bakoitzak balio bat aukeratu du, eta futboleko posizio bakoitzean bat jarri dugu, hamaikakoa osatuz. Errespetua, elkarlana, autoestimua, konfiantza... eta halakoak. Hala, hitz bakoitzarekin esaldi bat ere jarri dugu, eta egunerako egin dugun murala jarriko dugu erakusgai Ibarrian".

Gainera, txapelketa jokatuko dute, eta zelai barruan eta zelaitik kanpo landu beharreko balioak transmititu dizkiete bigarren urteko benjaminen zortziko futboleko hasiko diren lehen urteko gaztetxoek.

## 'Saskifest' jaia zapatuan

Kirol ezberdinen hitzorduez gain, saskibaloiak leku handia hartuko du zapatuko egitarauan. Izan ere, *Saskifest* jaia izango da herriko plazan. Egunari hasiera emateko, 09:30ean, jaurtiketa erakustaldi irekia izango da, Ointxe!-ko Eneko Matak zuzenduta. 17:00etan, hiruko txapelketa jokatuko da, eta, indarrak berreskuratzeke, 18:00etan, txahala erreko dute. 19:30ean, berriz, lagunarteko saskibaloia partidua jokatuko da, eta 21:00etan, familia argazki erraldoia aterako dute Ointxe! Saskibaloia Taldekoek.

## 'Kirolez busti' egitaraua

### Ekainak 1, egubakoitza

- **17:00** Patinete eta bizikleta lasterketa Durana kalean.
- **17:00** Gimnasia erritmikoa plazan.
- **18:00** Xakea plazan, Arlutz taldearen eskutik.

### Ekainak 2, zapatua

- **10:00** Doko txapelketa Basotxo aurreko zelaian.
- **09:30-11:30** Ointxe!-koen jaurtiketa erakustaldi irekia plazan.
- **09:00** Herriko pilotarien pilota partiduak Iturrigorri.
- **11:30** Elite mailako emakumezkoen pilota partidua Iturrigorri.
- **12:30** Elite mailako emakumezkoen pala partidua Iturrigorri.
- **17:00** Hiruko saskibaloia txapelketa plazan.
- **19:30** Nesken saskibaloia partidua plazan.
- **18:00** Txahal dastatzea plazan. Errazioa, euro 1.
- **18:30** Kale bloka plazan.

### Ekainak 3, domeka

- **09:00** Futbol eskolako jaia Ibarra futbol zelaian.
- **12:00** Trialsina kiroldegi aurreko zelaian, Oztopo taldearen eskutik.
- **14:00** Paella dastatzea Ibarra futbol zelaian. Errazioa, euro 1.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia I - Tel: 943 79 08 07  
ARETXABAETA



Zirkolanduz ikuskizuna. JAIKI



Broadwayko dantzak. IMANOL SORIANO



Basotxoko erretiratuak, komentuko lorategian egindako dantzaldian. JAIKI



Bergarako dantzariak. I.S.

## Dantzez betetako asteari agur esango diote gaur

Jaiki elkarteko kideak oso pozik daude Dantza Asteak eman duenarekin: "Ikuskizun dotoreak izan dira eta herritarrek aparteko harrera egin diete". Gaur iluntzeko ekitaldiekin, laugarrenez antolatutako astea bukatutzat emango dute

### Mirari Altube ARETXABALETA

Egubakoitza ezker dago dantza giroa herrian, Jaiki elkarteak antolatutako Dantza Asteari esker. Eta gaur emango diote bukaera, bi ekitaldirekin: 19:00etan, dantza urbanoak eta salsa eskainiko dituzte Bergarako Candem Town taldeko kideek; eta 19:30ean, *Danama La* ikuskizuna Jaiki elkartekoek.

### Ikusleek, aparteko jarrera

"Harrera ederra egin diete herritarrek ekitaldiei", jakinarazi du Maier Etxebarriak, Jaikiko kideak, eta eguraldia izan dela buruko-minak eman dizkiena gaineratu du: "*Zirkolanduz* ikuskizuna pilotalekura eraman ge-

nuen; baina izugarriko jendetza gerturatu zen biolin soinuaren atzetik, Hamelinen antzera". *Room 247* piezak ere ikusmin handia sortu zuen: "Haurrak eta helduak txundituta geratu ziren taularitutako historia eta mugimendu bereziekin. Erritmo aldaketak, goxotasuna eta indarra... Artistak oso pozik ziren, ikusle jatorrak izan zituztelako".

Domekako erromeria ere arrakastatsua izan zen: "Mojen parkea leku bikaina da halakoetarako, eta aparteko jai giroa sortu zen. Erretiratuen ustez, hilero edo astero egin beharko litzateke halakoren bat!", dio.

Astean beste ekitaldi mordoak egon da: "Las Rebutito taldekoek

*ole*-ekin girotu zituzten plazako arkupeak. Eta Cutting Shapes taldeko nerabeek aho zabalik utzi gintuzten Shuffle dantza biziarekin", adierazi du Etxebarriak, eta, batez ere, ikusleek jarrera nabarmendu du: "Parte hartzen ari diren dantzariak oso ondo sentitzen dabilta".

### Agurra, Jaikikoek

Jaikiko kideek itxiko dute astea, gaur: "Sorkuntza prozesu motz baina sakon baten emaitza da. Zuriñe Benaventeren gidaritzapean eta Ignacio Monterrubio musikariak horretarako sortutako musikarekin. Hamasei minutuko piezatxoa da, eta plazan egingo dugu, seguruenez".

## Andoni Egaña izango dute lagun Lekaixokako kideek gaur

Ikasturteari bukaera emango diote udaletxe zaharrean egingo duten bertso jaialdiarekin, 19:30ean

### M.A. ARETXABALETA

Lekaixoka bertso eskolako kideek Andoni Egaña (Zarautz, 1961) gonbidatu dute ikasturte bukaerako jaialdira. Udaletxe zaharrean elkartuko dira –eguraldi ona bada, kalean–, 19:30ean, eta herritar guztiak animatu gura dituzte bertara. Bertso saio dotorearekin batera ezustekoak izango direla iragarri dute.

### Hiru talde lanean

Hiru taldek jardun dute lanean ikasturtean zehar bertso eskolan. Gaztetxoek 11 urte inguru

dituzte, eta Haizea Arana bertsolariaren aginduetara jardun dute lanean. Arana hain zuzen, Lekaixokako gazteen taldean dago eta horiek Iñaki Apalategi beasaindarra izan dute irakasle azken hilabeteetan.

Helduen multzoa da jendetsuena; bost-sei lagun elkartzen dira astero. "Azken hilabeteotan ez dugu irakaslerik izan, baina berdin jarraitu dugu lanean", jakinarazi du Gari Barbero taldekideak, eta gaineratu: "Giro benetan ona dugu eta oso gustura elkartzen gara".



M.A.

## Gitarra ikasleen emanaldiak

Leizarra musika eskolako ikasleek emanaldi mordo eskaini dituzte azken hilabeteetan. Astelehenean eta martitzenean, esaterako, gitarra-joleen txanda izan zen, eta Arkupeko aretoa lepo bete zuten senideek eta lagunek horien emanaldiak jarraitzeko. Datorren martitzenean bukatuko dituzte kontzertuak, piano-joleen erakustaldiarekin (18:00).

### Hodei magoak emango dio hasiera 7x7 ekimenari

Beste urte batez antolatu du Kultura Sailak 7x7 ekimena; hau da, zazpi kultura ekitaldi herriko zazpi txokotan. Hodei mago nafarra izango da lehenengo gonbidatua, eta *Ordu magikoa* ikuskizuna eskainiko die neska-mutikoei. Datorren eguaztenean, ekainaren 6an, izango da, Santa Kurtz kaleko plazatxoan (19:00).

### 'Suargi' dokumentalaren emanaldia egunean

Loramendi elkarteak antolatuta, *Suargi* dokumentala emango dute ekainaren 7an, eguena, udaletxe zaharrean (19:00). Mikel Gandariasek, Jon Bingen Landabideak, Markel Brouardek eta Adrian Zelaiak hegoaldeko Kurdistanen bizi izandakoa du ardatz dokumentalak. Emanaldi ostean, bidaiari hartan izandako hainbat lagunekin solasaldia izango da.



laz, Jose Arana kalea jendez beteta. IMANOL SORIANO

## Postu batzuen kokapena aldatzera behartuta

Arizmendi Ikastolak antolatutako Eskoriatzako Ferixie domeka honetan izango da. Aurtengoa 22. edizioa izango da, eta, saihebidetako lanak direla eta, aldaketa batzuekin etorriko da jai; izan ere, sei txokotan banatuko da azoka

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Zapatuan ospatuko da Arizmendi antolatutako eta Eskoriatzako Udalak lagundutako Ferixie, eta, urtero moduan, artisau, nekazari eta bestelako postuak jarriko dituzte erdigunean.

Hogeita bigarren edizioa izango da zapatukoa, eta aurten, saihebidetako aldi baterako itxita dagoenez, hainbat aldaketa egin

behar izan dira, baina ez dute eragin handirik izango. Postuen lokalizazioan aldaketa txiki batzuk dauden arren, urteroko egitarauari jarraituz antolatu dituzte eguneko hitzordu guztiak. Horrekin batera, Dorletatik bueltan eta Arbiñostetik pasako dira auto guztiak, eta, zirkulazioa zaintzeko, Arizmendiko irakasle eta gurasoak izango dira bi

puntutan, txandakatuz –Hotel pareko biribilgunean eta Arbiñosteko bidegurutzean–.

**Postuak, sei gunetan banatuta**

Umeen gunea –haur txokoa eta puzgarriak– Jose Arana ikastolako jolastokian egongo da; talo postua eta taberna, beti bezala, elizpean; baserriko produktuak eta gazta txapelketa, Santa Ma-

rina plazan; artisau postuak, Santa Ana aparkalekuan; eta dantzak eta bazkaria, Fernando Eskoriatza plazan.

**Postu asko, eta aurten erraldoiak**

Saltzeko zein erakusgai egongo diren postu ezberdinak izango dira aurten ere. Honela adierazi du Estitxu Aguadok, Arizmendiko ordezkariek: "Guztira, 90 postu inguru izango dira. Artisauak geroz eta gehiago daude urtero; elikagaien postuak, aldiz, gehiago izatea nahiko genuke... hori da aurrera begira dugun erronka. Horrez gain, aurtengo berrikuntzetako bat da Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa herriko kaleetan zehar ibiliko dela".

**'Zuk egin zuk jan' bazkaria**

Azken urteetan errotu den *Zuk egin zuk jan* bazkaria ere izango da. Eguraldiak laguntzen badu, Fernando Eskoriatza plazan egingo da, eta mahaiak eta aulkiak bertan izango dituzte bazkaltzera joan nahi dutenek. Eguraldi txarra egiten badu, ordea, beste hainbat hitzordu moduan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egingo dira.

Horren ostean, Txapel Jaurtiketa Txapelketako zazpigarren edizioa izango da, eta, aurten, oraindik zehaztu gabe dute Txistularien Arratean egingo den edo, urtero bezala, Jose Arana kalean egingo den, zirkulazioa zainduta.

**Pazientzia**

Errepidea itxita egongo da aurtengoa, baina, autobus batzuk pasako dira; beraz, eskoriatzarrei eta etorriko direnei hori kontuan izateko eta kontuz ibiltzeko eskatzen diete Arizmendik eta Eskoriatzako Udalak.

## Zapatuko egitaraua

- **09:00** Etxafuego jaurtiketa.
- **09:30** Txistularien kalejira.
- **10:00** Ferixaren hasiera –baserriko produktu eta jakiak, artisautza, tresneria...– eta Arrasateko erraldoiak arituko dira goizean zehar.
- **10:15** 21. Txorimalo Lehiaketa.
- **11:00** Haurrentzako eta gazteentzako tailerrak eta puzgarriak Jose Aranako jolastokian.
- **11:30** X. Gazta Dastaketa eta Txapelketa Santa Marina plazan.
- **11:30** Kalejira trikitilariekin.
- **12:00** Almeneko ikasleen ikuskizuna ikastolan.
- **12:30** Euskal dantzak plazan.
- **14:00** Sari banaketa eta errifa zozketa, Jose Aranan.
- **15:00** *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria plazan.
- **19:00** VII. Txapel Jaurtiketa Txapelketa.

## AURTEN, ARRASATEKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAKOAK IZANGO DIRA

## Tortolis ludotekatik, Jose Arana zaharren egoitzara

Ludotekako haurrek bost hilabetez prestatzen ibili diren zirkua eskaini zieten zaharren egoitzako egoiliarrei

**Komunitatea** TORTOLIS LUDOTEKA

Ilusioz beteta ekin zioten Tortolis ludotekako langileek eta haurrek zirkuko proiektuari. Ohartu orduko, ikasturtea amaitzear da; horrekin batera, zirkua. Pasa den ostiralean ekitaldi

berezi batekin amaitu genuen ludotekako ikasturtea zaharren egoitzan. Hilabete askotan garatutako proiektu bati amaiera eman genion bertan eta gure haurren lana ikusgai izan zuten bertako bizilagun zein langileek.

Mezu honen helburua Tortolis ludotekatik proiektu honetan parte hartu duten guztiei esker ona ematea da; hau da, lehenengo pausoak ematek, prozesuan zehar gure ondoan egon diren eta, nola ez, amaiera borobila ematea lortu duten guztientzat; beraz, eskerrik asko, bihotzez. Aipamen berezia, zaharren egoitzari, gugatik apustua egin eta proiektuan lagundu digute eta; izan ere, hasieratik ateak zabalik izan dituzte eta elkarlanean gauza asko ikasi ditugu.





Ausartak taldeko emakumeak Zaldibar antzokian, taldearen kamisetak jantzita dituztela. AUSARTAK ANTZERKI TALDEA

# Sarrerak agortuta, bi saio eskainiko dituzte

Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeak 'Las chicas del balneario' lana aurkeztuko du bihar, Zaldibar antzokian. 20:00etan izango da lehenengo saioa, eta, sarrera guztiak saldu dituztenez, 22:00etan beste saio bat eskainiko dute

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Zapatu honetan, Eskoriatzako Ausartak antzerki taldea *Las chicas del balneario* lanarekin igoko da Zaldibar antzokiko oholtzara. 20:00etan izango da saioa, eta, dagoeneko sarrera guztiak agortu direnez, bi saio eskainiko dituzte, egunean bertan.

Lehenengo saioa 20:00etan hasiko da eta bigarrena, berriz, 22:00etan. Antzezlan dibertigarria eskainiko dute, eta sarrerak alde aurretik egongo dira salgai Manuel Muñoz kiroldegian; eta saltzen ez direnak egunean bertan saltzen jarriko dira Zaldibar antzokiko leihatilan, 21:30ean.

## Antzerki amateurra, umorezkoa

Zazpi urteko ibilbidea du Ausartak taldeak, eta, hasi zirenetik hona, bost lan inguru egin dituzte, baita saio txiki batzuk ere. Beti umorea oinarri, saio errebindikatzaile eta feministak eskaintzen saiatzen dira. Hone-l adierazi du Mari Carmen

Fernandezek, taldeko kideak: "Urtean antzezlan bat eskaintzen saiatzen gara. Panico Escenico antzerki taldeko Arantxa Lopez de Letona da gure irakaslea, eta hilean bi edo hiru entsegu izaten ditugu kultura etxean. Oraingo antzerkia dibertigarria da, el-karrizketa umoretsuak daude, eta dantza ere ez da faltako".

**Bizitza ikusteko beste modu bat** Bainuetxe batean gertatzen den istorioa interpretatuko dute Ausartak taldeko emakumeek, eta bizitza ikusteko beste modu bat dagoela ohartaraziko direla da oinarria.

Hainbat emakume, bizitzaren helduaroan aurrera doazenak, jabetzen dira aro hori ez dela

**UMOREA OINARRI,  
ANTZERKI  
ERREIBINDIKATZAILE  
ETA FEMINISTA  
ESKAINIKO DUTE**

ilun eta negu kolorekoa, baizik eta garai berri eta dibertigarri bat. Barre egitea, negar, sentitzea, sufritzea, gozatzea... hori da bizitza. Bizitzaren une bakar bat bera ere alferrik galdu gabe eta umore handiz bizitza erabakitzen dute, zer gerta ere.

## Herriko protagonistak

Antzerkiko protagonista guztiak emakumeak eta herrikoak dira, eta, beti egin ohi duten moduan, ikusleak barrez lehertzeko eta txaloak lortzeko helburuarekin igoko dira oholtzara. Honako hauek dira protagonistak: Emi Izurra, Katy Pizarro, Maribi Carrillo, Mari Carmen Fernandez, Marijo Fernandez, Paquita Ramos eta Amaia Arrizabalaga.

Herriarrei eskerrak eman nahi dizkiete partaideek, oholtzara igo aurretik: "Taldea amateurra gara, guk egin dugu gidoia, eta profesionalak ez izan arren, Eskoriatzako herritarrak beti izan dira hor gu ikusten; beraz, eskerririk asko!".



Marisol Garmendia eta Joserra Zubizarreta, aurkezpenean. ARANTZAZU EZKIBEL

## Helduek bizikletan ibiltzeko ohitura izan dezaten, ikastaroa

Ikastaroaren berri ematen eta bidegorria inauguratzen izan da Marisol Garmendia, Mugikortasun diputatua

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Udalak eta Aldundiko Mugikortasun Departamentuak antolatuta, helduei bizikletan ibiltzen irakasteko ikastaroa egingo dute ekainean Eskoriatzan. Horren berri emateko, eta Aingeru Guarda-Kuatuena bidegorriko lanen inaugurazioa egiteko, Marisol Garmendia Mugikortasun diputatua izan da herrian. Ikastaroa ekainaren 14an, 15ean, 19an, 21ean, 22an eta 26an izango da, Joseba Inurrategi frontoian, doan. Sei saio izango dira, guztira, ordu eta erdikoak –goizetan 09:30-11:00 eta arra-

tsaldeetan 16:00-17:30-. Izena eman behar da, ekainaren 7ra arte, Manuel Muñozen. Ikastaroaren aurkezpenean azaldu zuten bizikleta edukitzea ez dela derrigorrezkoa izango; Aldundiak ipiniko ditu.

## Bidegorriko lanak, amaituta

Ikastaroaren berri emateaz gain, Marisol Garmendiak inauguratutzat eman du Aingeru Guarda eta Kuatuena arteko bidegorri zatia, kilometro ingurukoa. Mugikortasun Departamentuak emandako diru laguntza bati esker eraiki dute bidegorria.



JAGOBA DOMINGO

## Ikasturteari agur esan diote

Amaitu dute ikasturtea Hankamotx bertso eskolako ikasleek, eta, hain zuzen ere, bertso sorta eskaini zuten pasa den egubakoitzean, Zaldibar antzokian. Bertso sorta bikaina eskaini zuten oholtzara igo ziren gaztetxoek, ikusleen gozamenarako. Amaitzeko, bertso saioa egin zuten Maddalen Ruesgok, Oihana eta Haizea Aranak eta Andoni Mujikak.

# Open World Martial Arts txapelketan lehiatzera

Atama Taldeko Mikel Beloki eta Leire Rato borrokalariak Reusera (Tarragona) joango dira asteburuan, Europa mailako borrokalariak elkartuko dituen txapelketan lehiatzera. Rafa Carriet entrenatzailearen gidaritzapean, K-1 modalitatean arituko dira

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Leire Rato eta Mikel Beloki Eskoriatza Atama Taldeko borrokalariak amateur mailako Open World Martial Arts txapelketan lehiatuko dira asteburu honetan, Reusen (Tarragona). Biak K-1 modalitatean lehiatuko dira ringean, eta orain arte Rafa Carriet entrenatzailearekin ikasi eta prestatu dutena erakustera joango dira hara.

## Europa osoko borrokalariak

Global Boxing Federation-ek (GBF) eta Nazioarteko Arte Martzialen Federazioak (FIDAM) antolatutako txapelketan, Europa mailako borrokalariak batuko dira, eta arte martzialen diziplina ezberdinak izango dira bertan. Open eta amateur mailako borrokez gain, gala moduan borroka profesionalak eta tituluak jokatuko dira.

800-1.200 borrokalari inguru batuko dira Reusen, asteburuko hitzorduan, eta hauek izango dira bertan ikusi ahal izango diren diziplinak: tatamian, *semi-contact*, *light contact*, *grappling*, *hapki-do*, forma tradizionalak eta estremokoa –armekin edo arma gabe–; ringean, *full-contact*, *kick boxing*, *K-1*, *muay thai* eta *boxeo*; eta oktogono formatuan, *MMA*.



Mikel Beloki, Rafa Carriet eta Leire Rato aste honetan entrenamenduan. IMANOL BELOKI

## Urratsak ematen

Mikel Beloki Atama taldeko borrokalariak lorpen handiak lortu ditu denbora laburrean. Izan ere, iaz, Espainiako txapel-dunordea izan zen kenpo modalitatean. Aurten, berriz, kenpo hiru modalitateetan izan da txapel-dunorde: *fullkenpo*, *puntura* eta *semi-contact* diziplinetan, hain zuzen.

Asteburu honetan, aldiz, K-1 modalitatean, 90 kilotik gorakoetan jokatuko du Belokik, lehenengo aldiz: "Modalitate hau probatzera noa soilik. Europa

osotik etorriko dira borrokalariak, eta ikusi egin beharko da nolakoak diren nire pisuan daudenak. Hiru minutuko bi roundeko borrokak dira, eta kolpe asko izaten dira, gainera. Ematez gain, seguru asko jasoko ditugula... Leire *fullkenpo* Espainiako txapel-duna da, eta, nire moduan, K-1 modalitatean jokatuko du bere pisuan".

Eskoriatzarren borroken ostean, Europa mailan gerria jokatuko dute profesionalak, eta borroka ederrak ikusteko aukera izango dute.

# LEINTZ GATZAGA | 23



Iaz, BTT martxako partaideak lasterketa hasi berritan. GOIENA

## Dena prest dago zapatuan izango den BTT martxarako

Hamaseigarren edizioa ekainean egitea erabaki dute antolatzaileek, Gatzagako jaietan egin beharrean

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Lasterketa aurretiko azken egunetan, bizikleta martxa pasako den bidea garbitzen aritu dira Dorletako Ama Txirrindulari Elkartekoak, Gatzaga City Krew Leintz Gatzagako gazte taldeko kideekin batera. Aurten, hamaseigarren edizioa izango da, eta gaur, ibilbidea markatzen dutenean, prest izango dute guztia biharko lasterketarako.

Aurreikuspenak betetzeko gogoz daudela adierazi du Ibai Agirreurretak, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko kideak: "Oraingoz, 40 parte-hartzailek eman dute izena Internet bidez, eta modu horretan izena emateko azken eguna gaur izango da, *Kirolprobak.com* webgunean. Horrez gain, egunean bertan ere, lasterketa aurretik aukera izango da izena emateko, eta horren esperantzarekin gaude; izan ere, halako lasterketetan,

azken unean izena ematen duten asko agertzen dira. Gure aurreikuspenen arabera, edo gustatuko litzaigukeena, parte-hartzea 80 lagunera iristea izango litzaieke. Horrez gainera, eguraldi ona eman dute, eta ea hala egiten duen".

## 09:30ean, frontoitik hasita

Dorletako Ama Txirrindulari Elkartek antolatutako BTT martxa zapatu honetan egingo da, 09:30ean, Gatzagako frontoitik hasita. Beste edizio guztietan, Gatzagako jaietan egin izan da, eta, antolaketa jende falta izaten dutenez, ekainean egitea erabaki dute, antolaketa lanak hobeto egiteko eta, bide batez, parte hartzea handiagoa izateko.

28,2 kilometroko bidea egin beharko dute bertaraten direnek, eta 1.128 metroko desnibel positiboa izango du lasterketarako.

## 'World Coffe' arrakastatsua

Pasa den egunean, Luis Ezeizako Herri eskolan, *World Coffe* ekimena egin zuen herri eskolako guraso talde batek, Huhezi fakultatekoekin batera, eskola komunitatearen partaidetza nola sustatu eztabaidatzeko.

Hainbat ideia interesgarri atera zituzten bilera hartatik eta oso balorazio positibo egin dute biek ala biek.



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

## Barrundiakoak Gatzagan

Barrundiako 31 ume izan ziren pasa den asteburuan Leintz Gatzagan. Zapatuan, Landatik oinez abiatu ziren, eta herrian jolasak eta pilotalekuan afaria egin ostean, kultura etxean gaua pasa, eta domekan bueltatu ziren, berriz ere oinez. *Oxigenoa euskarari* lelopean Barrundiako guraso elkarteak antolatutako ekimena izan zen.



IMANOL SORIANO



Agorrosingo kanpoko igerilekua txiki geratzen da udako egunik beroenetan; iaz hainbat kexa izan ziren. GOIENA

# Ur jolasen gunea, 2019ko udarako

Udan Agorrosingo kanpoko igerilekuetan izaten diren edukiera arazoei aurre egiteko, ur jolasen gune berri bat egokitu gura du Udal Gobernuak Agorrosin, eta, horretarako, iritzia eskatu die ume eta gaztetxoei udalekuetan; lanak udazkenean hastea espero dute

## Jokin Bereziartua BERGARA

Udako egunik beroenetan Agorrosingo kanpoko igerilekuetan izan diren edukiera arazoei aurre egin eta beste alternatiba batzuk eskaintzeko asmoz, ur jolasen gune berri bat egokitze-proiektuarekin lanean ari da Udala. Asteleheneko osoko bilkuran eman zen aditzera gune berri hori Agorrosingo eremuan bertan kokatuko dela eta Udal Gobernuaren asmoa dela 2019ko udarako martxan egotea.

Elena Lete alkateak adierazi zuen euren hasierako asmoa gune berria aurtengo udan martxan egotea zela: "2016an ideia lehiaketa bat abiatu genuen eta bertan konturatu ginen umeek eta gaztetxoei ur jolasak eskatzen zituztela nabarmen; ordutik hona ari gara lanean, eta, aurten obra izango ez badugu ere, proiektua aurten bukatuko dugu. Orain

bertan arazo tekniko batzuk konpontzen ari gara". Aurtengo udalekuetan ekintza berezi batzuk antolatuko dira proiektu honi begira. "Proiektua bera udalekuetako neska-mutikoekin osatu nahi dugu. Hau da, udalekuetako umeen iritzia aintzat hartuko dugu nolako ur jolasak jarri erabakitzeko", dio Letek. Udan esleituko da obra eta espero da urrian edo azaroan lanak martxan egotea. "Aurten ez, baina hurrengo urterako egongo da", esan zuen alkateak. Hurrengo egunetan emango dituzte proiektuaren gaineko zehaztasun gehiago.

**PROIEKTUA UDA HONETAN ESLEITU ETA UDAZKENEAN OBREKIN HASTEA AURREIKUSTEN DUTE**

## Oposizioa, "prozesutik kanpo"

EH Bilduk begi onez ikusten du ur jolasen aukera, baina "pena" hartu dute, diotenez, prozesuan parte hartzerik izan ez dutelako: "Aukera hori guk ere proposatu genuen, baina ez dakigu kokaleku egokiena Agorrosin den, ez dugulako espazioaren azterketaren prozesuan parte hartu. Ur jolasak aukera ona dira guretarako, baina pena da prozesuan parte hartzeko aukerarik ez izatea", zehaztu zuen EH Bilduko bozeramaile Agurte Berruso.

Irabazik uste du erabiltzaileak "oso haserre" daudela gaiarekin eta irtenbidea ez dela partxeak jartzea. "Udaletxe barruan gai deserosoa da, igartzen da zama bat dagoela. Irabazitik diagnosi bat eskatzen dugu eta foro bat zabaltzea ze irtenbide posible dauden ikusteko", eskatu zuen Aiert Lizarralde.



## Herrirako turismoa bailaratik bultzatzea

Udalak eta Mankomunitateak turismoa sustatzeko hitzarmen bat sinatzea onartu zen, bi urterako. Muina da, Elena Leteren arabera, turismo eskaintza udalerritik bakarrik sustatu beharrean eskualde mailako bultzada ematea: "Proiektu pilotu moduan planteatu dugu eta bi urte barru baloratuko dugu. Turismoa Bergaran bakarrik lantzeak ez du etekinik ematen; badakigu beste eskualde batzuetan formula hau arrakastatsua dela". EH Bilduk kontra bozkatu zuen: "Udalak turismoa sustatu nahi badu, turismo teknikari bat kontratatu beharko luke. Hitzarmen honen bidez gobernuak turismo langile barik utzi du Udala; egin den bakarra da Mankomunitatea azpikontratatu, eta horri proiektu pilotu deitu diote. Bergararen turismoaren aldeko apustua ahultzea ekarriko du". Irabazik ere kontra bozkatu zuen; Bergarako Udalean bertan teknikari bat izatearen aldekoak dira.

## Jai egitarauan meza iragartzearen kritika

Irabazik salatu zuen Pentekosteetako egitarauan meza iragarri izana eta gogora ekarri zuen udalbatzak aho batez onartu zuela Udalaren izaera laiko defenatzen duen mozioa. Alkateak, bere alderdia laiko dela esateaz gain, nabarmendu zuen herriko eragile garrantzitsuetako bat den San Joxepe elkartearen eskaerari kasu eginez sartu zutela meza nagusia egitarauan, baina ez dutela inongo arazorik gaiarekin: "Nabarmendu beharrekoa dena da jaiak oso ondo joan zirela". EH Bilduk azaldu zuen eurak gobernuan egon diren azken bi agintaldietan meza programatik kanpo geratu dela: "San Pedroko elizak antolatuta izan zuen elizkizuna, baina Udalak ez zuen bat egiten". Irabaziko Aiert Lizarralderen ustez, Udal Gobernuak bi alderdiak katolikoak dira: "Gobernuan dauden bitartean halako ekintzak bultzatuko dituzte".

## Arreta bulego berria, aho batez

Aho batez onartu ziren Herri-tarren Arreta Zerbitzua modu bateratua eskainiko duen bulegorako arauen ordenantza. 2019ko martxorako edo apirilera martxan izatea espero da. "Eskuliburua adostu genuen, gaur [astelehenean] ordenantza aho batez onartu dugu -eta garrantzitsua da aho batez onartu izana- eta hurrengo urratsa izango da langileen formakuntza eta bulegoaren kokapena zehaztea. Arreta bikaina eskaintzea da helburua", esan du alkateak.

## Mahai sektorialak sortzea

Era berean, EH Bilduk eta Irabazik mahai sektorialak sortzea eskatu dute modu ofizialean, Gobernuaren "iniziatibarik eza-gatik". Lau mahai "ahalik eta epe laburrean" sortzea eskatu dute: jasagarritasuna, etorkizun sozioekonomikoa, gizarte zerbitzuen garapena eta herri antolamendurako mahaia. Bi alderdiek askotan salatu izan dute batzordeak "tramite hutsa" direla eta gaur egun Udalean ez dagoela aukerarik gaiak "modu serioan" lantzeko.



# Oreka ariketak egiteko parkea, gazteen eskariz

Gorputzaren pisuarekin eta orekarekin jokatura altuera baten ariketa fisikoak egiteko kalistenia parke bat jarriko dute hilerriaren eta Ipintzaren artean, eta martxan egongo da ekaina amaitu aurretik; gazte talde batek eskatuta erabaki du Udalak parke hori jartzea

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Hasi dira Boni Laskurainen, kanposantuaren eta Ipintza instituko patioaren artean, kalistenia parke bat egiteko lanak. Zer den kalistenia? Bada, gorputzaren pisuarekin eta orekarekin jokatura, altueran ariketa fisikoak egitea. Etimologikoki latineko *kallos* (edertasuna) eta *sthenos* (indarra) berbetatik dator; parkour antzeko modalitate bat da, baina horretarako propio jarritako barrekin eta plataformekin.

**Ekaina amaitu aurretik martxan**

Duela urte eta erdi gazte talde batek Udalera jo zuen halako parke bat jartzeko eskatuz, eta hainbat sinadura batu zituzten. Udaleko ordezkariak eta gazteek hiru bilera egin dituzte parkearen zehaztasunak eta kokapena zehazteko, eta tarte horretan beste gazte talde batek antzeko eskaera egin du. Hala, bi gazte taldeekin batera definitu da behin betiko proiektua eta kokapena.

Sasoi Eraikuntzak enpresak asteon hasi ditu lanak eta obra zibilaren ardura izango du. Bestalde, Deportes Urbanos enpresari erosi zaio parkea bera eta esleitu zaio instalazioa. Guztira, 15.000 euro inguruko aurrekontua izango du proiektuak. Esandako moduan, Boni Las-



Hilerriaren eta Ipintzako patioaren artean egingo da parke berria, Boni Laskurainen. B.U.

kuraingo hilerriaren eta Ipintzako patioaren artean egingo dute kalistenia parke berria, bidegorri ondoan. Udalak zehaztu duenez, parkea ekaina bukatu aurretik erabiltzeko moduan egongo da.

**Errekalde jauregiko lorategia**

Bestalde, ekainean hastekoak dira ere Errekalde jauregiko lorategia eta azpiegitura berrantolatze lanak. Aurrekontua oso handia denez Udalak erabaki du obra faseka egin eta lorategiarekin hastea. Berrantola-

tzerakoan ez da landarerik aldatuko eta lorategiaren izaera eta egitura originala bermatuko dira. Lorategiaren ardatz nagusia eta bide sarea osotasunean berreskuratuko da, bai oinezkoena eta baita ibilgailuena ere; arrapalak arinduko dira; euri urak jasoko dira; ureztatze sistema berria egingo da eta argiteriaren azpiegitura berria exekutatu da, besteak beste. Obra Artzamendi enpresari esleitu zaio, 142.520 eurotan –BEZa barne– eta aurreikusten da lanek lau hilabete irautea.



NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO

## Badator Euskaraldia!

Ekimen honetako protagonistak euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira, eta hamaika egunetan zehar, eguneroko harreman sareetan euskaraz aritzera gonbidatuko zaie, inertiak apurtu eta euskarazko hizkuntza praktikak bultzatzeko. Baina... zer da Euskaraldia? Helburu nagusia herritar euskaltzaleak aktibatuz hizkuntza ohiturak aldatzea da, euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea eta euren harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 16 urtetik gorako herritarrak *Ahobizi* eta *Belarriprest* bihurtuko dira. *Ahobizi*-ak ulertzen dutenei euskaraz hitz egiten dietenak izango dira –baita ezezagunei lehen hitza euskaraz egingo dietenak ere–. *Belarriprest*-ak, berriz, euskara ulertzen dutenak izango dira, gainerakoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatuko dietenak. Euskal Herri osorako ekimena izan arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herriko dinamika sustatzeaz eta tokiko inguru soziolinguistikora moldatzeaz arduratuko direnak. Guri ere badagokigu martxan jartzea, eta hasiak gara ekintzak antolatzen!

## Pentekosten gaineko inkesta betetzeko eskatu zaie herritarrei

Udalak jaien balorazioa egiteko galdetegia sortu du eta herritarrei gonbidapena egin die betetzeko. Galdetegia *online* dago udal webgunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)), eta, horrez gain, inprimakiak fisiko ki bete daitezke udaletxean, Agorrosinen edota Udal Bibliotekan. Azken eguna ekainaren 10a da. Bestalde, Udalak barkamenak eskatu nahi dizkie etxean jaien programa jaso ez zutenei; zergatia argitzen dihardute. Gaineratu dutenez, Gatibu taldearekin harremanetan jarri ostean, argituta gelditu da jaietako zuzenekoan ez zela inongo *playback*-ik izan; alegia, poltsikoko telefonoko soinuaren eta irudien arteko desfasea gertatu zen.

## Azoka solidarioa egingo dugu, lehen aldiz, ekainaren 9an

**Goiena komunitatea**

Mariaren Lagundia Ikastola / BERGARA

Ekainaren 9an egingo dugun urteroko jaiaz gain, lehen aldiz Azoka solidarioa egingo dugu. Euskal Herriko 13 Gobernuz Kanpoko Erakunde izango ditugu. Batzuek euren lana ezagutzera emango dute; beste batzuek zenbait produktu salduko dituzte euren proiektuetara bideratzeko, edota tailer ezberdinak eskainiko dituzte. Horien artean, Mariaren Lagundiko FISC erakundea ere egongo da, eta ikasle batzuek postua jarriko dute. Azoka Espoioian izango da, 10:00etatik 14:00etara, herri osora irekia. Eurria bada, ikastolako goiko gimnasioan egingo gara. Animatu!



FORD TRANSIT CAMPER  
ABENTURA HASI DA

Azokan 11.000€-rainoko deskontua

[www.mugarri.eus](http://www.mugarri.eus)

**MUGARRI**

Debagoieneko kontzesionario espezializatua

FORD TRANSIT CAMPER GAMA BERRIA. KONTSUMO MISTOA: 6,1-7,2 L/100 KM. KONTSUMO GIDATZEKO ERAK BALDINTZATZEN DU. CO2 IKORPENAK: 156-188 G/KM; INDARRIEN DAJEN ARALUEN ARABERAKO NEURRIAK, BAINA EGOERA ERREALETAN ALDATU EGIN DAITEZKE.

Tel.: 943 790744 • San Andres auzoa - Arrasate



Giza kateko 69. eta 70. kilometroak betetzeko 1.000 bergarar behar dituzte; goiko argazkian, Bergarako tartearen plano. GED

# Giza katearen Bergarako tartea osatzeko esprinta

Ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dituen giza kateko ordezkariak bergararra Eibar eta Maltzaga artean elkartuko da, 69. eta 70. kilometroetan; 1.000 herritar behar dituzte bi kilometrook osatzeko eta oraingoz 600 bat lagun saretu dituzte

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Eman eskua etorkiZUnari.* Horixe da Gure Esku Dagok ekainaren 10erako antolatu duen giza katera begirako leloa. Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko ditu 201,9 kilometroko giza kate horrek eta 12:00etatik 12:30era iraungo du. Hori bai, 11:00etarako nor bere lekuan egon behar da. Bergarari Eibar eta Maltzaga arteko 69. eta 70. kilometroak betetzea dagokio.

Astebete pasatxo falta da "etorkizuna irabazteko" asmoz antolatu den giza katerako eta Bergaran ere erlojuaren kontra ari dira lanean. 2014tik Bergarako Gure Esku Dago lantaldeko kide den Aitor Erañak nabarmendu

duenez, herritarren aktibazioa ezinbestekoa izango da erabakitzeko eskubidea gauzatu dadin.

## "Gazteen falta sumatu dugu"

Erañak dio pasatu berri diren Pentekoste jaiek eragin zuzena izan dutela izen-ematean: "Jende gaztearen falta sumatzen dugu bereziki; jaiak eta azterketak direla-eta nahiko erlaxatuta dabiltzala dirudi... Hala ere, espero dugu azken orduan helburuak beteko ditugula; duela lau urte ere jaietan tokatu zitzaigun giza katea eta gogoan dut 1.000 pertsona lortzea zela helburua eta 1.600 lagun batu zirela. Horietako asko eta asko azken astean batu ziren eta uste

dugu aurten ere antzeko zerbait gertatuko dela. Halaxe espero dugu, behintzat".

Duela lau urteko giza katean "ilusio berezi bat" zegoela aitortu du Erañak, baina argi dauka mugitzen jarraitu beharra dagoela. "2014koa lehen giza katea zen, zerbait berria, eta oraingoa bigarrena da. Gainera, Katalunian gertatu dena ikusita batzuei ilusio hori apaltzen joan zaie. Guk esaten duguna da zerbait lortzeko mugitu egin behar dela. Mugimendu feministaren eta erretiratu zein pentsionisten borroka ikusi besterik ez dago; mugitu direnean hasi dira politikariak ere mugitzen, pixkanaka izan arren".

## Leizeagako Eroski izango da topalekua

Eibar eta Maltzaga arteko bi kilometro betetzea da Bergararen erronka. 1.000 bergarar batu behar dira, eta 600 lagundik gora direnez, oraingoz, kilometro bakarra bete dute; horregatik dei berezia egin diete bergararrei giza katera "lehenbailehen" batu daitezen eta dagokien metroa erosi dezaten. Eguenean, 18:30etik 20:30era, Irala kalean -Peñalba ondoan- jarriko dute mahaia, eta

zapatuan, leku berean, 11:30etik 14:00etara egongo dira. Behin metroa erositako, autobusean joateko txartelak Pol-Pol tabernan erosi ahaliko dira ekainaren 8ra arte. Oinez joan gura dutenak 08:30ean irtengo dira Bergaratik, bizikletan joango direnak 09:00etan eta autobusak 09:30etan eta 10:00etan. 11:00etarako nork bere lekuan egon behar du. Gainera, jakinarazi

dute autoendako aparkaleku bakarra Eibarko Asitain industrialdea izango dela. "Guk autobusean joateko dei egingen dugu. Leizeagako Eroskitik irtengo gara denok, oinez, bizikletaz edo autobusez izan. Leizeagako Eroski izango da guztiondako topalekua". Bestalde, giza katearen osteko ospakizunik ez da faltako; izan ere, Eibarren bertan arratsalde osorako plana zehaztu dute: elektro-bxaranga, bazkaria, zuzeneko kontzertuak...

## GORA ETA BEHERA



JOKIN BEREZIARTUA

## Autoak espaloira "aldi oro" igotzeaz nazkatuta



Bidekurutzetan, Leturia harategiaren eta Cafe Bergara-ren artean, autoak espaloira "aldi oro" igotzeaz "askotan" kezatu den bizilagun batek sinadura bilketa abiatzeko batzarra deitu zuen eguaztenerako.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## GIMNASIA ERRITMIKOKO UDALEKU IREKIAK ARIZNOA ERRITMIKA ELKARTEAK ANTOLATUTA

**NON:** Labegaraleta kiroldegian

**NOIZ:** Uztailaren 2tik 27ra, 10:00-13:00  
Asteartetan, asteazkenetan eta ostegunetan.



**IZEN EMATEA:**  
Izena eman, informazio gehigarria jaso eta baldintza orokorrak ezagutzeko, idatzi [ariznoa\\_ge@hotmail.com](mailto:ariznoa_ge@hotmail.com) helbidera. Epea: ekainak 15.





Burdinola Irristaketa Kluba izango da bihar Labegariaeta kiroldegian jokatu den hiruko txapelketako taldeetako bat. BURDINOLA

## Euskadiko hockey onena Bergara Hiria txapelketan

Bergara Hiria hiruko hockey txapelketa jokatu da bihar Labegarietan Bergarako Burdinola, Arabako Dragons eta Bizkaiko Metropolitano taldeen artean (15:00), eta etzirako jaialdia antolatu dute: "Gero eta neska gehiago daude, eta oso gustura dabilta"

### Jokin Bereziartua BERGARA

Euskadiko hockey talde onenak elkartuko dira bihar, ekainak 2, Labegariaeta kiroldegian. Bergarako Burdinola irristaketa kluba, Arabako Rivabellosa herriko Dragons taldea eta Bilboko Metropolitano taldea. Aurten Bergarak hiri-gutuna jaso zutenetik 750 urte bete direla gogoratze ekitaldien barruan kokatzen da; herriko hainbat kirol elkartek emakumeen kirola bultzatzeko txapelketak antolatzeko konpromisoa hartu dute eta Burdinola kluba izan da horietako bat. Hortaz, biharkoa Bergara Hiria hockey txapelketaren lehen edizioa izango da.

### Bihar txapelketa, etzi jaialdia

Emakumezko hockeyaren festan, 15:00etan Dragons eta Burdinola lehiatuko dira, 16:30ean Burdinola eta Metropolitano eta 18:00etan Metropolitano eta Dragons. Hirurek trofeoa eta 750. urteurreneko poltsa eramango dute. Domekarako, aste-

burua borobiltzeko, hiruko txapelketa antolatu du Burdinolak. Zabalik dago edozeinentzat eta benjamin, alebin, infantil, kadete eta senior mailetako partiduak jokatu dira. Taldeka apuntatu daiteke edo bakarka, eta egunean bertan joanda ere taldeak osatu dira. Trofeoak eta kamisetak banatu dira.

### Burdinola, Gipuzkoako bakarra

Burdinola da emakumezko hockey taldea daukan Gipuzkoako klub bakarra. Senior mailako taldea; eta kadete, infantil, alebin eta benjamin mailako talde bana dauzka, baita amateur mailako hobby hockey aukera ere. Guztira, 55 umerekin ari dira lanean; gehienak bergararrak, baina badira arrasatearrak, aramaioarrak, oñatiarrak eta Soraluzekoak ere. Burdinolako arduradun Agustin Oianguren onartu du Euskal Herrian ez dagoela Estatuko beste leku batzuetan –Madril eta Bartzelona, kasu– dagoen besteko maila, eta honela azaldu

du zergatia: "Euskal Herrian irteten dira jokalaririk onak, baina berehala Madrilera edo Bartzelonara joaten dira maila hobea dagoelako". Hala ere, pozik dago gero eta neska gehiago ari direlako batzen hockeyra: "Mutilak, oro har, beste kirol batzuei dautu begira. Neska gehiago ari dira animatzen eta gehienak oso gustura dabilta".



BERGARA IGERI ELKARTEA

## 25 kilometro eta erdi igerian

Bergara Igeri Elkarteko entrenatzaile Xabi Labakak –argazkian, erdian– hirugarren egin zuen zapatuan Ultraswim 2018 zeharkaldian. Eivissako Santa Eulalia herriko Tagomago uharterainoko 25,5 kilometroak egin zituen (6.45.53). Labaka espezialista da horren luzeak eta gogorrak diren zeharkaldietan; 19 igerilari irten ziren eta hamalauk bukatu zuten proba.

## Ander Caparen futbol campusean izena eman daiteke oraindik

Hasierako 60 plazak bi egunetan amaitu ostean, Ipintza ere hartuko du; izena lehenbailehen ematea komeni da

### J.B. BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak Sportmadness enpresarekin eta azken zazpi denboraldietan Eibarko jokalaririk izan den Ander Caparekin batera antolatutako udako futbol campuserako 60 plazak bi egunetan amaitu ziren. Ekainaren 25etik 29ra izango da, 8 eta 14 urte arteko neska-mutikoendako. Hala, BKEk Udalarekin adostu du Ipintza ere campuserako erabiltzea lau egun horietan, plazak bikoiztuz. Izenematea zabalik dago, baina lekua mugatua da: <http://sport-madness.com/capakanpusa>. Prezioa 89 euro da –84 euro, klubeko jokalarientzat– eta partaideek campuseko ekipamendu ofiziala jasoko dute.

com/capakanpusa. Prezioa 89 euro da –84 euro, klubeko jokalarientzat– eta partaideek campuseko ekipamendu ofiziala jasoko dute.

### Aspanogirendako 10.000 euro

BKEk Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarteko ikerketaren alde 10.000 euro lortzeko erronka du –txartelak salgai daude herriko zenbait taberna eta komertzioetan– eta Mahonero Egunean, ekainaren 23an, egingo da zozketa Seminarioan, 17:00etan.

# Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enjimerak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

# disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

# Techno eszenako izen handiak BET jaialdian

Bergarako Elektronika Topaketa egingo dute, laugarren urtez. Bihar, zapatua, izango da topaketa: 17:00etan hasiko dira giroa berotzen eta 18:00etan ateak itxiko dituzte. 5 euroren truke elektronika munduko zortzi artista entzuteko aukera dago

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Laugarren urtez elektronika topaketa egingo dute gaztetxean. Euskal Herriko eta Espainiako DJ onenak batu dituzte BET jaialdian. Saioa 17:00etan hasiko da. "BETeko DJ bat egongo da lehen orduan, eta ondoren ateak itxiko ditugu", azaldu du antolakuntza taldeko Kepa Zabaletak. 18:00etatik aurrera sarrera 5 euro ordaindu beharko da. "13 orduz musikaz gozatzeko" aukera egongo dela aurreratu du.

**Nabarmentzeko zuzenekoak**

Zabaletak gaineratu du Mursego eibartarren zuzenekoak izango dela nabarmentzeko moduko emanaldia: "Urteak daramatzagu haren atzetik". Horrez gain, DJ Muerto eta DJ Koldo ere nabarmendu ditu, urteak daramatzate eta "musika jartzen". "Techno eszenako izen potoloak dira, goi mailakoak, nahiz eta beti ezkutuan ibili diren", azaldu du. Horren harira dio helbu-



Gaztetxean jendea elektronika topaketan. YON GARAIZABAL

rua izaten dela *underground* eszenako DJak bilatzea.

Aitor Maiorak gaineratu du saiatzen direla dantzarako barririk diren emanaldiak ez eskaintzen: "Kostatzen da beste era bateko elektronika bilatzea,

baina elektronika entzuteko ere bada, saiatzen gara eserita entzuteko DJak ekartzen".

**Elektronikaren egoera**

Musika elektronikoaren gainean galdetuta, Zabaletak dio gaur

egun Donostian eta Bilbon aukera zabala dagoela, baina guztiak *club* zehatzetara mugatuta daudela. "Beste herrialde batzuekin alderatuta, hemengo egoera ahula da", azaldu du Zabaletak.

Iaz 230 lagun inguru elkartu ziren BET jaialdian; kopuru polita, antolatzaileen esanetan. "Jende asko azkeneko orduan etortzen da, tabernak ixten di-

tuztenean", diote. Egun polita izaten dela gaineratu dute eta guztiek dantzan bukatzen dutela. Hori horrela, hurrengo urteetan topaketak jarraipena izango duela azaldu dute.

Orain arte bi gune bereizi izan dituzte: barnealdea eta kanpoko terraza. Bada, eguraldi txarra iragarri dutenez, bihar terraza itxita egongo da. Hala ere, dena prestu dute topaketaz gozatzeko.

## Agertokian izango direnak

**Acid Fortwins (Donibane Lohizune)**

- Peio Erramouspe eta Martin Grasset. Azid eta punkaren mugak irekitzen dituen esperimentazioa.

**DJ Baleaonda (Donibane Lohizune)**

- Moi Moi kolektiboko eta Baleapop jaialdiko aktibistak.

**DJ Koldo eta B2B DJ Muerto (Donostia-Madril)**

- Koldo technoari lotu izan da beti; DJ Muerto 80ko hamarkadan.

**DJ Mancini (Donostia)**

- Arriskatzeko beldur barik, hainbat generotan eroso sentitzen da.

**DJ Mazmorra (Bilbo)**

- Espero daitekeenetik aldentzen da Mazmorra taldearen musika.

**Gela (Madril)**

- Soinu organiko eta analogikoen arteko sinergiak bilatzen ditu.

**Mursego (Eibar)**

- Abangoardia, folklorea eta musika klasikoa hibridatu nahian.

**Olor (Ermua)**

- 80ko hamarkadako synth pop eta oihartzun industrialak.



GOIENA

## Banatu dituzte literatura sariak

Banatu dituzte Koldo Eleizalde lehiaketako sariak. Aurten, literatura inoiz baino eskurago eta bisualago izan dute. 650 lan baino gehiago aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara. Epaimahaia pozik azaldu da; izan ere, lehiaketaren helburua askotariko literatura

esparruak herritarrei —bereziki, gaztetxoei— gerturatzea da. Sari banaketa ekitaldia Seminarixoan egin zuten eta literaturaren festa inoiz baino bisualagoa eta gertukoagoa izatea lortu zuten. Amaieran, saridunek familia argazkia atera zuten.

## Udaberriko jai kontzertua egingo du Musika Eskolak

Musika Eskolak antolatuta, askotariko ekitaldiak egingo dituzte bihar, zapatua. Udaberriko jai kontzertua izango da. 19:00etan emanaldia eskainiko dute pilotalekuan. Sarrerak Musika Eskolako idazkaritzan eros daitezke, eta egunean bertan leihatila zabalduko dute ordu-bete lehenago. Prezioa da: helbuek 4 euro eta 12 urtetik beherakoak 2 euro. Ondoren, afaria egingo dute ikasleek, irakasleek eta gurasoek Seminarioko karpian. 21:45ean, musika taldeen II. lehiaketa egingo dute. Talde bakoitzak hamar minutu izango ditu jotzeko. Sariak izango dira: lehenengorendako 200 euro eta bigarrenarendako 100 euro.

## Beart eguna ospatzeko artelanak ikusgai jarriko dituzte plazan

Beart elkartearen artisten lanak kalean ikusteko aukera egongo da domekan. Beart eguna ospatuko dute etzi, domeka. San Martin plazan jarriko dituzte artelanak, herritarrek bertatik bertara ikus dezaten elkartearen egiten den lana. Erakusketaren ordutegia 12:00etatik 14:30era izango da.

Elkartearen lanean diharduten 25 artistaren lanak erakutsiko dituzte. Gainera, teknika ezberdinekin egindako artelanak egongo dira. Modu horretan, artearen inguruan lantzen diren teknikak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek, eta herrian nolako maila dagoen ikusiko dute.



# Lanbide Heziketa 2018-19

- . Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonai Arrerata Egiteko Teknikaria
- . Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikaria



**Aurrematrikula**

**Ezainaren 4tik  
ezainaren 15era arte**



1.524.312 Atsegin dut

Espoloia Kalea, 1 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

Tel. 943 76 25 40

[www.mlagundia.net](http://www.mlagundia.net)





Pikunieta baserrian, Josebe Blanco eta Etxaldeko Emakuneak taldeko kideak. ETXALDEKO EMAKUMEAK

## Komunitate oso bat indartzeko urratsak

Agroekologia, pixkanaka, komunitate askoren ardatz bilakatzen ari da. Bizitzeko modu bat da eta oinarri gertutasuna, bertakotasuna eta etxaldearen autonomia du. Horretaz guztiorretaz eztabaidatzeko aukera izango da ekainaren 5ean Orlanen, 18:30ean

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Pikunieta eta Irala-Torre etxaldeen bat egiten dute agroekologiaren filosofiarekin. Baserri txiki ekologikoak, herriarrak eta elkarteak oinarri dituen EH Kolektiboko kideak dira. "Europako Batzordeak geroz eta lege malguagoak jartzen ditu ekologikoa denaren inguruan; zorrotasuna galtzen ari da. Ekoizpen ekologikoa izan dezakezu pentsu, belar ekologikoa eta gutxieneko espazioa ematen badiozu soilik. Baina Europak araudi hori hobetzeko modua bazegoela uste genuen. Kolektiboko etxaldeen arau horiek betetzen ditugu, baina gure buruari neurri gehiago jarri dizkiogu", azaldu du Pikunieta Josebe Blanco artzainak.

Hala, elkar lotuta dauden lau oinarri dituzte kolektiboko etxaldeen: gertutasuna, bertakotasuna, baserriaren autonomia eta neurriko etxaldea izatea. "Ez dugu saltzen banatzaileen artean, zuzenean saltzen diogu kontsu-

mitzaileari. Gertutasuna daukagu behar ditugunak hartzeko orduan; ez du zentzurik arto transgeniko ekologikoa Brasildik ekartzeak, adibidez. "Gure baserriak etorkizuna izateko autonomia izan beharra dauka. Ahalik eta gutxienez kanpoan erosi eta menpekotasuna saihestu gura dugu. Eta, azkenik, esan, pertsonen neurriko etxaldea sustatzen ditugula. Gobernatzeko gai garen ardi kopurua daukagu. Baserriak bertan daudenen neurriko lana izan behar du; zentzugabea da 500 ardi izatea etxalde txiki batean".

Horrek, noski, lan baldintza duinak izatea ere badakarrela azaldu du. Horrek guztiorrek dimentsio soziopolitikoa, eko-

**"EKOLOGIKOA IZAN DADIN, BASERRIAK BERTAN DAUDENEN NEURRIKO LANA IZAN BEHAR DU"**

nomikoa eta kulturala ere badakarrela azpimarratu du: "Bertako arraza, ekoizpena... bertako kontsumoa sustatzea dakar".

Gakoetako bat da komunitatea indartzea: "Baserritarren funtzioa komunitateari kalitatezko jakiak ematea da; hobe baserri txiki pila bat izatea, handi bakar bat edukitzea baino".

### Emakumea eta artzaina

Ardiak gobernatzea emakumeen lana izan dela beti azaldu du: "EH Kolektiboan, lantaldeak jarduten dugu eta konpromisoak hartzen ditugu hausnarketak eginez. Hala, iaz, adin arte zabaleko emakume artzain mordoak batu ginen. Izan ere, beti lotzen gaituzte senar baten alboan; jendea ez zaio okurrizten autonomoak gaituzte eta traktore bat gidatzeko gai gaituzte. Aldaketa, baina, nekazaritzan mekanizazioa sartu zenean gertatu zen, eta, orduan, emakumeen lana estali egin zen, makinak gizonaren esparrua ziren eta".

### Giza katean parte hartzeko 226 lagun saretu dira, oraingoz

Antzuola eta Elgeta artean ekainaren 10ean egingo den giza kateko kilometro bat osatuko dute. Eta kilometro hori 500 herritarrek beteiko dute. "Elgetatik 200 saretu eta Antzuolatik 300 behar ditugu; horrela adostu dugu eta", argitu du Gure Esku Dago taldeko Jabi Etxanizek. Antzuolak, oraingoz, 226 saretu ditu eta 160 lagunek eman

dute izena autobusean joateko. "Jendea azken unean animatzen hasi da eta autobusean badago lekua. Saretzeko aukera izango dute herritarrek asteburuan Zurrategiko zubian jarriko dugun postuan", gaineratu du.

Antzuolatik bi autobus irten go dira 09:00etan eta beste bi 10:00etan. Elgoibarko sarreran izango dute antzuolarrek giza katearen kilometroa. Bueltarako autobusa, aldiz, 13:00etan eta 14:00etan izango da. Bi autobus ibiliko dira joan-etorriak egiten.

### Auzolanerako deia biharko

Bihar, Lizarragako auzotarrek auzolana egingo dute. Hala, Arrolatik dei berezia egin dute Larrebarrengo iturria konpontzera joateko. "Olaranen 09:00etan elkartuko gara Lizarragara joateko. Han, galtzeko arriskuan dagoen Larrebarrengo iturria konponduko dugu. Eta bertatik, bihar egingo den Garitanoren erronka ikusteko aukera ere izango dugu".



ARROLA

### Ikasturtearen balantzea egingo du EH Bilduk

Ekitaldi irekia antolatuko du EH Bilduk ekainaren 14rako Zurrategin, 18:30ean. Ekitaldian, ikasturtearen balantzea egingo dute eta datorren urterako lanketa proposamenak aztertuko dituzte. Larraitz Ugarte legebiltzar-kidea izango da bertan, eta Legebiltzarreko autogobernu porentziaz eta beste hainbat kontuz hitz egingo du oñatiarrak.

### Bakea eta elkarbizitzarako urratsak berbagai

EAJk antolatua, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusi Jonan Fernandezek solasaldia eskainiko du. Ekainaren 14an, eguena, Orlanen etxean, 19:00etan eskainiko du berbaldea. Hitzaldiaren izena *Bakea eta Elkarbizitzarako urratsak* izango da. Hain zuzen, bake bideaz eta elkarbizitzarako egin beharreko urratsez jardungo du.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34



Iaz, Ondarreko ginkanako parte-hartzaileak. JOSEBA LEZETA

# Txirrindularitzari leku eginez gaztetxoek artean

Aiastui txirrindulari taldeak ia lau hamarkada daramatza lasterketak, igoerak eta ginkanak antolatzen. Herriko neska-mutikoei txirrindularitzarako aukera bat ematea du helburu; denboraldiari hasiera lralako kronoigoerak emango dio, zapatuan

## Maidar Arregi ANTZUOLA

35-40 urte inguru dihardu Aiastui taldeak txirrindularitzarekin lotuta igoerak, *challenge*-ak eta ginkanak antolatzen auzoz auzo. "San Martzialgo igoera egiten hasi ginen. Eta ondoren pentsatu genuen zabaltzen joatea. Igoeren ostean etorri dira ginkanak", argitu du Aiastui taldeko Joseba Lezeta antzuolarrak.

Txirrindularitza Antzuolako herrian errotuta egon den kirola dela azpimarratu gura izan du Lezetak: "Betidanik izan da herrian txirrindularitzarekiko zaletasuna. Herriatik irten diren txirrindulari guztiak, gainera, proba hauetan ibiliak dira. Gero, Lokatza taldera ere joan dira herriko gaztetxo asko, zaletasunari jarraipena emanez. Helburua kirol hau promozionatzea eta neska-mutikoei aukera ematea da, zalantza gabe".

Aiastui elkarteak osasuntsu jarraitzen duela kontatu du: "Uzarragako igoerak eta Antzuolako jaietako txirrindularitza

lasterketak ematen dute lanik handiena, eta hor behar izaten da, batez ere, laguntza gehiena. Bestela, auzoetan antolatzen ditugun igoeretarako eta ginkanetarako oso ondo moldatzen gara".

## Lehena, lralakoa

"Hasieran, Uzarragako San Juan jaiak indartzeko asmoz, igoera

antolatu genuen; baita Ondarren ere. Baina, gerora, jaiak desgertzen joan dira eta aurrera egitea erabaki dugu", kontatu du. Hala, denboraldiko lehena bihar izango da: lralako kronoigoera. Herriko Plazatik 10:30ean abiatuko da. "Dagoeneko eskolan gaztetxoek izena eman dute, baina gura duenak zapatu goizean bertan ere eman dezake izena".

## Proben 2018ko egutegia

Hauxe Aiastui txirrindulari elkartearen aurtengo denboraldiko egutegia:

### Kronoigoerak, ginkanak eta igoerak:

- **Iralako kronoigoera:** Ekainaren 2an, zapatuan, 10:30ean, Herriko Plazatik abiatuta.
- **Ondarreko ginkana:** Ekainaren 9an, zapatuan, 12:00etan.
- **Uzarragako igoera:** Ekainaren 16an, zapatuan, 12:00etan.
- **Kalebarrengo ginkana:** Ekainaren 23an, zapatuan, 12:00etan.
- **San Martzialgo igoera:** Uztailaren 1ean, domekan, 11:30ean.



Logo lehiaketa irabazi duen lana. ION LIZARAZU

## Landatxopek aniztasuna islatzen duen logoa dauka

Ion Lizarazu antzuolarraren logo koloretsua da Landatxopek lehiaketa bidez aukeratu duena

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Logo koloretsua egin gura izan duela kontatu du Ion Lizarazuk: "Kolorea sartu gura izan dut; koloretsua izatea, Landatxope elkarte Antzuolan oso presente dagoelako eta martxa handia hartu duelako. Beti modu alai eta oso umoretsuan azalitzen dira; eurak dira lehenak moztrotzen, esaterako. Modu aktiboan jarduten dute herrian, eta, gainera, aniztasuna ikus daiteke elkartean. Hau da, askotariko herritarrak elkartzen dira". Koloretan eta zuri-beltzean aurkeztu du logoa.

"Nahiz eta Landatxope izena eta elkarte bera oso ezagunak izan herrian, elkarte irudi batekin lotzea ere garrantzitsua da; batez ere, kanpora begira", azaldu du.

### Bizitasuna eta aniztasuna

"Logoaren koloreek bizitasuna ematen dute; gu ere elkarte bizi izateko ahaleginetan ari gara. Aniztasuna ere adierazten du; gu elkarte anitza gara: adinean, ohituretan, bizimoduan... eta aniztasun hori ona dela uste dugu", argitu du Landatxopeko idazkari Pilar Etxanizek.



IMANOL SORIANO

## Irrati-kontrol autoen festa

Domekan, ekainak 3, irrati-kontrol autoen erakustaldia egingo dute Beheko auzoko gune beltzean. Egun osoko festa izango da, 10:00etatik 19:00etara bitartean. "Helburuetako bat da kirol hau jendeari ezagutzera ematea eta haurrentako jolas soil bat ez dela erakustea, hain zuzen ere", argitu du Daniel Pedraza antolatzaileak.



Elgetako Euskaraldia batzordea sortzeko astelehenean egindako deialdian elkartutako taldea. L.Z.

## Martxan da Elgetako Euskaraldia batzordea

Elgetako hamaikakoa osatzea da lantaldeak hartu duen lehenengo konpromisoa, eta horretan dihardute; izan ere, ekainaren 19rako iragarri dute herrian Euskaraldiari hasiera emango dion ekitaldia. Batzordea bi aste barru elkartuko da berriz

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Astelehenean egin zuten Euskaraldia batzordea eratzeke batzar irekia, Elgetan. Hamar bat lagun elkartu ziren Ozkarbi elkarte; tartean ziren Iraitz Lazkano alkatea, Euskara zinegotzi Janire Lazkano, Gizarte-Ongizate zinegotzi Mirari Larrañaga, Gu Geu Elgetako hautetsi Iratxe Bravo, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Nerea Villa, Kantsatzeke Mendi Taldeko Enrike Gorrotxategi eta Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko Ainara Iribar, Iban Arantzabal eta Oxel Erostarbe.

Hizkuntza ohituretan eragiteko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herri mailan egingo den ariketa sozial erraldoia da Euskaraldia, eta elgetarrei ariketa horretan parte hartzeko dei egingo zaie. Euskaraldia ez da soilik euskararekiko aldeotasuna adierazteko ekimena. Konpromiso zehatz bat eskatzen du: hamaika egunez *ahobizi* edo *belarriprest* izatea.

"Batzorde honen lana hemendik aurrera Euskaraldia zer den eta *ahobizi* eta *belarriprest* figurak zer diren herritarrei ondo azaltzea izango da", adierazi du Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko presidente Ainara Iribarrek.

Egindako neurketek erakusten dute euskararen ezagutzak gora egin duen honetan, erabilerak beharrezko joera duela, eta egoera horren aurrean euskal hiztunak aktibatzea eta ahalduntzea du helburu Euskaraldiak. Lauhun herrik baino gehiagok eman dute izena; tartean, Elgetak. "Bereziki itxaropentsua da Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan Euskaraldiak sortutako mugimendua", esan zuen batzarrean Goibekoko Iban Arantzabalek.

**HAINBAT EKITALDI EGINGO DITUZTE HERRIAN HERRITARREI EUSKARALDIA ZER DEN ONDO AZALTZEKO**

**Elgetako hamaikakoa**

16 urtetik gorakoei zuzendutako ekimena da Euskaraldia, eta sortu berria den lantaldeak herriko hamaikakoarekin eman nahi dio hasiera kanpainari. Hala, lehenengo erronka da euskararekiko duten loturagatik esanguratsuak diren hamaika herritar elkartzea talde argazki bat ateratzeko eta gainerako herritarrei Euskaraldian parte hartzeko dei egiteko. Hain zuzen ere, ekainaren 19rako iragarri dute herriko hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia, Elgetan. Jarraian etorriko dira Euskaraldiarekin lotutako ekintza gehiago.

**Hurrengo batzarra, hilaren 11n**

Batzordea irekia dela gogoratu dute parte-hartzaileek, eta gerturatzeko dei egin diete herriko eragileei, elkartei eta norbana-koei. Kontaktua da: [elgeta@euskaraldia.eus](mailto:elgeta@euskaraldia.eus). Hurrengo batzarra ekainaren 11n egingo dute, 19:30ean, Ozkarbin.

## Azken egunak ekainaren 10eko giza katean izena emateko

Oraindik ere jendea behar dela-eta dei berezia egin du aste bukaerarako Gure Esku Dago ekimenak

**L.Z. ELGETA**

"Antzuolarekin batera kilometro bat bete behar dugu —500 pertsona— eta 300dik gora goaz, azken txanparen zain. Jendea azken momentura arte uzten ari da", adierazi dute Elgetako Gure Esku Dago lantaldeko kideek. Autobus bat bete dutela jakinarazi dute. "Herri bakoitzak domeka gauerako esan behar du zenbat autobus beharko dituen. Guk ere domeka jarri dugu azken eguna autobuserako. Aste-buru honetan bigarrena betetz gero, beste bat eskatuko guke.

Bestela, horrela geldituko da", esan dute. Elgetarrei, Maltzagatik Elgoibarrera doan tartea egokitu zaie. "Autobusean joateko eskatzen dugu, ez baitago aparkatzeko lekurik. Autoak Eibarren edo Elgoibarren utzi beharko dira".

**Izena emateko dei berezia**

Elgetan kultura etxeko zeramik gelan jasoko dituzte azken izen-emateak gaur 19:30etik 21:00etara eta domekan 12:30etik 14:00etara. Ekainaren 8an ere bai, 18:00etatik aurrera.



L.Z.

## Elikadura gomendioak gogora

Elikadurarekin lotutako saio praktikoa egin zuen Kontsumobideko Begoña Olabarrietak, martitzenean. Elikagaien piramidea osatzeko eskatu zien parte-hartzaileei, eta azaldu zien produktuen etiketak nola irakurri zein elikaduraren eta nutrizioaren artean zein alde dagoen. Martitzenean, hilak 5, etxeko arriskuak ekiditeko gomendioak emango ditu, 17:30ean.

## Bosgarren mailatik gorakoendako jolasak, Asentzión

Garzteleku Zerbitzuak antolatuta, neska-mutikoendako mendi irteera eta jolasak izango dira etzi, domeka. Taldea 11:00etan abiatuko da, herriko plazatik. Intxortara egingo dute txangoa, eta Asentzión bazkalduko dute gero. Bazkalostean jolasak izango dituztela iragarri dute antolatzaileek. Taldea 16:00 inguruan izango da bueltan.

## Afrikako Rif eremuko idatziak irakurketa solasaldirako

Ekainaren 7an egingo dute hurrengo Hitzez Pitz irakurketa solasaldia, liburutegian. Rifeko ipuin tradizional bat, hizkuntza errealitateari buruzko elkarrizketa bat eta jaioteritik emigratu behar izan zuen Mohamed Xukriren *Ogi hutsa* liburu autobiografikoa izango dituzte abiapuntu. Testu guztiak eskuragarri daude liburutegian.





Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa jokatu duten Elgeta taldeko bolarietako batzuk. HIRU TXIRLO

# Bolarien topaleku izango da Elgeta zapatuan

Herri kirolen aste bukaera izango da honako hau Elgetan. Gipuzkoako hiru txirlo txapelketaren amaierako ospakizuna izango da bihar herrian, eta domekan urrezko binakako harri-jasotze finala jokatu du Imanol Albizu 'Goikoetxe'-k, Azpeitian

## Goiena komunitatea

Hiru txirlo / ELGETA

"Gipuzkoako bolariok amaitutzat ematen dugu Gipuzkoako 49. hiru txirlo bola joko txapelketa, Zapatuan egingo dugu sari banaketa, Elgetan. Bolari Eguna, Lehendakari Saria, bazkaria, omenaldiak eta sari banaketa egingo ditugu.

11:00etan emango diogu hasiera egunari jaurtiketa saio batekin. Ondoren jokatu dugu Lehendakari Saria. Gipuzkoako txapelketa lehenengo 64 sailkatuek hartuko dute parte eta kanporaketa erara egingo da, lehenengoa azkenaren kontra, bigarrena azken aurrekoaren kontra, eta abar, txapeldun bakarria geratu arte.

Jarraian, bazkaria egingo dugu Elgetako frontoian eta gero, bi bolari omenduko ditugu: alde batetik, Bihotza Azpiri eibartarra; eta bestetik, Oñatin bizi eta urteetan Elgetako taldeko bolari izan den Arlindo Almeida —ikus 35. orria—. Jaia amaitzeko, Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako sari banaketa egingo dugu. Txa-

## GORA ETA BEHERA



LZ.

## Zikinkeria sarri frontoi zaharrea

Zapatu goizetan, sarri, negargarri egoten da frontoi zaharra. Kartoizko pizza kaxak, gozoki zorroak, plastikozko poltsak... Zaborra botatzeko edukiontzia ez daude, ba, oso urrutiti!

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Tabakismoa

Gaur, 19:00etan, informazio mahaia ipiniko dute plazan.

### Gaztelekua

Bihar, egun osoko irteera egingo dute Otxandioko Hontza Extrem parkera.

### Jaietako kartela

Lehiaketara aurkeztutako bost lanak buztin gelan daude ikusgai. Botoa emateko azken eguna astelehena da.


### Eskulan tailerra

Ekainaren 9an landare naturalekin kotoi gainean estanpatuak egiteko tailerra, goizez eta arratsaldean. Argibideetarako, deitu: 610 01 77 55 (Lorena).

## Binakako txapelketako finalean

Urrezko binakako harri-jasotze txapelketa jokatu ari da Imanol Albizu *Goikoetxe*, Xabier Peñagarikano bikotekide duela. Txapelketa ona egin dute, eta domeka eguerdian Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokatzekoa den finalean izango dira. Sasoi onean daude biak, eta txapela jantzeko gogoz. Hain zuzen ere, kanporaketa jardunaldietako bikote onena izan dira.

"Primeran gabilta, sentsazio oso onekin. Hernialden bolarekin egindako lana, esaterako, oso ona izan zen", esan du Albizuk. "Baina finala dugu orain. Ea zer gertatzen den. Imanol Illarramendi *Kortaberri* eta Mikel Lopetegi *Urria* izango ditugu aurrez aurre. *Urria*, batez ere, oso ona da; ez dakizu inoiz zer egiteko gai den. Gu bolarekin gabilta bereziki ondo. Ikusiko dugu...". Txapelketa Euskal Telebistan ikusteko aukera izango da domeka arratsaldean.



Imanol Albizu. L.Z.

pelketako bederatz jardunaldietan 40 txirlo jota Floreagako Gorka Etxanizek jantziko du txapela gizonetakoan. Emakumetakoan Garmendipeko Yaris Caballero izan da onena, hemeretzi txirlo jota".

### 60 bat bolari bazkaltzeko

Antolatzaileek eguaztenez eman dako datuen arabera, 60 bat bolari elkartuko dira bihar frontoian egitekoa den Bolari Eguneko bazkarian. Bazkaldu aurretik jokatu du Lehendakari Sarian,

Elgeta taldeko sei eta zortzi bolari artean lehiatuko dira. "Aurretik eta txapelketaren ondoren egingo diren jaurtiketetan edonork har dezake parte", adierazi dute antolatzaileek, herritarrei Bolari Egunean parte hartzeko dei eginda.

## EGUNEAN ZEHAR EGINGO DIREN JAURTIKETA ASKO HERRITAR GUZTIEI ZABALIK IZANGO DIRA

## Udalekuetan izena emateko epea zabalik ekainaren 15era arte

Elgetako Udalak bost asteko udaleku zerbitzua eskainiko du aurten ere; hain zuzen, ekainaren 25etik uztailearen 27ra bitartean. Zerbitzua astelehenetik barikura izango da zabalik, 09:00etatik 13:00etara. 2006 eta 2015 artean jaiotako neska-mutikoendako eskaintza da eta asteka eman daiteke izena. Astebeteko prezioa 40 euro da, bi astekoa 60 euro, hiru astekoa 75 euro, lau astekoa 90 euro eta bost astekoa 100 euro. Bigarren haurragatik %20 merkatzen da zerbitzua, eta familien egoera ekonomikoaren arabera bestelako hobariak ere badaudela jakinarazi du Udalak. Udaletxean egin behar da kontsulta.

## Ingurumenarekin lotutako jarduerak bereziak

Udalak Ekogunerekin batera antolatuta, ilargiaren arabera egutegiaren gaineko tailerra egingo dute, hilaren 6an, herriko baratze parkean. Tailerra doakoa da, 18:00etatik 19:00etara izango da, eta ez da aurretik izena eman behar. Egunduan, landare ekologikoak erosteko furgo-baratzea zerbitzua izango da baratze parkean.

Bestelako jarduerak ere egingo ditu Udalak hurrengo egunean. Barikuan, hilak 8, 12:00etan, errefusaren karakterizazioa egingo dute plazan, eta 18:00etan bigarren eskuko azoka. Ekainaren 13rako, berriz, Epeleko konpost planta ezagutzeko bisita gidatua dago iragarrita.

# Corpusetan emakume dantzariak lehenengoz

Prozesioan ez ezik, gaur ikastetxeetan eta auzoetan eta bihar herriko kaleetan egingo dituzten dantzetan ere izango dira emakume dantzariak. Bi urteko hausnarketa prozesuaren emaitza izango dira aurtengo Corpusak

I.O. / O.E. OÑATI

Corpuseko prozesioan lehen aldiz agertuko dira neskak dantzari. Ez da Oñatiko emakumeek Corpus dantzak egiten dituzten lehen aldia izango -1940ko eta 1950eko hamarkadetan egiten zuten-, baina bai Corpusetan egingo duten lehenak.

Oñatz dantza taldekoek duela bi urte ekin zioten emakumeen parte hartzeari bultzatza egiteko prozesuari. Zeregin hori izango zukeen talde eragilea sortu zuten orduan, emakumez zein gizonez osaturikoa. Eta aurten azalaraziko dute prozesu horretan egingakoa. Corpus prozesioan ere izango da emakumerik. Dena den, horri garrantzia kenduz, diote betiko moduan bederatzi dantzari izango direla domekan, generoaren etiketa kenduz. "Guk dantzariari ematen diegu garrantzia. Betiko moduan, bederatzi egongo dira, baina ez dira denak mutilak izango", dio Oñatzeko Miren Aranburuk.



Oñatzeko dantzariak Eltzian, eguaztenean, Corpusetako entseguan. IKER OÑATE

Domekako prozesioan ez ezik, asteburuko egun guztietan izango da emakumerik dantzarien artean. Urte eta erdi inguru jardun dute Corpus dantzak ikasten eta entseatzen. Izan ere, orain arte, dantzariak laguntzea

izan dute zeregin Corpus asteburuko egun guztietan izango da emakumerik dantzarien artean. Urte eta erdi inguru jardun dute Corpus dantzak ikasten eta entseatzen. Izan ere, orain arte, dantzariak laguntzea

horretan ez dutela aparteko alaketarik egin beharrik izan. "Saiatu gara ahalik eta berdinean izaten. Praxiak bakarrik aldatu ditugu, baina kanpotik ez da nabariturik; emakumeen gorpuzkerara moldatu ditugu", azaldu du Irati Aranburuk.

Hogei dantzari

Dantzariendako, baina, Corpusak ez dira domekako prozesiora mugatzen. Asteburu osoan zehar dihardute herriko ikastetxeetan, auzoetan eta kaleetan. Eta, beraz, dantzok txandakatu beharra dakarkie horrek. Finean, domekako bederatzi dantzarietatik aparteko taldeak dihardu beste dantza emanaldietan. Orotara, hogei dantzari inguruk jardungo dute datozen egunetan. "Asteburu osoa izaten da berezia. Egubakoitz goizean auzoetan eta baserrietan ibiltzen gara dirua batzen eta arratsaldean, ikastetxeetan eta kalean. Zapatuan, goiz eta arratsalde ibiltzen gara herriko kaleetan dantzari eta dirua batzen, eta domekan prozesioan goizean eta Foruen plazan arratsaldean", dio Oñatz dantza taldeko Julene Urrutiak.

Duela bi urte hasitako prozesuaren emaitza asteburuan ikusiko da eta horren gogoz daude Oñatzeko dantzariak, Zuriñe Lazkanok adierazi duen moduan: "Oso gutxi falta da. Oso urduri eta pozik gaude, aldi berean, eta oso gustura egindako lanarekin, luzeza izan bada ere".

Musika eta kirola

Corpusetako dantzak ez ezik, baina, bestelako ekitaldiak ere izango dira asteburuan Oñatin. Domeka goizean, esaterako, 09:45ean, prozesio osagai nagusiak eta txoko bereziak ezaizteko bisita egingo dute, Turismo Bulegotik irtenda. Plazak mugatuak dira eta komeni da aurrez izena ematea Turismo Bulegoan bertan.

Musika eta kirola izango dira asteburuko beste bi osagai. Gaur, egubakoitza, Domeketarrak taldeak kontzertua eskainiko du Portu kaleko plazan. Zapatuan, musika bandaren kalejira eta disko festa izango da eta domekan, bandaren kontzertua eguerdian eta dantzaldia arratsaldean.

Zapatu arratsaldean, herri lasterketak izango dira, 18:00etan emakumezkoena eta 19:00etan gizonezkoena; umeena 12:00etan egingo dute.

Pago-Uso elkarteak antolatuta, bestalde, Corpus jaietan ohitura bihurtu den plater tiroketa ekitaldia egongo da domekan Txopekuako tiro zelaian. Foso olimpiko modalitatean jokatu da, 25 plateretara, eta Gipuzkoa mailakoa izango da.

**ARROPETAN EZ DA APARTEKO ALDAKETARIK IZAN; NEURRIRA EGINDAKO PRAKAK BAKARRIK**

## 'Txillardegi'-ren oroigarria Milikuan jartzeko eskatu dute

Askotan egon zen han, atsedean hartzen eta lanean; atzoko gai zerrendan zuten EH Bilduren mozioa

O.E. OÑATI

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-ren oroigarria Arantzazuko Milikua etxearen pareta batean jartzeko eskaera egin du hango seme Anjel Mari Milikuak. Atzo egitekoak ziren maiatzeko osoko bilkurako gai zerrendan zuten udal ordezkariak gaia, eta mozio bidez ziren aurkeztekoak. Haren senideak ere bertan egotekoak ziren.

Txillardegi-k Arantzazurekin izandako harremana gogoratzeke egin zuen eskaera Milikuak, euskara batuaren 50. urteurren



Oroigarria. OÑATIKO UDALA

betetzen den 2018. urte honetan; 1968an egin ziren euskara batuaren lehen urratsak Arantzazun eta hantxe zegoen bera. Horren premia lehenago aldarrikatu zuten, 1956an, Arantzazun hori ere, eta han ere bazen Txillardegi, beste euskaltzale batzuekin batera. Araotzekin ere bazuen lotura, senitartekoak baitzituen han.

1978az geroztik askotan hartu zuten ostatu Milikua etxean Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-k eta haren emazte Jone Forcadak, eta horregatik eskatu du Anjel Mari Milikuak haren oroimenezko oroigarria euren etxearen ezkerreko paretan jartzeko. "Egindako lana herri memorian geratzeko eta datozen belaunaldiak horren garrantziaz jabetu daitezzen", osoko bilkurara eraman dute gaia.

## Euskaraldiaren berri emango dute martitzeneko bileran

Oñatiko Euskaraldia Batzordea buru-belarri ari da ekimena arrakastatsua izan dadin. Horretarako, hiru lantalde osatu dira: komunikazio-taldea, formazio-taldea eta aktibazio-taldea. Aktibazio alorrean, hain zuzen ere, Euskaraldiako eragileen eta sustatzaileen sarea handitu nahi dute ekainean, eta, horretarako, herriko elkarte, erakunde, komertzio eta lantegietara joango dira, proiektua azaldu eta parte hartzeke gonbidapenak egiteko.

Orain artekoak azaltzeko eta hurrengo urratsen berri emateko, baina, bilera irekia egingo dute datorren martitzenean, ekainak 5, Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

## Lanean jarraituko dutela adierazi du Oñatiko EAJK

Oñatiko batzokian joan den asteburuan egindako pintadak gaitzetsi ditu Oñatiko EAJK, eta elkartasuna eta babesa adierazi dio alderdiko zinegotzi bati, haren aurkako pegatinak ere agertu zirelako. Horrelako ekintzak Oñatin "behin eta berriz" agertzen direla adierazi dute eta "bistako egiten dute egileek duten etika zein giza eskubideen aldeko errespetu falta ikaragarria". Era berean, uste dute "herriaren bizikidetzat oztopen" dutela halako ekintzek, eta errespetua exijitu dute. Gaineratu dute lanean jarraituko dutela, "errespetuan oinarritutako elkarbizitzan baten aldeko gure apustua defendatuz".



Astelehen arratsaldean aurkeztu zuten *Merkatari* aplikazioa Oñatiko udaletxean. IKER OÑATE

# Herriko merkataria eta bezeroak, gertuago

Herriko merkatarien eta bezeroen arteko harremana hobetzeko aplikazioa da 'Merkatari'. Udalak bat egin du GOIENAK eskainitako tresna horrekin, eta herriko dendariekin batera garatuko dute. Uztailean egongo da erabilgarri

## I.O. // O.E. OÑATI

Herriko kontsumoa sustatzeko helburua duen aplikazioa da *Merkatari*, dendarien eta bezeroen arteko harremana hobea, sendoagoa, izaten lagunduko duena. Goienak bailarako udalei eskainitako tresna da eta Oñatiko Udala izan da batu den azkena.

## Funtzioak

Dendarien eta herritarren arteko zubi-lana egitea du helburu *Merkatari* egitasmoak. *Merkatari*-k aukera ematen du, esaterako, txat zerbitzu baten bitartez herritarrek merkatariei mezu zuzenak bidaltzeko. Merkatariek euren promozioen berri eman eta katalogoa erakusteko aukera ere izango dute, eta herritarrek balorazioak egin ahal izango dituzte. Proiektuaren kudeatzailer Asier Amutxastegik azpimarratu du aplikazio bitartez aukera izango dutela merkatariek herriko bezeroek dituzten "beharrei erantzuteko".

Aurreikuspenen arabera, herritarrek uztail bukaeran izango lukete telefono mugikorreko aplikazioa eskuragarri; hasiera batean, Android eta iOS sistema-gailuetan legoke erabilgarri.

## Formakuntza

Astelehenean egin zuten tresna horren aurkezpena, udaletxean, eta hobeto ezagutzen hasiko dira orain. Lehenengo, merkatariekin ezarpen edo inplantazio prozesua landuko dute, eta gero, Oñati osora zabalduko dute, aplikazioa erabiliaz, merkatarien eta herritarren arteko harremana sendotzeko helburuarekin. Horretarako, formakuntza saioak egingo dituzte orain dendariak. Hain zuzen ere, ekainaren 4an,

**OÑATIK, ESKORIATZAK ETA ARRASATEK EGIN DUTE BAT; HERRIEN BEHARRETARA DAGO EGOKITUTA**

5ean, 7an eta 8an egingo dituzte saioak, Euskaldun Berria gelan, 15:00etatik 16:30ak bitartean. Eta, gutxienez, horietako bitara joatea gomendatu dute bultzatzaileek. Bada, euren esanetan, fasez fase gauzatuko da *Merkatari*. "Formakuntza egiten dute, jarraipen bat egingo diegu komertzioei, dendetara joanez. Azken faserako proba bat presatu dugu, ikusteko denok ondo erabili eta ulertzen dugula aplikazioa", dio Amutxastegik.

Herriko komertzioari bultzatzaileek estrategiaren baitan kokatu du egitasmoa Ana Martinek, Turismo eta Sozioekonomia Saileko zinegotziak, eta baikor azaldu da aurrera begira izan dezakeen harrerarekin. "Komunikaziorako aplikazio bat da eta merkataritza elektronikoen errealitatean tokiko dendariak kokatzeko tresna interesgarria dela iruditzen zaigu", adierazi zuen aurkezpen ekitaldian Udaleko Enplegu teknikariak, Unai Kortabarriak.

## "Pena dut Oñatin ez dagoelako boloetarako afiziorik"

ARLINDO ALMEIDA BOLO JOKALARIA

Elgetako Bolari Egunean omenduko dute, zapatuan

### O.E. OÑATI

Portugalen jaio zen Arlindo Almeida *Portu* (Viseu, 1958), eta 20 urterekin iritsi Oñatira. Orduan hasi zen bolotan jokatzeko. Eibarko Bihotza Azpiri ere omenduko dute.

### Non hasi zinen bolotan?

San Martingo bolatokia han zegoen. Gero, Urrintxon egin zuten federatua zen eta hantxe jarduten genuen; bi talde eta alebin mailako beste bat zeuden orduan Oñatin. Hura itxi zuten, Elgetara joaten hasi nintzen.

### Elgetako taldearekin jokatzeko duzu?

Bai, eta Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan hartzen dugu parte. Zapatuan Gipuzkoako finala jokatuko da Elgetan. Zergatik ez dago bolari talderik Oñatin? Afizioa falta da?

Urtean behin, sanmigeletan, bolo txapelketa antolatzen dute San Martingo bolatokia. 80 bat lagun elkartzen gara, heldu eta gazte. Baina urtean behin bakarrik, gainerako egunetan inork ez du interesik erakusten joko honetan aritzeko. Gogoan dut lehen ordu asko egiten genituela San Martinen, jatekoak eta edatekoak eraman genituen eta arratsalde-pasa ederrak egiten



Arlindo Almeida, Oñatin. O.E.

genituen, bolotara jokatu. Orain, adinekook gero eta gutxiago gara eta gazteek beste kirol batzuk gurago dituzte bolo jokoa baino. Pena da.

### Non jokatu badago?

San Martingo bolatokia toki oso onean dago. Estalita egongo balitz, asko irabaziko luke, federatua izango litzatekeelako eta txapelketak ere jokatu ahal izango liratekeelako. Egun, Kurtze Baltz elkarteak kudeatzen du. Baina afizioa falta da. Jende gazteak probatu egin beharko luke joko hau eta jokatu.



NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

## Bach eta biok

Animaliak ez bezala, gizakiok bizirik irauteko behar ez ditugun gauza asko sortu ditugu historian zehar; kultur adierazpenak, adibidez.

Kultur diziplina guztien artean –pintura, idazmena, musika, antzerkia, zinea...–, musika da, nire ustez, harrigarriena.

Musikak dituen dohainak zoragarriak dira benetan. Ukiezina eta ikusezina izanik ere, barnea erabat mugitzeko eraginkorra da. Musikak badu gaitasun berezia: umorea aldatzeko gaitasuna, hain zuzen, momentuan sentitzen duzuna hankaz gora jarri dezake bat-batean, une bereziak eta magikoak sortuz, sentitzen duzuna areagotuz edo lasaituz.

Behin hegazkina hartu nuenean, ekaitz izugarri batean barneratu ginen. Oinaztu eta trumoiak hegazkina jostailu bat balitz bezala mugitzen zuten. Erabat ikaratuta, nire azken uneak izango zirela ziur nengoenean, kaskoak jantzi eta Bach-en musikarekin egin nuen topo. Entzun ahalaz, irribarretxo bat atera zitzaidan, eta une hartan soinu-banda harekin erortzeak beste xarma bat zuela pentsatu nuen.



Ikasturtean zehar gaztetxoek egindako eskola kirol ekitaldia. EGOITZ ATXAGA

# Maorien 'haka' ezaguna, errespetua eskatzeko

2017-2018 ikasturtea amaitzeko azken jai egingo dute bihar, zapatua, 10:00etatik 12:00etara. Zubikoako kantxa berdean sari banaketa ekitaldia egingo dute, Gauargi erromeria taldeak girotuta. Guraso laguntzaileek luntxa izango dute amaieran

## Arantzazu Ezkibel OÑATI

Eskola kiroleko azken jai egingo dute bihar, zapatua, kiroldegiko kantxa berdean. Urtean zehar egindakoaz disfrutatu eta modu alaian ondo pasatzeko eguna izango da biharkoa gaztetxoendako.

10:00etan hasiko dute ekitaldia. Berezia izango da aurtengoa, Gauargi erromeria taldeko Amaia Txintxurretak gidatuko du. *Haka* erraldoi batekin hasiko dute saioa: "Gaztetxoak animatu daitezela, ondo pasatuko dute eta bukaera alai emango diogu ikasturteari", aurreratu du Txintxurretak.

## Diputazioaren ekimena

Gipuzkoako Diputazioaren ekimena da maorien *haka* dantza eskola kirolean egiterena. "Har-mailaren aurrean ahots bateratu bat, errespetuan eta gozame-nean oinarritutako erritual bat, eskolarteko kirolean dagoen agresibitatearen inguruko kontzientzia pizteko proiektu bat"

dela azaldu zuten Diputazioko ordezkariak ekimena aurkeztu zutenean.

*Eee!ntzun* izenarekin egin du bideoa Diputazioak eta hainbat kirolari ezagunek parte hartu dute; gainera, *Go!azen*-eko protagonistek bideoa egin dute, urratsez urrats *haka* nola egin behar den erakusten. Youtubean daude ikusgai bideo horiek. Bada, pauso horiek erakutsiko ditu Txintxurretak kiroldegian, eta gura duten gaztetxo guztiek izango dute parte hartzeko aukera.

## Sari banaketa

Horren ondoren, sari banaketa ekitaldia hasiko dute. LHko 3. eta 6. maila arteko neska-mu-

**2017-2018  
IKASTURTEAN 412  
GAZTETXOK PARTE  
HARTU DUTE ESKOLA  
KIROLEAN**

tikoeke parte hartuko dute ekitaldian. Ikasturtean zehar 412 gaztetxok parte hartu dute eskola kirolean. Aitor Guridik banatuko ditu sariak. "3. eta 4. mailatan ez dugu saririk banatzen, parte hartu dutenen artean dominak banatzen ditugu", azaldu du Egoitz Atxagak, eskola kiroleko koordinatzaileak. 5. eta 6. mailetako gazteen artean, txapelketan zehar irabazleak izan direnak sarituko dituzte; horrez gain, parte hartzaile guztien artean opariak banatuko dituzte.

## Emanaldia eta luntxa

Ekitaldia amaitzeko, Gauargi taldeak dantza emanaldia eskainiko du. Abesti ezagunak eskainiko dituzte, gaztetxoek eta gurasoek ondo pasa dezaten. Dantzatze eta kantatzeko aukera paregabea izango da.

Gainera, kiroldegiko tabernan luntxa egingo dute kirol programaren antolaketan parte hartu duten guraso laguntzaileekin.



E.E.

## Eskolartekoan, txapeldun

Eskubaloian, Txantxiku Ikastolako Lolipopak taldea txapeldun da Gipuzkoako eskola artekoan, alebin mailan. Joan zen aste bukaeran jokatu zituzten partiduak oñatiarrek, Usurbilen; zapatuan kanporaketak izan zituzten eta domeka goizean finala jokatu zuten neskek. Garaikurrarekin etorri ziren etxera.

## Astlehenean zabalduko dute belardira irteteko atea

Zubikoa kiroldegiko belardira irteteko atea astlehenean, ekainaren 4an, zabalduko dute. Modu horretan, belardiko erabiltzaileek igerilekuan bainua hartzeko aukera izango dute. Atea zabalik egongo da udan, irailaren 28ra arte. Belardia orain dela bi aste zabaldu zuten, baina orain arte kanpotik sartu behar zen bertara.

## Herri artekoan, Oñartzun hartuko du Oñatik, gaur, Zubikoan

Gipuzkoako herri arteko txapelketako final-laurdenak jokatu ditu Oñatik. Joaneko partidua etxean izango da, Zubikoan. Gaur, egubakoitza, jokatu dituzte lehiak -22:00etan hasiko dira-. Kadete, gazte eta nagusien mailetako lehiak izango dira, hain zuzen.

Final-zortzirenetan Bidania-Goiaz kanporatu du Oñatik. Bai joanekoan eta baita itzulerakoan ere oñatiarrak 2-1 nagusitu ziren: kadete eta gazte mailetako partiduak irabazi dituzte, eta nagusien biak galdu. Oñatiarrek badakite aurkari gogorak izango dituztela; baina, era berean, pilotariak oso motibatuta daudela aurreratu dute.

## Corpus jaiak direla eta, Zubikoa eta gaztelekua itxita egongo dira

Domekan, ekainaren 3an, Zubikoa kiroldegia eta gaztelekua itxi egingo dituzte. Corpus jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran, eta, hain zuzen, egun handia izango da domeka. Corpus eguneko prozesioa egiten dela kontuan hartuta, domekan itxita egongo dira udal eraikin horiek. Astlehenean, berriz, betiko moduan zabalduko dituzte.

## Ur Uhinak parkea gaur, egubakoitza, zabalduko dute, 17:00etan

Ugarkalden dagoen Ur Uhinak parkeko txorrotak gaur jarriko dituzte erabilgarri. Modu horretan, udako denboraldiari hasiera emango diote. 17:00etan zabalduko dituzte txorrotak, eta denboraldian zehar ondoko ordutegia izango dute: gaur, egubakoitza, 17:00etatik 21:00etara egongo da erabilgarri; ekainaren 2tik ekainaren 22ra, egubakoitza, astegunetan 13:00etatik 21:00etara eta aste bukaeretan 11:00etatik 21:00etara; ekainaren 23tik irailera bitartean erabilgarri egongo da 11:00etatik 21:00etara egunero. Iraileko ordutegia oraindik zehaztu barik dutela azaldu du Irati Etxeberria zinegotziak.



Jerardo Elortzari buruzko erakusketako zenbait argazki, kultura etxean, zabaldu aurretik. IKER OÑATE

# Jerardo Elortzak egindakoak, ikusgai

Jerardo Elortzari buruzko erakusketaren irekierak emango dio hasiera aste kultural bereziari –ekainaren 8ra bitartean egongo da ikusgai–. Besteak beste, Elortzaren argazkiak eta hainbat egitasmotan egindako ekarpenak egongo dira ikusgai

**Iker Oñate** OÑATI

Jerardo Elortza historialari oñatiarraren omenez antolaturiko jardunaldiek gaur emango diote hasiera ekintza sortari, kultura etxeko erakusketaren irekierarekin; hilaren 8ra bitartean egongo da zabalik, arratsaldez 18:00 eta 20:00 artean egongo da erakusketa ikusteko aukera. Besteak beste, argazkiak, liburuak, ikus-entzunezkoa eta zenbait aldizkariren aleak egongo dira ikusgai. Gainera, Artixa taldeak eraikitako erakusketak ez dute edozelako irekiera izango –gaur, 18:00etan–: Jose Antonio Azpiazuren aurkezpena, Jose Mari Anduagaren kantaldia, luntxa...

Hainbaten artean, herriko ondarearen alde egindakoak airtortu gura diote egitasmoaren bultzatzaileek Jerardo Elortzari. Eta, horrez aparte, bere eza-gutza gizarteratzeko asmoz ere badihardute. Hori da, hain zuzen ere, erakusketak gura duena. "Oñatiarrek Jerardo Elortzak

egindakoak ezagutu ditzaten bitarteko da erakusketa. Era berean, lagungarri izango da Elortza bera hobeto ezagutzeko", argitu du Xabier Ugartek, Artixako kideak.

## 'Antxiñako fotografia'

Tartean, esangura handiz erakutsiko dute Jerardo Elortzak *Kontzejupetik* herri aldizkarian lantzen diharduen *Antxiñako fotografia* atala. Gaur-gaurkoz, 280tik gora argazki ditu argitaratuak bertan. Hain zuzen ere, iraganeko argazki bat argitaratu ohi du atal horretan, horren inguruko azalpen batek lagunduta. "Herri ondarea gizarteratzeko lagungarri da hori", dio Ugartek.

**ERAKUSKETAREN  
IREKIERA BEREZIA  
EGINGO DUTE GAUR,  
18:00ETAN, KULTURA  
ETXEAN**

## Datorren astean, berbaldiak

Bestetik, Jerardo Elortzaren jakintza gizarteratzeko ahaleginean, hainbat berbaldi antolatu dituzte datorren asterako. Eta ekainaren 4koa izango da horietan lehena: *Jerardo Elortza 'Egille'* hitzaldia eskainiko du Juan Martin Elexpuruk, Santa Ana antzokian, 19:00etan hasita. Nagusiki, Elortzaren bizitza kulturalaz eta akademikoaz berba egongo du hizlariak.

Eta, bestetik, 60ko eta 70eko hamarkadetan sortutako zenbait eragiletako ordezkarien mahai ingurua antolatu dute –Oñatz kultur taldea, herriko ikastola...– ekainaren 6rako; 19:00etan hasiko da hitzordua –kultura etxean egongo dute ekintza–.

Bestetik, antolatzaileek jakinarazi dute ekainaren 5era bitartean dagoela Jerardo Elortzaren omenaldi bazkarirako txartela erosteko aukera –ekainaren 9an egongo dute hori, Etxe Aundin–. 30 eurotan eskura daiteke, Txokolateixan.

## 'Basakristaupunk' musika jaialdia egingo dute gaztetxean

Pecoza United, Krustazeos, Baserriko Ollaxkue Labien eta Patronal Punk taldeek jardungo dute, zapatuan

**I.O. OÑATI**

Ekaineko egitaraua iragarri dute Antixena gaztetxeko kideek. Eta bihar emango zaio hasiera ekintza sortari, *Basakristaupunk* musika jaialdiarekin –21:00etan hasiko da–. Hain zuzen, Pecoza United, Krustazeos, Baserriko Ollaxkue Labien eta Patronal Punk taldeek jardungo dute gaztetxeko agertokian. Sarrera 3 eurotan egongo da eskuragai.

Eta, horrez aparte, ekainean izango da bestelako ekintzarik ere. Tartean, Hangover Fest musika jaialdia egingo dute hi-

laren 15ean; Mendeku Itxua, Berri Zaharrak, The Eleventh Plague eta Minerva taldeek jardungo dute. Bestetik, Nazioarteko Sexu Askapenaren Egunean –ekainak 28– ere izango da ekintzarik –erakusketa eta tailerra–. Eta, data zehazteke duten arren, Dominikar Errepublikari buruzko saiok egingo dituzte ekainean, *Herri bat, hainbat jatorri* ekimenari lotuta.

Bukatzeke, jakinarazi dute udako egitaraua zehazteko bileraren egingo dutela ekainaren 6an, 19:00etan.



IKER OÑATE

## Navarrorum Euskarari buruzkoak

Nabarralde elkarteak antolaturiko *Memoria lekuak* jardunaldien baitan, *Navarrorum Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea* erakusketa dago ikusgai Mikel Goiaingeruaren parrokiako klaustroan. Hain zuzen ere, domekara arte egongo da ikusgai, arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

## Arrasateko taldeak protagonista, gaur, Pako tabernan

Gaur, Arrasateko musikariak izango dira Pako tabernako protagonista. Hain zuzen ere, Crap-ek, Legez Kanpok eta DJ Motherfucker-ek jardungo dute, 22:00etan hasita. Oro har, rock doinuak izango dira nagusi. Bestetik, aipatu beharrekoa da, ohikoan sarrerarik ez badago ere, 3 euro ordaindu beharko direla kontzertuok ikusteko.

## Haurren danborradan parte hartzeko izen ematea, zabalik

Zabalik dago haurren danborradan esku hartu gura duenaren dako izen-ematea. Aurten, 2008an jaiotakoei dagokie dantzari aritzea; eta ohiko konpainietako kide izango dira 2009an eta 2010ean jaiotakoak. Ekainaren 19ra arte dago izena emateko aukera. Kultura etxeko sarrerako postontzian sartu behar da izen-emate orria.



2006an Iratxe Aranburu zarauztarrak irabazi zuen lasterketa. 2010ean egin zuten emakumezkoek azkeneko proba hori. GOIENA

# Zegoen hutsunea betetzeko ordua

**ATLETISMOA** Zapatuan Oñatiko 10 Kilometroak lasterketak Euskal Herriko atleta onentsuenak batuko ditu. Aurten, azken lau edizioetako hutsunearen ostean, emakumezkoak ere batuko dira kirol ikuskizunera

## Xabier Urzelai OÑATI

Bihar, zapatua, Antxintxiketan taldeko lagunek Euskal Herriko korrikalari onenak batuko dituzte Oñatin -18:00etan, emakumezkoak; 19:00etan, gizonzkoak-. Eta, hain zuzen, hor dago nobedadea, emakumezkoak ere kirol ikuskizunera batu direla: "Iaz gai honek zeresana eman zuen, eta ahalegin berezia egin dugu emakumezkoen lasterketa ere antolatzeke", adierazi du Asier Osinagak.

## Arrazoi ekonomikoak tartean

"Antxintxiketan kirol elkarteak beti egin du berdintasunaren alde. Baina azken urteotan ekonomikoki taldeari ezinezkoa egin zaio bi lasterketa antolatzea -korrikalariari diru kopuru bat ematen zaie Oñatira etortzeko-. Ganoraz lasterketa bakarri antolatzeke aukera geneukan, eta

bai, gizonzkoen lasterketaren aldeko hautua egin izan dugu; besteak beste, emakumezkoekin alderatuta, gizonzkoen presentzia 10.000 metrotan handiagoa delako, eta, ondorioz, antzerako erritmoak iruzten korrikalariak bilatzea errazagoa delako. Halere, urte hauetan ez gara geldirik. Hango eta hemengo ateak jo ditugu eta Udalaren aparteko ahaleginak eta herriko hainbat komertzio eta enpresaren laguntzak ahalbideratuko du, hein handi batean, zapatuan bi lasterketak egin ahal izatea".

## Puntako parte-hartzea

Bada, Antxintxiketaneko oso pozik daude bihar irteera puntuan batuko dituzten atletekin: "Euskal Herriko hamar kilometroko distantzian punta-puntan dabilzan atletak biltzen saiatu gara. Aurten benetan izan da

zaila atleten kontratazioa; izan ere, pistako denboraldian murgilduta daude. Bada, lasterketa aurretik atletak banan-banan aurkeztuko ditugu plazan, eta ondoren hasiko dugu kirol ikuskizuna".

## "Polita izango da herrian korrika egitea"

**MARI SOL RAMOS**  
ATLETA OÑATIARRA

Maratoi erdian beterano mailako Munduko Txapeldun da Mari Sol Ramos (Oñati, 1959), eta duela hamabost egun Europako Txapelketa irabazi zuen master 55 kategorian. Zapatuan askoz atleta gazteagoak izango ditu ondoan; etxean, gainera.

### Zer moduz?

Oso ondo, dagoeneko urdurinago zapatuko lasterketara begira. Antolatzaileek detaile oso polita izan dute ni



X.U.

lasterketara gonbidatzen, eta eskertu egiten diet keinu hori, baina ardura apur bat ere badaukat, atleta gazte horien aurrean zein maila emango dudana...

### Zer-nolako lasterketa espero duzu?

Gozatu baino gehiago, sufritu egingo dugu [Barre], baina gure maila ematen saiatuko gara. Sasoi puntuan nago, baina nik ez dut gorabehera handirik izaten, ez naiz-eta geratzen.

## "Aukera honi ezin nion ezetzik esan"

**AMAIA BERNAL**  
ATLETA OÑATIARRA

Amaia Bernal (Oñati, 1984) lasterketa antolatzen duen Antxintxiketan taldeko kidea da, eta taldekideek egindako proposamena onartu egin du, zalantza handiak izan eta gero. **Irteera puntuan izango zaitugu, azkenean.**

Bai, animatu egin naiz, nahiz eta herritarren aurrean korrika egiterakoan oso urduri jartzen naizen. Garbi daukat ez daukadala ezer galtzeko, eta esperientzia oso polita izango



X.U.

dela, damutu egingo nintzateke bestela.

### Atleta azkarrak izango dituzu ondoan.

Asier Osinagari esan nion ondoan izango nituen atleta guztiek kilometroa 3.30era egiten bazuten ez nintzela animatuko, ni 3.50en bueltan ibiltzen naiz eta. Baina taldetxo bat batuko gara maila antzerako samarra dugunok, atzealdean joango gara [Barre], baina hor eustea espero dut.

## Atleten zerrenda

- Marisol Ramos Oñati.
- Lourdes Colomo Zizurkil.
- Elena Loyo Gasteiz.
- Maialen Loyo Gasteiz.
- Pilar Moran Gasteiz.
- Mainer Leoz Iruña.
- Ana Llorens Iruña.
- Janire Fernandez Gasteiz.
- Maialen Muñoz Ibarra.
- Naroa Sagarna Ormaiztegi.
- Maite Arraiza Donostia.
- Izaro Rubio Ordizia.
- Sian Robertson Gasteiz.

- Oihana Ortiz Tolosa.
- Estela Navascues Tuteria.
- Amaia Bernal Oñati.
- Iratxe Arzopide Villabona.
- Imanol Cruz Donostia.
- Pablo Salaverria Donostia.
- Iban Rodriguez Gasteiz.
- Alberto Arberas Elgoibar.
- Kamel Ziani Orio.
- Antonio Echeverria Iruña.
- Aritz Garin Villabona.
- Endika Donnay Arrasate.
- Ivan Arrate Algorta.

- David Rua Elorrio.
- Txomin Maraño Durango.
- Mikel Etxamendi Bizkarreta.
- Xabier Martinez Ezpeleta.
- Hoss Kanache Orio.
- Ekaitz Kortazar Durango.
- Erick Martin Oñati.

Oharra: Lasterkarien zerrenda behin-behinekoa da, azken ordura arte antolatzaileak atleta gehiago batzen ahaleginduko dira eta.

# lazko 70 taldeak baino gehiago gura dituzte

**SASKIBALOIA** Bergarako Hiruko Saskibaloia Txapelketak hamaika urte beteko ditu aurturten, eta dagoeneko zabalik dute ekainaren 16ko eta 17ko asteburuan egingo duten ediziorako izen-ematea: "laz baino talde gehiago etortzea espero dugu"

**Xabier Urzelai** BERGARA

Bergarako Saskibaloia Elkarteak gertu du aurtengo Hiruko Txapelketa. Herriko ikastetxeetan zabalduko dituzte izen-emate eskuorriak, eta Agorrosinen ere egongo dira herritarren esku. Ez hor bakarrik, baina klubaren webgunean ere (*bergarake.com*): "Erraz esaten da, baina dagoeneko hamaika urte egingo ditugu txapelketa hau antolatzen, eta pozik gaude, lan asko dagoelako atzean baina emaitzak merezi duelako", adierazi zuen eguaztenezko agerraldian Marian Melladok, BKEko presidentea.

**Talde gehiagoren bila**

Iaz 70 talde izan ziren txapelketan, baina San Juan jaiekin bat egin zuen torneoak, eta igarri egin zuten hori: "Kopuru polita izan zen iazkoa, baina bai, San Juan jaiekin eragina izan zuten; herriko jendearekin batera kanpotik ere jendea etortzen delako, eta ez zirelako data aproposenak. Aurturten, ordea, talde gehiago batzea espero dugu".

Urtero moduan, torneoan hainbat kategoria izango dira. Zapatuan elite mailako gizonetako eta emakumeetako, beterranoek, seniorrek, gazte mailakoek, kadeteek eta infantilek jokatu dute, eta domekan gaztetxoek.



Saskibaloia jokalaria jaurtiketa egiteko gertu, artxibo erretratuan. GOIENA

## "TORNEO HONEK KALEAN JOKATZEN DELAKO DU XARMA, HERRITARRENGANDIK GERTU"

**Eguraldiak lagun dezala**

Bestalde, txapelketa arrakastatsua izan dadin, aire librean egiten diren beste kirol hitzorduekin moduan, Hiruko Torneoan ere eguraldi ona izatea ezinbestekoa izaten da: "Oroko-

rrean zortea izan dugu, baina eguraldi txarra egin duenean torneoa Labegaraietara eraman behar izan dugu, eta garbi daukagu ez dela gauza bera. Hiruko kalean jokatzeko torneoak da, herritarrengandik gertu. Hor dago benetako saltsa".

**Kirol egokitua ere bai**

"Iaz sartu genuen lehenengoz kirol egokitua torneo barruan. Bera Berako ordezkariak etorriko dira, eta asmoa da bi talde sortzea eta lagunartekoa jokatzea.



Garitano, Olaberekin eta Aperiibarekin batera, eguaztenez. REAL SOCIEDAD

## Garitano: "Onenekin batera lehia gaitzkeela uste dut"

**FUTBOLA** Aurkezpenean Bergarakoak azaldu zuen Realera etortzeak ez diola batera beldurrik ematen

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Asier Garitanok ohi moduko lasaitasunarekin egin zuen berba eguaztenez Realarekin egindako aurkezpen ekitaldian. Entrenatzaile moduan hazten jarraitzeko klub egokia dela adierazi zuen, eta onenekin lehiatzeko kapaz izan daitezkeela gaineratu.

Bergarakoak ez zuen jokalaria moduan elastiko txuri-urdina janzteko aukerarik izan, baina entrenatzaile jardungo du: "Jokalaria moduan futbola utzi nuen, helburu nagusia Lehenengo Mailan entrenatzea zen, eta, helburu horren barruan, baita Realeko entrenatzaile izatea ere. Orain, aukera hau aprobetxatu egin behar da. Aurretik dugun lana ez da makala, baina ederra izango da".

Bergarakoak adierazi zuen ez daramatzala urte asko entrenatzaile lanetan, zazpi urte inguru:

"Baina ez naiz kasualitateetan sinisten duen horietakoa. Entrenatzaile moduan beti izan dut Real begiz jota. Badakit nora iritsi gura dudana talde honekin, eta topera joango gara horren bila".

**Fitxaketen berririk ez**

Bergarakoak ez zuen gura izan fitxaketen gainean berba egin, ez jokalarien gainean, ezta ondoan lanean izango dituen laguntzaileen gainekoa ere: "Onenekin lan egitea gustatzen zait".

Jokalarien gainean, berriz, zera adierazi zuen: "Taldea indartsua dugula uste dut, gipuzkoarrez osatutakoa eta emaitza onak eman izan dituen. Kontua da atzeritarrekin oreka bilatzea, onenen artean lehiatzeko aukera emango digun oreka hori izatea". Gaineratu zuen ez dela joko-estilo bakarrean sinisten duen horietakoa.

## Saskibaloia gainera mahai-ingurua

*Emakumea eta saskibaloia.*

Oraina eta etorkizuna lelopean mahai-ingurua antolatu du BKEk ekainaren 13rako (19:00, Miguel Altuna Institutua). GBCko presidente Nekane Arzallus, IDK Gipuzkoako presidente Carmen Muguruza eta Araskiko presidente Livia Lopez izango dira: "Emakumezkoen saskibaloian egiten duten lana erakutsi gura dugu".



Iñaki Ugarteburu, Marian Mellado eta Itziar Elgarresta prentsaurrekoan. X.U.

## TRIATLOIA Gazteentzako proba egingo dute domekan Bergaran

Antxintxika Triatloi Taldeak antolatuta, Triatloi Txikia egingo dute domekan, Bergarako Agorrosin gunean (09:00). Benjamin, alebin eta infantil mailako gazteak batuko dituzte, eta, adinaren arabera, distantzia askotariko probak egin beharko dituzte, igeri, bizikletan eta korrika. Helburua da gazteak triatloira gerturatzea.

## MENDIKO BIZIKLETA Leintz Gatzagako martxa egingo dute bihar

Zapatuan (09:30) egingo dute Leintz Gatzagako XVI. mendi bizikleta martxa, eta antolatzaileek 28 kilometroko ibilbidea prestatu dute -1.128 metroko desnibel positiboarekin-. *Kirolprobak.com* helbidean eman daiteke izena aurrez, gaur gaue arte -federatuek 10 euro eta ez federatuek 15 euro-; gehienez, 250 lagun hartuko dituzte.

# Garai bateko zinema proiektzioetan moduan

'Markak' dokumentala eskainiko dute Amaia antzokian datorren egunean (22:00), Kooltur Ostegunak musika zikloa borobiltzeko; Gernikako bonbardaketari buruzko filmaren soinu banda taularen gainean izango diren zazpi musikaririk joko dute

**A. Aranburuzabala** ARRASATE

Urrian hasi eta ia eguen guztietarako askotariko musika proposamenak egin dituzte aurten ere Kooltur Ekintzak taldekoek. Datorren egunean bukatuko dute zortzigarren denboraldia, eta, beste batzuetan egin izan duten moduan, Amaia antzokian programatu dute azkena.

Toki aldaketa ez da izango, baina, berritasun bakarra; izan ere, zuzeneko musika entzungo den arren, ez da kontzertu soil bat izango, *Markak* dokumentalaren proiektzio-musikatua baizik. Orain arte moduan, 22:00etan hasiko da emanaldia; oraingoan, sarrera doan da.



Bartzelonako iazko Sonar jaialdian eskaini zuten emanaldia. ARIEL MARTINI

**Gernikari buruzkoa**

Hannot Mintegia musikaria eta zinemagilea da filmaren egilea; 2016an Eusko Jaurlaritzatik Gernikari buruzko dokumentalaren egiteko enkargua jaso zutela kontatu du: "Euskal gobernuaren 80. urteurrena zela-eta hainbat proiektu bultzatu zituzten, eta guri, Gernikako ekoiztetxe bati, Gernikari buruzko dokumentalaren egiteko eskatu ziguten, hanka bat historian zuena, baina gaur egunean ere kokatutakoa. Gidoia osatzen hasi ginen, bada, Oier Plaza lankidea eta biok, eta, horretan ari ginela, Bernardo

Atxagaren *Markak* liburua agertu, eta, asko gustatu zitzaigunez, gida-liburu moduan hartu genuen. Atxagarekin harremanetan jarri eta baimena eskatu genion eta geroago, elkarrizketa bat egitea ere proposatu genion, eta horri ere baiezkoa eman zigun. Azkenean, Atxaga izan da dokumentalean bizkarrezurra. Idazleaz gainera, aurpegi asko agertzen dira 60 minututan; oso korala da filma, eta Gernikaren historiaren, orainaren eta etorkizunaren erretratua izan gura du", kontatu du Mintegiak.

**Musika, Aitor Etxebarriarena**

Aspaldiko lagun Aitor Etxebarria *-El Txef a-* eskarmentu handiko musikariari eskatu zioten soinu banda sortzeko. "Zati lirikoak ditu, baina nahiko minimalista da, ahots asko entzuten dira eta horiei trabarik ez egitea izan da asmoa; hortaz, nahiko errepikakorra da, irudiak indartzea izan da-eta nire asmoa. Zazpi musikariren artean grabatu dugu eta halaxe jarduten dugu zuzenean ere; Arrasaten Eñaut Zubizarreta aretxabale-tarra ere gurekin izango da".



Arana eta Ugarte, Lekaixoka Bertso Eskolan, eguaztenean. HAIZEA ARANA

## Oihana Arana eta Aitor Ugarte, EHko Eskolarteko Txapelketan

Sarako trinketean, ekainaren 9an jokatu den sariketan bigarren izango dira eskoriatzarra eta aramaioarra

**A. A. ARRASATE**

Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek antolatuta, 30. aldia da aurtengoa, eta izango da ospakizunetarako aukerarik; hala ere, ohiko egitura izango du egunak. Finala 11:00etan hasiko da, Sarako trinketean eta han izango dira, iaz moduan, Oihana Arana –Gipuzkoako ordezkaria– eta Aramaioko Aitor Ugarte –Arabako ordezkaria–.

Finalerako sarrera doan da, baina 14:00etan Lur-Berri aretoan egingo duten bazkarira joan gura dutenek gaur, egubakoitza, dute azken eguna *Bertsosarrerak.eus* atarian txartelak erosteko.

**Hamahiru bertsolari lehian**

Bertso udalekueetan ezagututa, aspaldiko lagunak dira domekako finaleko bertsolariak. "Hori da Euskal Herrikoak duen onena, lehiakideen eta ikusleen artean lagun asko elkartzen

garela", dio Lekaixoka bertso eskolako Oihana Aranak, eta zera gaineratu du: "Lasai nago; aurten nire helburua, iaz ez moduan, gozatzea da. Favoritoen artean, iazko irabazle eta Arabako ordezkari Aroa Arrizubietatik ikusten dut; asmatu egiten du ikuslearengana iristen. Bizkaiko ordezkari Gorka Pagonabarraga ez dut sekula bertsoan entzun, baina oso ona dela esan didate. Eta argi Aitorrekin!".

Aurtengo ikasturtean elkartu egin dira Aretxabaleako eta Aramaioko eskolak; hortaz, Ugartek dio elkarrekin ari direla finala prestatzen. "Gogotsu nago, eta, oraingoz, lasai ni ere. Favoritoen artean, Oihanaren alde egingo nuke; oso indartsu dago. Gipuzkoako beste ordezkari Aner Peritz *Euzkitze* ere fin dabil, eta zer esanik ez nire herrialde-kide Aroa ere bai", gaineratu du Ugartek.

## HURRETIK



GOIENA TELEBISTA,  
BERTAKO PERTSONAK PROTAGONISTA DITUEN SAIOA  
EKAINAREN 5EAN, MARTITZENEAN,  
21:30EAN ETA 23:30EAN  
PILAR ETXANIZ, IRAKASLE IZANDAKOA  
ETA GIZARTE EKINTZAILEA

goiena  
Zu hemen zaude.





# Salaketa, poliziaren aurkako irainengatik

'Mozal legea'-ren eragina, oraingoan, Evaristo Paramosendako, garai bateko La Polla taldeko eta egungo Gatillazoko abeslariarendako; 100 eta 600 euro arteko isuna jaso dezake, kontzertu batean, Jerezen, Guardia Zibilari "Putza-semea" deitzeagatik

**Aitziber Aranburuzabala OÑATI**

Gatillazo taldeak kontzertua egin zuen egubakoitzean Jerezo Primavera Trompetera jaialdian, eta, hedabideetan argitaratutakoaren arabera, taularen gainetik jaitsi ondoren, publikoan, beste taldeen kontzertua entzuten ari zela, taldeko abeslari Evaristo Paramosengana joan zen Guardia Zibila. Hasiera batean bere abestiaren letrenengatik atxikia izan zela zabaldu bazen ere, Guardia Zibilak Twitter bidez argitu zuen ez zela atxikimendurik izan ere. Salaketa baten berri eman zaio soilik". Era berean, gaineratu zuten salaketaren arrazoia ez zirela taldearen kantuen hitzak izan, baizik eta "kontzertuaren amaieran poliziaren aurkako irainak esan izana".

Guardia Zibilak abeslaria kontzertu-gunetik eraman zuen une hura grabatu zuen han zegoen pertsona batek, eta domekan zabaldu zen sare sozialetan lehenengo, eta agerkari digital askotan ere oihartzun zabala izan zuen segituan.

**Elkartasun mezu asko, sarean**

Valtonyc musikariaren kasua gertu izanik, asko izan ziren kasu bat bestearekin lotu zutenak, eta segituan hedatu ziren, Euskal Herritik zein kanpotik, musikazaleek eta askotariko eragileek -tartean, ordezkari politikariek argitaratu zituztenak- eta adierazpen askatasuna aldarrikatzen eta Evaristori elkartasuna adierazten zizkieten mezuak.

**Administratibotik, ez penaletik**

Zigorraren gaineko informazio ofizialik ez dago, baina *Eldiario*.es atariaren arabera, "salaketa administratibo" baten berri eman zioten abeslariari, agintaritzarekiko "errespetu faltagatik". Elena Laka abokatuak azaldu



2014an Oñatiko Olara auzoan Gatillazok egin zuen kontzertua. I. S.

## Evaristori, "Mozal legea"



ELENA LAKA  
ABOKATUA

Herritarren Segurtasunaren Babeserako Legea autoizendatzen dena aplikatu diote Evaristori eta, herritarrei segurtasuna emateko aitzakiarekin, eskumena ematen dio Gobernuari Kode Penalean zigorrik ez duten jokaerak zigortzeko; epaiketa barik.

Garesti ateratzen da polizierekiko errespetu faltatzen jotzen dena. Estatuak ondo blindatzen ditu bere erakundeak. Herritarren segurtasuna eta erakundeen babesa, Estatuaren bi zutoinotan sartzen den guztiaren aurrean, ahoa itxita eta gorputza geldituta. Herpes, talko eta tekno-poparen garaiak dira.

du 2016tik irain arinak Kode Penalean desagertu zirela, baina herritarren segurtasuna babesteko legeak ezarri zuen arauhauste arina dela "segurtasun indarretako kideren bati errespetua galtzea, Kode Penalean ez bada jokabide hori zigortzen".

Bergarako abokatuak, era berean, zera gaineratu du: "Hori da, ematen duenez, Evaristori aplikatu diotena, *Mozal legea*; poliziarri errespetua ez ematea leporatzen diote, kontzertu batean polizia guztiak putaseme-alabak direla esateagatik, arau-hauste arina, eta 100 eta 600 euro arteko isuna jasotzeko bidea eman dezakeena. Ezberdina da Valtonyc rap musikariaren kantuen kasuan; Kode Penala aplikatu diote bete-betean honi, eta zapla!, hiru urtetik gorako kartzela zigorra ezarri diote Espainiako Koroaren iraintzat, terrorismoaren laudoriotzat edo agintari baten mehatxutzat hartzen diren jokabideengatik. Herritarren segurtasunaren babesa 1992an hasi zen, Corcuerearen ateko ostiko harekin, gogoratzen?, aurretik frankismo garaian tradizio luzea zuen Administrazioaren zehapenen ondoren".

## Goiena Klubaren txokoa



LACTURALE erabileren eskutik:

**15 produktu sorta ditugu zozketatzeko**

Parte hartzeko sariaren izena: LACTURALE

**Esne Behien Interpretazio Zentroa bisitatzeko gonbidapenak ditugu zozketatzeko**

Lacturale taldeko baseri bat da: gidari, azalpen-taula, kux-entzunezkoak eta daizotze-zentroaren bidez beste egutegi egokituak. Espesientzia honen bidez, bozt zentzumenak -ikusmena, usimena, daizotzeak, ukimena eta entzumenak- landuko dituzte landa-ingurunean hurbilduta eta behien zuzimena egonda, baseri batean gertatzen den guztia interpretatze aldera. Behiak ukitu ahal izango dituzte, jaten eman, eta aber.

- Publiko guztientzat egokitua
- Jaiegunak ez diren uneko larunbatetan eta igandeetan izaten dira.
- NAHITAEZKOA DA HITZOROTUA ALDEZ
- AURRETIK ESKATZEA (telefonoa: 948 60 04 49)
- Telefono-bidezko arretarako orduak: astelehenerik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
- Lacturalek Etxaberi Anikien duen Esne Behien Interpretazio Zentroan

Parte hartzeko sariaren izena: LACTURALE\_BISITA

**PARTE HARTZEKO:**

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzearen arloan egingo da zozketa. Irain egunak 09:00-12:00 egunak, jaietan dago gaiturik. Gero funtzioak. Irain egunak zozketatzen diren bitartean, kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira. Kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira. Kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira. Kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira.

## Irabazi bi lagunendako otordua

**TARTUFO JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jafetena  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Arrasateko Udaleri esker**

"Txariboda" antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Ekainaren 10ean

**PARTE HARTZEKO: EKAINAREN 6RA ARTE**

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "Antzerki"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzearen arloan egingo da zozketa. Irain egunak 09:00-12:00 egunak, jaietan dago gaiturik. Gero funtzioak. Irain egunak zozketatzen diren bitartean, kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira. Kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira. Kluba berri baten hasierako irain egunak zozketatzen dira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantaila zozketatzeko...



Bazkidetu orain 2018rako 56€ ordainduta.  
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazte, denok irabazte!

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 101. SALDU

**Bergara.** 87 metro koa-droko etxebizitza salgai Espolotan. Traslekua ere badu. Deitu zenbaki honetara: 670 22 42 09

**Bergara.** 70 metro koa-droko etxebizitza salgai Martoko kalean. Sukaldea jantzi berria, estreinatze-ko. Bainugela, hiru logela eta trastelekua. Guztia berria. Eguzkitsua. Gellek eta bainugelak kanpora ematen dute. Igoailua. Teilatua eta fatxada isolamendu energetikoz hornitu berriak. Aukera ona. 688 63 36 26

**Bergara.** 70 metro koa-droko etxebizitza salgai Martoko kalean. Sukaldea jantzi berria, estreinatze-ko. Bainugela, hiru logela eta trastelekua. Guztia berria. Eguzkitsua. Gellek eta bainugelak kanpora ematen dute. Igoailua. Teilatua eta fatxada isolamendu energetikoz hornitu berriak. Aukera ona. 688 63 36 26

**Bergara.** 70 metro koa-droko etxebizitza salgai Martoko kalean. Sukaldea jantzi berria, estreinatze-ko. Bainugela, hiru logela eta trastelekua. Guztia berria. Eguzkitsua. Gellek eta bainugelak kanpora ematen dute. Igoailua. Teilatua eta fatxada isolamendu energetikoz hornitu berriak. Aukera ona. 688 63 36 26

**Bergara.** 70 metro koa-droko etxebizitza salgai Martoko kalean. Sukaldea jantzi berria, estreinatze-ko. Bainugela, hiru logela eta trastelekua. Guztia berria. Eguzkitsua. Gellek eta bainugelak kanpora ematen dute. Igoailua. Teilatua eta fatxada isolamendu energetikoz hornitu berriak. Aukera ona. 688 63 36 26

